

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO HAMAIA EKIMEN ETA ADIERAZPEN

Azaroaren 25ak berriro azaleratu
ditu emakumeek gizonengandik
jasaten dituzten era guztietako
indarkeria motak / 4

Seber Altuben egindako ekitaldiaren une bat, Arrasateko Emakume Txokoak Mugimendu Feministarekin elkarlanean antolatuta. XABIER URZELAI

**Astebete bikoiztu
egin dira COVID-19
kasuak eskualdean
eta intzidentzia-tasa
510,73an kokatu da** / 3

**Txomin Iturbe ETako
buruzagiaren gaineko
biografia aurkeztu
dute Arrasaten, haren
jaioterrian** / 6

SINADURAK

	JOKIN LARRANAGA / 17
	XABIER ARREGI MURGIONDO / 8
	MIEL GURIDI / 34
	OIANA SANCHEZ / 11
	AINZANE OIARBIDE / 48



Zerua ukitzen duten
sinboloak gure
mendi puntetan

Garbiñe Ubeda
idazleari
elkarriketa

**Enara Gamindek
eta Maddi
Barrocalek
irabazi dute
Bergara Hiria**

Barrocal bergararrak Leire
Galeano antzuolarra eta
Mirian Arraiza izan zituen
kontrario promes mailako
finalean / 27



Gaminde eta Barrocal, Bergarako Udal Pilotalekuan, finalaren ostean. MIREIA BIKUÑA

**'Emakumea eta
kirola' egitaraua
gertatu dute
Aretxabaletako
Udalak eta UDAK** / 19

**Kubako doinuak oinarri
dituzten abestiekin
osatu du Ruper
Ordorikak 'Amour eta
toujours' diskoa** / 40

Hemen
garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa
**ZURE KONFIANTZAKO
GARBIKETA ENPRESA**

ESKORIATZA
T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA ENYAQ IV



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70





Udaletako ordezkariak eta Atzegiko kideak batu ziren Bergaran. JON IRIZAR

Atzegiren xedea, "jarrera positiboak" goraipatzea

Atzegi elkarteak 2021eko sentsibilizazio kanpaina aurkeztu zuen eguaztenean Bergaran. Baileraz bailara ari dira azaltzen zein den datozen hilabeteetarako jarri duten helburua: atzegizaleen lana aitortzearekin batera, komunitatea zabaltzea

Uxue Igarza Loiola BERGARA

2.068 familiak osatzen dute Gipuzkoako Atzegi elkarteak, eta horietatik 171 Debagoienekoak dira. Halere, adimen desgaitasuna dutenen kolektiboa indartzen dutenak horiek baino askoz gehiago dira; bailaran, esaterako, 871 dira atzegizale rola hartu duten herritarrek. Elkarrekin berak azaldu duenez, atzegizaleak "keinu txikiak eginez, eragin handia" lortzen duten pertsonak dira: "Desgaitasun intelektuala duten pertsonak diren bezala onartzen dituzte; ez dituzte epaitzen, haiengan sinesten dute eta gizartean parte hartzeko aukerak eskaintzen dizkiete".

Hala, aurten, duela 20 urte sortutako atzegizale figuraren balioa indartu nahi da, senti-

bilizazio kanpaina baten bidez. "Orain arte ondoan izan ditugunei errekonozimendua egitea eta atzegizaleen sarea handitzen jarraitzea da gure xedea", azaldu zuten eguaztenean Bergaran egindako aurkezpenean. *Geroz eta gehiago gara, eta nonahi gaude* da kanpainaren leloa, eta, hain zuzen ere, aipatutako helburuari egiten dio erreferentzia.

2000. urtean sortu zen atzegizale kontzeptua, adimen desgaitasuna duten pertsonen "jarrera positiboak" zutenak izendatzeko, eta, ordutik, adin-tarte eta herri askotan identifikatu dira halako bidelagunak. Komunitatea zabaltzen jarraitu nahi dute, eta sentsibilizazio kanpainaren baitan material ugari sortu dituzte; besteak beste, ikus-entzunezkoen sorta bat.

60 urteko lana ospatuko dute

Ofizialki iaz egin zituen 60 urte Atzegi elkarteak, baina, osasun egoerak hala behartuta, ezin izan zuten nahi bezalako ospakizunik egin. Halakoak egiteko, baina, ez da sekula berandu izaten, eta aurten ospatuko dute 60+1 urteurrena.

Abenduaren 20an, Kursaaletan ekitaldi berezia egingo dute: "Ekitaldian, iraganera baina, batez ere, etorkizunera begiratu da. Sorpresak eta une hunkigarriak izango ditugu". Datozen urteetarako lan-ildoak eta hausnarketa estrategikoaren ondorioak partekatuko dituzte laurreratu dute.

Ospakizunera joan nahi dutenek atzegizale@atzegi.eus helbidera idatzi edo 943 42 39 42 telefonora deitu beharko dute.

Greba hasiko dute astelehenean eskualdeko ESiko anestesistek

Debagoieneko ESiko Anestesia Zerbitzuko langileek "baldintza duinak" exijituko dituzte datorren astean

U. I. L. ARRASATE

ESK sindikatuak babestuta, Debagoieneko Ospitaleko anestesistek greba mugagabea hasiko dute hilaren 29an. "Langileen defizit iraunkorra eta egungo zuzendaritzaren kudeaketa zaborra" salatu dituzte, eta, azaldu dutenez, beraien lan-baldintzak "duintzeaz" gain, sareko ospitaleetako lankideen egoera hobetzea ere bada grebaren helburua.

Zehatz esanda, bost eskaera egin dituzte: espezialista gehiago kontratatzea; hitzarmen arautzaileak jasotzen dituen zaintzak

egitea, kontziliazioa aintzat hartuta; lanaldi murriztutudun langileei zaintzen murrizketa proportzionala egitea; aurreikusi ezin diren kontingentziengatik zaintza gehiago egin beharrez gero, lanordu gisa zenbatzea; eta bukatzeko, akordio arautzaileari jarraituz, lan zein zaintza egutegiak bi hilabeteko aurre-rapenarekin jakinaraztea.

Sindikatuak salatu du lan-baldintzak "etengabe" eta "modu larrian" urratu direla, eta zuzendaritza "ez dela gai izan" auziari konponbiderik emateko.

Ospitaleko zerbitzuak hobetzea eskatu dute Osasun Batzordean

EH Bilduk ospitalea hobetzea proposatu du Osasun Batzordean; EAJ-PSEren zuzenketak egin du aurrera

U. I. L. ARRASATE

Rebeka Ubera legebiltzarkide elgetarrak azaldukoaren arabera, pandemiak "agerian" utzi ditu Debagoieneko Ospitalean aurrez ere bazeuden "gabeziak". Hala, hiru eskaera egin zizkion Osasun Sailari: Kardiologia, Mikrobiologia, Pneumologia, Anatomia Patologikoa eta Urologia espezialitateetako lanpostuak gehitu edota berreskuratzea; larrialdietan behaketa unitatea abian jartzea adineko zein egoera zaurgarrian egon daitezkeen pazienteak artatzeko; eta egoera

erdi-kritikoan daudenentzako unitatea sortzea, horretarako, bertako osasun langileei formakuntza eskainiz.

Batzordeko gainerako taldeek zuzenketak egin dizkiote EH Bilduren proposamenari, eta, azkenean, gehiengo osoa duen EAJ-PSErenak egingo du aurrera. "Osasun-arretaren eskariak eta espezializazio handiagoak hala eskatzen duten heinean jarraituko da arreta emateko ibilbideen diseinuan eta ezarpenen sakontzen", dio onartu den zuzenketa-dokumentuak.

Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez. Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.

Zeu zara zure
influencer onena.
#KontsumitzenJakin




kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana



Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko asteen	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	65	28	3.688	%16,70	421
Bergara	46	39	1.983	%13,19	565
Oñati	38	11	1.782	%15,54	427
Antzuola	30	28	379	%17,39	2.661
Aretxabaleta	15	7	1.016	%14,35	310
Eskoriatza	11	6	551	%13,43	414
Aramaio	2	0	247	%16,69	135
Elgeta	2	3	93	%8,22	442
Gatzaga	0	0	16	%6,40	0
DEBAGOIENA	209	122	9.755	%15,05	510

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Aste honetan bikoiztu egin dira COVID-19 kasuak Debagoieneran

209 positibo berri baieztatu dira bailaran hilaren 18tik 24ra bitartean; horietatik 131, azken hiru egunetan

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA

Azken bi asteetan 331 kasu haurteman dira eskualdean; 209 azken astean eta heren bat baino gehiago astelehenetik egunera bitartean. Datu horiek eskualdeko intzidentzia-tasa 510,73an koka-

tu dute; Gipuzkoakoak baino 138 puntu gutxiago ditu, baina EAEkoak baino 136 gehiago.

Eta erietxeei dagokienez, Debagoieneko Ospitalean bost lagun daude ingresatuta COVID-19aren eraginez, eta EAEko erietxeetan

179 daude plantan eta 36 ZIUen. Bilakaerak kezkatuta, Jaurleri-tzako osasun agintariekin astean esan dute ZIUetako okupazioak 50 kutsatuen langa gainditzen badu osasun larrialdia ezartzea aztertuko dutela.

INDARKERIA
MATXISTAREN
AURREAN EZ ZAITEZ
IKUSLE HUTS BAT IZAN

ERASO ASKO GURE BEGIEN AURREAN GERTATZEN DIRA.
ZUK ERE BADUZU HAU ALDATZEKO ARDURA.



NOLA JOKATU JAKITEKO INFORMAZIOA:
berdintasuna.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Dozenaka lagun elkartu ziren atzo –eguna– Arrasaten, azaroaren 25a zela-eta *Nik siniskeitán dotzut, eta punto* leloarekin egindako ekitaldian, Emakume Txokoak eta herriko Mugimendu Feministak antolatuta. Elkarretaratzea egin zuten iluntzean Seber Altube plazan, eta hark iraun zuen denboran horma-irudi bat ere osatu zuten.

Horrekin batera, elkarretaratzearen amaiera aldera, pankartari eusten egon ziren kideak eszenatokira igo eta emakumeek jasaten dituzten beldurrekin, indarkeriarekin eta ondorioekin lotutako esaldiak bota zituzten; esaldi horiei "...eta ez da neure errua!" erantzuten zieten publikotik. Ekitaldiari amaiera emateko, egunerako prestatutako adierazpen laburra irakurri zuten.

Indarkeria emakume guztiek jasan eta jasaten dutela esanez hasten zen adierazpena, eta honela segi: "Izen be, emakumion aurkako biolentziak badittu mila aurpegi, hamaika forma. Leku eta espazio danetan dau presente; ikusi nahi ez ditudunetan be bai... Etengabe, arduria gure gain jarri gure izen daue mozkor edota, gabaz, kaletik bakarrik fatiagatik; gure emozinuak erakustiagatik; eguneko afaixa ez prestatziagatik; proboketiagatik... Baina geure gorputzak geuriak die, parrandan, etxerako bidien, ohian, lantokixen, etxien, kalien edo asanbladan. Eta arduria, erasotzailiena, eurena bakarrik. Bada ordua erasotzailiek euren arduria hartzeko! Izen be, erasotzailiak eta bera babesten dauienak die arduradunak, arduradun bakarrak".

Adierazpenean jende orori eskatzen zitzaion "sexismoaren aurkako jarrera irmoa hartzeko", bakoitzari dagokion lekutik; erasotzailearen laguna izanez gero, kargu hartzeko, "konplize" izan barik. Eta gizon guztiei, nork bere jarrera berrikusteko.

"Amaittu da zeuen garaia. Ez dou eraso bakar bat gehixau onartuko. Eta norbait gutako bat, gutako bakar bat, ikutzer auzartzen bada, danok eukiko gaitu aurrien. Jokatu daigun irmo, eta zaindu daigun alkar", zioen, amaitzeko, adierazpenak.

Arrasaten bezala, Debagoieneko gainerako herrietan ere mobilizazioak izan ziren atzo iluntzean.



Atzoko egunerako prestatutako esaldiak irakurtzen, Arrasateko ekitaldian. XABIER URZELAI

Indarkeria matxistaren 180 biktima daude, egun, Deba-Urola barrutian

Ertzaintzak jakinarazitako datuak dira. Atzo, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna zela-eta, hainbat mobilizazio egin ziren Debagoieneko herrietan; zenbaitetan, era berezian izan zuten gogoan adineko emakumeek pairatzen duten biolentzia

Artearen bidez indarkeria matxista ikustarazi

Emaus fundazioak *Ateak* erakusketa ireki du Arrasateko egoitzan. Hainbat artistak marraztutako atek dira proiektuaren oinarri diren artelanak. Nahi duenak artelanak eskuratzeko aukera du. Gizonen eskuetan eraila zen emakume bakoitzeko artelan bat egitea proposatu zien Emaus fundazioak hainbat artistari, bi oinarriekin: ate zahar bat izatea obraren euskarria, eta irabazi asmorik gabe jardutea.

Indarkeria matxistaren aitzakian, ateen beste aldean dauden errealitateak ikustarazten aritu dira artistak geroztik. 2018tik aurrera, erailketaz erailketa eta atez ate osatu da *Ateak* proiektua.



Arrasateko Emausen EcoCenterreko erakusketaren irudi bat. EMAUS

Ateak, eskuragai
Ia 50 artistak hartu dute parte ekimenean, eta Emausen egoitzetan erakusketak antolatuta dituzte. Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren

bueltan, Arrasateko EkoCenter egoitzan jarri dituzte ate guztiak ikusgai. Ateetako bat eskuratzeko, komunikazioa@emaus.com helbidera idatzi edo 616 13 54 28 telefonora deitu behar da.

Emakume nagusiak gogoan

Iaz 55 eta 79 urte bitarteko emakumeekin egindako lanari jarraipena eman eta haiek jasaten duten indarkeria bistaratzeko kanpaina egin du aurten ere Emakundek. Urte askoan jasadako indarkeriaren benetako testigantzak dira kanpainaren ardatz, era fisikoan ez ezik, menpekotasun, umiliazio, kontsiderazio falta edo jazarpen erara, adibidez, gertatzen den indarkeria. Kanpainarekin, Emakundek nahi du sarri antzematen zailagoa edo aintzat hartua ez den indarkeria hori identifikatzea eta borrokatzea lor dadila.

Horixe izan zuten gogoan asotehenean Bergarako pentsiodunek egindako ohiko agerraldian ere; erakundearen partetik jasotzen duten tratua bai –emakume pentsiodunen arazoak azaroaren 25eko aldarrikapenean lotuz–, baina baita familian edo gizartean ere jasan behar izaten dutena. "Bizi dugun sistema patriarkalean araua da gizonek emakumeek baino gehiago balio dutela, eta bizitzako esparru guztietan du eragina horrek. Emakumeak askotariko diskriminazioak eta indarkeriak jasaten ditu", adierazi zuten.

Oñatin atzo eguerdian egin zuten elkarretaratzea Lagun Lekuko erretiratuek, eta Landatxoekoek ere bai Antzuolan, Udalarekin eta Andramanuelak taldearekin bat eginez –eguerdian bezala, iluntzean–. Bertan, Landatxoeko Pilar Etxanizek adierazi zuen adineko emakumeek, "hezi eta sozializatu diren egoeira, kultura eta garaiaiatik, badutela indarkeria bizitzeko modu berezi bat", eta "kosta" egiten zaiela identifikatzea tratatu txar fisikoa ez dena, psikologikoa, erakutsi izan zaielako gauzak "horrela" direla eta kito: "Oso garrantzitsua da hori kalera ateratzea eta pertsona nagusiek kontzientzia hartzea eta indarkeria normaltasunez ez bizitzea".

Heriotza bat azken urtean

Urtea amaitzera doala datoz aurten ere aldarrikapenok, ohi bezala, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren testuinguruan; urtea hasi, baina, albiste ezin okerragoekin hasi zen gai honi eta Debagoienari dagokionez: 2021eko lehen egunean eman zuen Goienak Maria Angeles Ibarluzea Etxaberen erailketaren berri.



Lagun Lekuko erretiratuek Oñatin egindako bilkura. GOIENA

Egun batzuk lehenagotik ez zegoen Kanariar uharteetan bizi zen 66 urteko arrasatearraren berririk –lagun batek nabaritu zuen haren falta–; poliziak haren etxe inguruan lurperatuta gorputzak aurkitu eta Ibarluzearen bikotekideak aitortu zuen berak hil zuela emakumea.

Kasu honetan, emakumearen aurkako eraso ez zen saihestu. Beste hainbat kasutan, salaketa izaten da heriotzak ekiditeko modurik eraginkorrena. Ertzaintzak emandako datuen arabera, tratatu txarreatik salaketa jarritako emakume bat ere ez dute hil EAEn azken hamar urteetan –hamabost salaketa inguru jarzen dira egunean–.

Bergarako ertzain-etxeak daraman Deba-Urola barrutiko

datuei dagokienez, gaur egun, hamabost emakumek darabil-tzate babes neurri teknologikoak –*Bortxa app*-a; Ertzaintzarekin eta SOS Deiekin berehalako harremana ahalbidetzen duena eta GPS bidez kokapena ere ezagutarazten duen alarma zerbitzua duena–, zortzik dituzte kontrazaintza neurriak –une eta leku zehatzetan erasotzailearen balizko hurbiltzea zaintzeko– eta 130 emakumek dute epaitegiek agindutako zaintza. Guztira, Deba-Urola barrutian, 180 dira, gaur egun, espedientea zabalik duten genero indarkeriaren biktima diren emakumeak. Kopuruak gora egin du duela urtebetetik hona, iazko azaroan 144 ziren-eta indarkeria ma-

txistaren biktimak –Ertzaintzaren datuak oinarri hartuta–.

Ekintza gehiago Debagoiengan

Aipatutako mobilizazioez gain, beste hainbat ekintza ere egin dira egunotan azaroaren 25a dela eta: *Memoria eraikiz* karpaa, Bergaran; horma-irudia, Elgetan; eta *Neska gazte ikasle tailerra*, Aretxabaletan, adibidez.

Atzo goizean egin zuten Aretxabaletako tailerra, Pikarraituz asanblada feministak antolatuta. "Neska ikasle subjektua identifikatzea, ezaugarritzea eta ahalduntzea izan da helburu nagusia, norbana-ko bezala eta kolektibo bezala", zioen taldeko kide Ane Etxabek.

"Biktimei asko kostatzen zaie jasandako abusuez berba egitea"

GARBIÑE AGIRIANO PSIKOLOGOA

Abusuak jasaten dituzten biktimen arazo emozionalen gainean dihardu Udalaiz Mediku Zentroko psikologoak.

Zeintzuk dira min emozionalaren ondorioak?

Estresa, errudun sentimendua... Sarritan pentsatzen da norberak zerbait egin diola beste pertsonari, min emateko boterea emanaz. Depresioa eta antsietatea ere ohikoak izaten dira: tristura, urduritasuna, konfiantza falta, ezinegon emozionala...

Beste ondorioetako bat da biktimei asko kostatzen zaiela gertatutakoari buruz hitz egitea.

Oso zaila izaten da haien hitz egitea. Beldur handia izaten dute epaituak izateko, ez sinistua izateko.



EIDER MONCAYOLA

Gertatutakoa distorsionatzeko joera ere badago. Zer da hori?

Objektiboki ez ikustea. Biziraupen emozionalagatik garrantzia kentzen dio biktima, horren larritasuna ez du ikusi nahi.

Abusutzailea gertuko pertsona denean, zein eragin du horrek errehabilitazioarako?

Abusua ezezagun baten aldetik datorrenean larria da, baina, konfiantzazkoa izanez gero, askoz larriagoa. Horren ondorioz, harreman sozialak guztiz mugatuta geratzen dira.

Fase berria salgai. Infoma zaitez!

Terrazadun 2 logelako etxebizitzak 140.000 €-tik aurrera (BEZ gabe)



BERGARA · www.lorentxoko.com

lorentxoko
P25 · bizigune berria

Jarraitu

GEk Bergarako etxebizitza-multzo honetan duela 15 urtetik gora duen esperientziari

Bergaran dagoeneko finkatuta dagoen bizitegi-espazio bati, kalitatezko etxebizitzekin eta eremu ireki eta arnasgarri batean.

Ondo egindako etxeei, betiko kalitate bikainekin eta zure etxebizitza bakarra egiteko pertsonalizazio-aukerekin.

Jarraitu proiektu BIZI bati, ENTZUTEN dakien erreferentziako sustatzaile baten eskutik.

Zuk bakarrik jarraitu. Ni arduratuko naiz zu zoriontsu egiteaz. "Lorentxoko"

grupo eibar
inmobiliario
www.grupoeibar.com

GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:
Ernal 1 · 20570 BERGARA.

comercial@grupoeibar.com

943 31 66 11
650 44 21 59



Mikel Urain, liburuaren egilea, Kulturaten, martitzenean. TXOMIN MADINA

'Txomin. Aurrera bolie!' liburua aurkeztu dute

Txomin Iturbe ETako buruzagiaren gaineko lehen biografia idatzi du Jokin Urainek. Arrasaten, jaioterrian, aurkeztu du asteon, Kulturate aretoa lepo zela. Baigorri argitaletxeak argitaratu du liburua eta 'Gara' egunkariarekin ere banatuko da

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE Txomin Iturberi buruz Jokin Urainek idatzi duen liburua aurkeztu zuten Arrasaten martitzenean. ETako kide eta buruzagi historikoa 1943an jaio zen, Arrasaten, eta, bere bizitzaren zati handi bat ihes egin da eman ostean, 1987an hil zen, Aljerian. Kulturateko areto nagusia jendez bete zen, Iturberen senideak ere batu zituen ekitaldian. Liburuaren egileak Xabier Zubizarreta Arrasateko alkate ohia izan zuen alboan aurkezpenean.

Pertsonaia "erreferentziakoa" 1970eko eta 1980ko hamarkade-tako pertsonaia erreferentziakoa izan zen Txomin Iturberen biografia dela esan du egileak. "Txabi Etxebarrieta edo Jose Miguel Beñaran *Argala*-ren biografiak dauden moduan, Iturberenak ere egon behar zuen".

Hain justu ere, liburuaren gaineko oharrean, zera irakur daiteke: *1936-39ko gerra galdua-*

ren ondoren jaiotako euskaldunen belaunaldi baten espiritua irudikatzen du Txomin Iturbek. Herri gisa galzoriaren ertzeraino makurrazita zegoen gizartearen etorkizunaren alde zutitzera ausartu zen belaunaldia da Txominena.

Ezagutu zutenen testigantzak Txomin Iturbe ezagutu zutenen oroitzapenak dira Urainek liburua osatzeko erabili dituen osagai nagusiak: "Memorian gordeta daukagun historia berre-raikitzea ere bada helburua. Horixe egin dugu, jendearen ahotsak batuz eta horiek kronologikoki harilkatuz".

Jokin Urainek ezagutu zuen Txomin Iturbe, baita liburua

"EGUNGO EGOERAREN IRAKURKETA BAIKORRA EGINGO ZUEN, BIZIKO BALITZ"

JOKIN URAIN (LIBURUAREN EGILEA)

idazteko bidelagun izan duen Xabier Zubizarretak ere. Azken honek dio liburuak Iturbe hobeto ezagutzeko balio izan diola: "Bere garai batzuk hobeto ezagutzen nituen. Liburua egiterakoan izan ditugun gorabeherak ekarpen handia izan dira".

Txomin Iturbek jendea erakartzeko eta enpatia sortzeko zuen gaitasuna azpimarratu du Jokin Urainek. Arrasatekoak gaur egungo egoeraz ze irakurketa egingo zukeen galdetuta, zera dio liburuaren egileak: "Uste dut gaur egun biziko balitz irakurketa baikorra egingo zukeela, berez zelako baikorra eta aurrera begiratzen zuelako; jendea batzen saiatzen zelako aurrera begirako proiektu baten".

"LIBURUA EGITEKO PROZESUA EKARPEN HANDIA IZAN DA NIRETAKO"

XABIER ZUBIZARRETA (ALKATE OHIA)

Pandemiari aurre egiteko laguntza eskatu du Tokikomek

Egunkariei eta irratiei eman zaizkien 5 milioiko dirulaguntzatik kanpo geratu direnen lana aitortzeko

E.A.L. ARRASATE

COVID-19ak eragindako galerak apaltzeko, dirulaguntza puntual bat adostea eskatu dute Tokikomen batzen diren euskarazko tokiko hedabideek. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak asteon iragarri du 5 milioi euroko dirulaguntza jasoko dutela Euskal Autonomia Erkidegoko egunkariak eta hainbat irratik. Dirulaguntza horretatik kanpo geratu dira tokiko hedabideak, aldizkari orokorrak, espezializatuak edota digitalak. "Albisteak egoneza sortu du, inon ez baita azaldu zeren arabera eman zaizkien laguntza horiek hedabide batzuei eta beste batzuei ez", adierazi du, ohar bidez, Tokikom elkartearen Administrazio Kontseiluak. Tokikomek eskatu du mahai batean jartzea eta "dirurik jaso ez dutenen hedabideendako zer pentsatu den hitz egitea eta proposamen bat lantzea". Era berean, baldintza berberetan dirulaguntza puntual bat adostea.

Tokikomek dio dirulaguntzak hedabideei emateak "hizkuntza politika gainditzeko" duela, eta ondo irizten diola, edozein enpresa edo sektore moduan behar

baitu laguntza hedabideen sektoreak: "Horrela jokatzeko da munduko hainbat herrialdetan". Hedabideen kasuan, gainera, beharrezko direla "editorial ezberdinak" dituzten hedabideak. Hala ere, dio, momentuz, COVID-19aren garaian, hedabide batzuen galerak estaltzeko jarri dela dirua, eta demokrazia sendo batek eskatzen duela "hedabide guzti-guztiak" laguntzea. "COVID-19ak hedabide guztioi eragin digu", dio Tokikomek.

Ez publizitate, ez diru

Bestalde, gogoratu du pandemiaren sasoirik zailenean, "mezu instituzionalak, osasunekoak eta oinarrizko beharrei lotuak" zabaldu dituztela tokiko hedabideek ere. Ostera, Eusko Jaurlaritzak pandemian egindako publizitate kanpainak eta publizitatea ia osotasunean egunero koetara bideratu dela. "Espero dugu publizitatearekin ez bezala, laguntza puntual hauekin hedabideek pandemian egindako lana aitortuko dela". Horregatik eskatu dio Jaurlaritzari 5 milioi euroko dirulaguntza horretatik kanpo geratu diren hedabideak ere diruz laguntzea.

Euskarazko lehen weblogak, 'Sustatu'-k, 20 urte bete ditu

Bilbon ospatuko du 20. urteurrena gaur, barikua, '20 urte euskaraz Interneten' izeneko jardunaldiarekin

E.A.L. ARRASATE

Sustatu Interneteko euskarazko albistegiak 20 urte bete ditu. Eibarko Code&Syntax Interneteko zerbitzu-enpresarena da eta teknologia berrien inguruan espezializatu da. Euskarazko lehenengo webloga izan zen, non artikulua idazteko aukera irakurleen esku ere jarri zen, lehenengoz eta euskaraz. C&S-ren eta Goienaren ekimenez jaio zen.

Hartzailea, emaila

Sustatu-ko Luistxo Fernandezek dio weblogak erakutsi zuela

Internet bi noranzkoko dela: "Hartzailea emaila edo eduki sortzaile" ere izan daitekeela. Eta nabarmendu du milurtekoan sartzeaz bat behetik gora sortutako Interneteko hainbat ekimen berritzaile sortu zirela; *Sustatu* bera eta *Armiarma*, euskarazko Wikipedia eta *Dantzaneus*.

Ospakizunetarako, Bilbon antolatu dute jardunaldia gaurko, barikua, arratsalderako. Mahai-inguruak, hitzaldi azkar eta laburrak eta *crossover* ikuskizuna izango dira.

D2030: ELKARRIZKETA

Miren Arregi ARRASATE

Arantzazulab gizarte berrikuntza laborategia etorkizunaz, herriaz eta euskal gizartearen erronken inguruan modu berritzailean hausnartzeko eta esperimintatzeko gunea izateko jarri zen abian, 2020ko udazkenean. Urtebeteren ostean, Lankidetzazko Gobernantzan Erreferentzia Zentro da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz estrategiaren markoan.

Zein da urtebeteko ibilbidearen ostean egiten duzuen balorazioa?

Bada urtebete Arantzazulaben hasi ginenetik, nahiz eta aurkezpene martxoan egin genuen. Urte intentsua izan da, ederra, hasiera guztiek dituzten motibazio, erronka eta gauza desberdin horiekin guztiekin. Tarte honek eman digu aukera oinarri sendo bat jartzeko, programa bat egonkortzeko eta ekimen desberdinak aktibatuz.

Nola uztartzen dira Arantzazu bera eta Arantzazulab?

Gure izaera eraikitzen da balio horietatik guztietatik. Arantzazuk sinbolizatzen ditu pertsonen ongizatea, elkarlana, herria, euskara eta kultura, berrikuntza... Horrek ematen dio balio erantsia egiten ari garen gizarte berrikuntza lanari.

Arantzazulabek bultzatu nahi duen gizarte berrikuntza printzipio eta balio zehatz batzuekin lotzen da: herrigintzarekin eta lankidetzazko gobernantzarekin, hain justu ere.

Azken urte honek eman digu aukera gure gizarte berrikuntzaren fokua zehazteko, eta hori lankidetzazko gobernantarantz eta herrigintzarantz joan da. Lankidetzazko Gobernantzan Erreferentzia Zentro bezala kokatzen da Arantzazulab Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz strategiaren markoan. Horrek jartzen digu misio argi bat eta da, hain zuzen ere, lankidetzazko gobernanzaren inguruan ezagutza garatzeko gure herriko gunerik garrantzitsuena izatearena. **Zergatik eta zertarako behar du Euskal herriak lankidetzazko gobernantza?**



Arantzazulabeko zuzendari nagusi Naiara Goia, Arantzazun. GOIENA

"Gobernantza eredu berriak esploratu nahi ditugu, herritarrek agenda publikoan modu esanguratsuan inplikatzeko"

NAIARA GOIA ARANTZAZULABEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Lurraldeko eragile ezberdinek sustatua, Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategia, D2030eko Gobernu Batzordeko kide da. Naiara Goia da bertako zuzendari nagusia

Lankidetzazko gobernantza da gobernuak edo erakunde publikoek gizarte zibilarekin harremanetarako moduan hausnartzeko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko eredu berri bat eta Arantzazulabek, administrazio publikoaren eta gizarte antolatuen artean gobernantza eredu berriak esploratu gura ditu, gizarte berrikuntzatik ikuspegi berriak txertatuz. Zergatik? Gizarte erronkei elkarrekin aurre egin behar diegulako. Guk gura duguna da ezagutza hori landu ikuspegi teorikorik eta baita praktikotik ere. Herrigintza berritzeko praktikak egin gura ditugu.

Fokua lankidetzazko gobernantza izanik, zein ekimen dituzue martxan?

Hiru zutabe edo lan-ildo nagusi ditu laborategiak: ikerketa, esperimintazioa eta dibulgazioa. Horien baitan, hainbat proiektu aktibatu ditugu. Esaterako, ikerketaren baitan badugu Ikerketa Elkargunea deritzona, Euskal Herriko hiru Unibertsitateek –EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea– Arantzazulabek proposatuko gaien inguruan ikerketa-kooperazioa egiteko modu eta espazio berritzailea dena. Hori bere horretan da berritzailea, unibertsitateak ez baitaude horrela lan egitera ohituak.

Nazioarteko posizionamendua asko landu dugu, kanpoko ezagutzarekin konektatzeko; guretzat interesgarriak diren ia 100 eragile identifikatu, 20 batekin kontaktua eginda eta ia 10 nazioarteko eragile erreferenterekin lankidetzan abiatu dugu. **Esperimintazioaren eremuan ere badituzue hainbat, eta badira demokrazia deliberatiboarekin lotutakoak ere.**

Hala da. Badira zentzu horretan bi proiektu aipatzekoak. Tolosan garatzen dihardugun eta Herritarren Batzarra deitu dioguna da horietako bat. Lankidetzazko gobernantza praktikan jartzen dihardugu bertan. Azken

helburua da deliberazio prozesuak instituzionalizatzea eta herritarrek ere instituzioek hartzen dituzten erabakietan pisua izatea. Lan-ildo berean txertatuta, Bergarako herrigintza laborategiarekin batera Klima Asanblada dugu martxan. Horrekin, besteak beste, herritarrek trantsizio ekologikoaren elkarrizketan inplikatu nahi ditugu, eta hori egiteko, mahai gainean erakunde publikoek dituzten dilemak eztabaidara ekarri. Baestetik, Ko-sorkuntza Ekosistema aktibatu dugu Arantzazulaben, Euskal Herriko gizarte berrikuntzako 20 eragile baino gehiago batuz, ezagutza berriak, pentsatzeko eta egiteko modu berriei esperimintatzeko. Eragile ezberdinen arteko lankidetzan egingo diren 2 proiektu sarituko ditugu lehiaketa batean abendu hasieran.

Bukatzeo, nola uztartzen dira D2030 eta Arantzazulab?

Helburu desberdina dute biek ere. D2030ek komunitatearen aktibatzearen bitartez eskualde mailako erronkei eman gura die erantzuna, eta gurea ikerketara, esperimintaziora eta dibulgaziora bideratutako laborategia da, lankidetzazko gobernantzan fokua jarri duena. Kokapena desberdina izanik ere, elkarri laguntzen diogu, konexio asko baititugu. Arantzazulab D2030en Gobernu Batzordean dago eskualdeko laborategi bezala, baina ez horregatik bakarrik, baita ere sinergiak ditugulako. D2030ek ere gobernantza eredu kolaboratiboan oinarritzen du bere jarduna eta guk badugu horrako ekarpen bat egiteko.

"GURE IZAERA ERAIKITZEN DA ARANTZAZUK SINBOLIZATZEN DITUEN BALIOETATIK"

"D2030EK ETA ARANTZAZULABEK ELKARRI LAGUNTZEN DIOGU, KONEXIO ASKO BAITITUGU"



ZABALIK

XABIER ARREGI MURGIONDO

Bidean gaude!

Urtarrilaren 8an Bilboko kaleetan elkartzeko dei egin berri digu Sarek, Euskal Herrian egiten den manifestaziorik jendetsuenean eta zabalenean parte hartzera animatuz. *Elkarbizitzarako. Bakerako. Etxerako bidean* da oraingo honetan erabiliko den leloa eta zabaldu nahi den mezua. Izan ere, bizikidetzarako eta bakerako bidea, etxerako bidea elkarrekin egiten ari garela adierazi eta erakutsi nahi da, sentsibiltate ezberdinetako milaka eta milaka herritarren elkarretaratzearekin; oraingoan, berriro ere, Bilboko kaleak hartuz.

Bidean gaudela esaten dugu, bizikidetzaren eta bakearen bidea urratsez urrats elkarrekin egiten ari garelako. Euskal presoei aplikatzen zaien eta beraien eskubide-urraketak eragiten dituen salbuespen-legeria bertan behera gera dadin eta espetxe-politikan erabateko aldaketa eskatuz ari gara bidea egiten. Sarek

BAKERAKO ETA ETXERAKO BIDEA ELKARREKIN EGITEN ARI GARELA ADIERAZI ETA ERAKUTSI NAHI DA

gogorarazten digun bezala, gaur-gaurkoz, 104 preso daude oraindik Euskal Herritik urrun, haien eta haien familien eskubideak zeharo urratuz. Preso dauden %90i espetxe-baimenak

ukatzen zaizkie, ezarritako zigorraren dagokien zatia beteta izan arren. Hamar preso baino ez dira hirugarren graduan daudenak; egoera horretan 70 presok egon beharko lukete, eta horietatik 52k baldintzapeko askatasunean egoteko eskubidea izanda ere. Gainera, hirugarren gradura igarotako presoak behartzen ari dira espetxera eta bigarren gradura itzultzera.

Datu esanguratsuak dira horiek, euskal presoei bizi duten egoeraren adibide batzuk baino ez badira ere. Egoera irauli beharrean gaude, bakearen zein elkarbizitzaren bidean urriaren 23an Donostian egindako urrats sendoari segida emanez. Konfrontazioa alde batera utziz, sufrimendua desagerrarazi eta eskubide urraketa behin betiko amaitzea nahi dugun guztiok bidean elkar gaitezen. Izan gaitezen, bada, guztiok bidea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Aldaketa klimatikoa besteak dira

JOSEBA BARANDIARAN
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Deitu trantsizio ekologikoa edo esan trantsizio energetikoa. Aipatu larrialdi klimatikoa edo gogoratu aldaketa klimatikoa. Berdin dio. Guztia berriztagarri izango ei da, guztia elektriko. Kendu konbustio motorra, fuera diesela, jarri elektrikoa. Kendu karburadorea, ekarri litiozko bateria. Planeta bizigarritasunaren mugara daroagun arren, ez dirudi trantsizioak estualdirik eragingo digula uste dugunik. Argindarra garesti dagoela? Protesta egingo dugu.

Erregaia igo dela? Protesta. Denok ados. *Ipertrola* errudun.

Oso berde edo ekologiko gara guztiok ere, oso bio, baina gure kontsumoa ukitzen badigute... kasu. Errota eolikorik ez dugu nahi edonon; are gutxiago, zentral nuklearrrik.

Baina nonork mugikortasuna mugatzea, zerga berdeak ezarri eta handitzea edota, besterik gabe, kontsumo neurritsuagoa planteatzen badigu... onartzeko prest ote gaude? Errua dirudunek dute, aberastasunaren portzentaje hagitx handi hori dutenek. Besteak dira aldaketa klimatikoa, txo.

Laga ni bakean neure autokarabanan edo bigarren etxebizitzan; eski denboraldia ere badator; Bershka eta Primarkeko neure erosketak ohikoan mantendu; urtean behingo Europarako asteburuko hegaldia edota ehunka edo milaka kilometrotara gozatutako oporrak. Utzi niri autoz nahi beste joan-etorri egiten, ez jarri abiadura mugarik hirietan. Telebistak, etxebizitzako bi, gutxienez. Segapotoak ere, hamar urtean hiru bai. Ur botilaratua noiznahi. Geure gurasoak baino okerrago bizitzeko asmorik ez dugu inork. Baina eramangarritasun handiagoz bizitzekorik bai?

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Rikardo Arregi sariak sekulako energia eman digu"

JONE ALAITZ URIARTE IRIARTE 'BASILIKA' PROIEKTUKO KIDEA

Larraitx Zeberio Lekuona ARRASATE
Basilika podcast proiektuak jaso du Rikardo Arregi Komunikazio Saria. Jone Alaitz Uriarte Iriartek (Arrasate, 1986) *Phoenix Ragazza* saioa egiten du bertan, Lur Olaizolarekin. **Pozik sariarekin, ezta?**
Oso pozik. Proiektua orain dela urtebete sortu zen, eta epe horretan hamabi bat programa kaleratu ditugu. Ibilbide hori oraindik motz samarra-edo izanik ez genuen saria espero, baina oso pozik jaso dugu. Egia esan, sekulako energia eman digu, egiten dugun honetan sinisteko eta aurrera jarraitzeko. **Nola abiatu zen *Basilika*?**
Alondegian egindako mintegi batean elkartu ginen hainbat lagun. Bertan, kritika artistikoaren inguruan hitz egin zen, eta *Gara* egunkariak bere garaian argitaratzen zuen *Mugalarri* gehigarriaren inguruan aritu ginen. Konklusioa izan zen kultura eta arte kritika oso gutxi



Jone Alaitz Uriarte Iriarte, Donostian. 'BASILIKA'

egiten dela hemen, eta toki gero eta gutxiago dagoela gaiei sakonki heltzeko. Argi geratu dadila gu ez gatzela gabezia hori estaltzera, baina ikusi genuen podcasta oso formatu interesgarria izan

zitekeela halakoetan hasteko. Eta elkartu ginen lagun talde bat. Batzuk literaturaren mundutik datoz, beste batzuk zinematik, badaude artistak, bagaude programatzaille artistikoak garenak... Gure

ahotsekin eta gure erreferentziekin ikerketa eginez eduki kulturala egiten dugu podcastean. **Zenbat saio dituzue?**
Egun, sei saio ditugu. Irati Iraguen eta Enrique Hurtadoren *Koro* izan da proiektura batzen azkena. Bilboko Okela Sormen Lantegian egiten den programaziotik abiatzen den programa da. Beñat Sarasolak eta Gorka Bereziartuak literaturaren gaineko *Zeelanda Berria* egiten dute. Lur Olaizolak eta biok *Phoenix Ragazza* egiten dugu. *Sakoneta* kritika kulturalaren gaineko saioa da, eta Kepa Matxain eta Jon Urzelai arduratzen dira. Gero dugu *Sector conflictivo*. Pablo Martek egiten duen elkarrizketa saioa da. Erakusketaren bati lotutako elkarrizketak izaten dira. Azkenik, *Berdela* saioa egiten dute Sahatsa Jauregik eta Irati Urrestarazuk. **Eta zer da *Phoenix Ragazza*?**
Ikusizko arteen inguruko emakume sortzaileen gaineko monografikoak egiten ditugu. Moyra Davey eta VALIE EXPORT-en inguruko saioak egin ditugu. Hirugarrena Dora Garciari buruzkoa izango da. Oraintxe dihardugu saio hori lantzen.

Nondik dator *Basilika* izena?
Itxaro Bordaren eleberritik. Bere garaian bazter guztiak astindu zituen lan horrek, eta pentsatu genuen izenak oso ondo jasotzen zuela gure proiektuaren espiritua. Omenalditxo bat ere bada Itxarori. **Urtebeteko ibilbidean ze feedback jaso duzue entzuleengandik?**
Gaur egun, sekulako *boom*-a dago podcastaren munduan, baina egia da euskaraz egindakoak ez daudela hainbeste. Edukiak sortzea ere bada input bat; gu geu jartzen gara gaien inguruan ikertzen, ahotsak batzen... Lan bat egiten dugu, eta lan hori euskaraz egiten dugu. Jaso dugunaren arabera bada jendea hori baloratzen duena. **Sariak erantzukizun puntu bat ere ematen du?**
Erantzukizun puntu bat ematen du, bai; izan ere, egia da izendatuta zeuden beste hiru proiektuak oso potenteak zirela. Orain arte, modu oso autonomoan eta askean joan gara edukiak sortzen. Gure kasa ibili gara, eta inolako presiorik gabe. Horrela jarraituko dugu, baina jabe gara orain, agian, entzule gehiago izango ditugula, eta begirada edo belarri gehiago gure gainean.

ITURRI ONETIK

Ibai-arteren moda-desfilea, abenduaren 11n?

Arrasateko merkatari eta zerbitzuen elkarteak, Ibai-artek, oraingo zapaturako antolatuta zeukan lehen moda-desfilea, Herriko Plazan. Eguraldiak, baina, galarazi egin ditu asmoak. Orain, abenduaren 11ko data dute jomugan, eta aztertzen ari dira asteburu honetarako aurreikusita zuten ekitaldia eta egindako lana ezerezean geratu ez dadin abenduan egitea, plazan. Eguraldiak berriro ekimena zapuatu ez dezan, B plan bat aztertzen ari dira; Amaia antzokia izan daiteke aukeretako bat.

ALBISTE IZAN ZEN

2012-11-24

Ikurrinari omenaldia Eskoriatzan

Ikurrinari omenaldia egin zioten Eskoriatzan herritarrek. Lehenengo, agurra, eta jarraian, ikurrin dantza egin zuten. Ekitaldia antolatu zuen Udalak; izan ere, EAEko Auzitegi Nagusiak "legea betearaztera" eta Espainiako udaletxeetako balkoietan bandera jartzera behartu zituen erakundeak. Omenaldiaren ostean, Eskoriatzan bizi diren 26 nazionalitateetako banderak jarri zituzten udaletxeko balkoian.



HAU BE BADOGU!

Durangoko Azoka 'trending topic' izan da

@durangokoazoka:
"Durangoko Azoka Eusko Jaurlaritzak ezarritako osasun-neurrietara egokituko da. Landakon eta Ahotseneako kontzertuetan erreserba sistema. 1.200 bisitari sartuko dira Landakon, 90 minutuko txandetan. Maskara derrigorrezkoa".
@urtzinaiz: "Lotsagarria Durangoko Azokako liburuen eta disken erakusmahaiak ikusteko txanda erreserbatu behar izatea, espazioa handitu beharrean edo erakusmahaiak kalera eraman beharrean. Okerrena? Ohi bezala, gure hizkuntza eta gure kultura galtzaile irtengo direla".



Atzo, eguna, Arrasateko Ostalariak Taldeak egin zuen prentsa agerraldia, Kajoi tabernan. MAIDER ARREGI

Ostalariak: "Informazioa gordetzen ari da Aztiker"

Arrasateko Ostalariak Taldeak prentsa agerraldia egin zuen atzo, espazio publikoaren erabilera arautzeko ordenantza osatzeko prozesuan gertatzen ari diren hainbat gauza "argitzeko" helburuarekin; Aztiker enpresa ari da prozesu parte-hartzailea gidatzen

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak parte-hartze prozesu bat abiatu du espazio publikoaren erabilera arautzeko ordenantza osatzeko. Horren harira, Arrasateko Ostalariak Taldeak prozesuaren inguruko hainbat kontu "argitu" gura izan ditu, "eta baita hura dinamizatzen ari den Aztiker enpresa erakusten ari den portaerari buruz ere". Batetik, nabarmendu dute Aztikerrek parte-hartzaileei oraindik ez diela adierazi prozesua egitearen arrazoia zein den, "hau da, Arrasateko Ostalariak Taldeak egungo Udal Gobernuari behin eta berriro eskatu izanaren ondorio dela prozesua bera".

Bestetik, diote Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin batera ordenantzaren proposamen zirriborroa egin zutela ostalariak, horretarako Donostia, Zarautz, Eibar, Ordizia eta Tolosako ordenantzak erreferentzia gisa hartuz. Zirriborro hori Udal Gobernuak zein Aztikerrek ba-

daukatela azaldu dute, baina prozesuan "oso modu arinean" eman dela horren berri, "inola-ko garrantzirik eman gabe".

Prozesuaren helburuei buruz

Era berean, ostalariak salatu dute Aztikerrek ez diela parte-hartzaileei "garbi" azaldu zein den prozesu honen helburua. "Bizilagunetako askok uste dute foro moduko batean ari direla parte hartzen eta bozkatu dezaketela norberak ostalaritzako lokalen batekin dituen kexak, edozein motatakoak izanda ere, terrazen kontua guztiz albora utzita. Gure ustez, badaude beste bide batzuk horrelako kexak adierazteko, eta, beraz, prozesu parte-hartzailea

izan behar da terrazen ordenantzaren inguruan adostasuna lortzeko aurrerapausoak emateko eta inolaz ere ez noiz-baiteko arazo pertsonalekin prozesua zapuzteko", diote.

Izan ere, haien esanetan, ordenantzaren proposamen zirriborroaren helburua da erabilera publikokoak diren espazioen erabilera arautzea, ostalaritzaren alorrean, "erabilera horiek bereziak baitira, erabilera pribatuak, eta espazio horien erabilera komuna babestu beharra baitago, erabilera hori pertsona guztiei dagokielako".

Azkenik, gaineratu dute beste eskubide batzuk ere bermatu nahi dituztela ordenantzarekin: "Batetik, bizilagunen atsedena; bestetik, ezgaitasunen bat duten pertsonen mugikortasuna eta irisgarritasuna ez oztopatzea eta, azkenik, ostalaritza sektorearen garatzea, herritarren artean oso sustraituta dagoela eta Arrasateren ekonomian duen eragin handiagatik".

OSTALARIEK DIOTE EUREK EGINDAKO ZIRRIBORROAREN BERRI "OSO MODU ARINEAN" EMAN DELA



ARRASATEKO PENTSIODUNAK

Indarkeria matxistaren kontra

Astelehenero moduan, plazan elkartu dira pentsiodunak aste honetan ere, eta Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunarekin bat egin dute. "Adineko emakumeek ez gaude genero-indarkeriatik salbu. Emakumeen aurkako indarkeriarik ez!", azaldu dute. Hori dela-eta, atzoko elkarretaratzean parte hartu zuten.

GORA ETA BEHERA



HERRITAR BAT

"Txakur kakarik ez dugu nahi kalean"

Herritar batek salatu du Arrasateko kaleetan txakur kaka asko egoten direla; bereziki, Otalora Lizentziadunak. "Onartezina da. Txakurra baldin badaukazu, haren kaka garbitu, mesedez".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

Abenduaren 2an piztuko dituzte Gabonetako argiak

Udal Gobernuak herriko merkataritzari lagunduko dion giroa sortu nahi du egun horretan, "Gabon giroan murgildu eta herriko saltokien Gabonetako kanpaina sustatuz". Hori dela-eta, 19:00etan, argien piztuera ekitaldi bat egingo dute Herriko Plazan. Aspace garuneko paraliaren elkarteak eta Atzegi adimen urritasuna duten per-

tsonen aldeko Gipuzkoako elkarteak piztuko dituzte argiak. Izan ere, Aspacek 50. urtemuga ospatzen du aurten eta Atzegik, berriz, 60. urteurrena. Horiekin batera, ekitaldian egongo dira udal ordezkariak ere, eta Goikobalu Txiki Abesbatzak hainbat abesti eskainiko ditu ekitaldia girotzeko.

Urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta argiak. "Argiteria guztia eraginkorra da, energia kontsumo baxukoa eta jasangarria", dio Udal Gobernuak.

Desfilerik ez dute egingo; 'bideo mapping'-a, bai

Black Arrasate ekimenaren baitan, moda-desfilea ziren egitekoak bihar plazan, Ibai-artek antolatuta, baina euria dago iragarrita eta bertan behera utzi dute; 'bideo mapping'-a, ordea, egingo dute, eta udaletxeak inoiz ez bezalako itxura hartuko du

Eneko Azurmendi ARRASATE

Black friday egitasmoaren alternatiba moduan, Black Arrasate jarri du martxan, beste urte batez, Ibai-artek. "Gure balioak erakutsi gura ditugu ekimenaren bitartez. Hau da, guk Arrasate bizia gura dugu, tokiko komertzio askorekin, merkataritza solidario eta jasangarriarekin, baina baita kultura ekitaldi askorekin ere", adierazi du Jon Apraizek, elkarteko presidenteak. "Merkataritza-gune handiek gauza asko edukiko dituzte, baina garrantzitsuena falta zaie, bezeroa aurrez aurre izatea ia egunero. Gertutasuna oso inportantea da eta horrek baliabide asko ematen ditu", gaineratu du. Gertutasun hori erakusteko keinu modura, bidezko merkataritzako 3.500 txokolate tableta banatzen ari zaizkie Ibai-arte bezeroei, Harremanekin elkarlanean.

Merkatarien elkarteko presidenteak gaineratu du Arrasateko komertzioa "indartsu" dagoe-la. "Mundu mailan, garai txarrak

bizitzen ari gara, baina Arrasateko komertzioa oso bizirik eta indartsu dago eta pandemiak eragindako krisiaren ondorioz oso denda gutxi itxi dituzte hemen. Beraz, ulertzen dugu egonkortuta daudela, bezero fidelak dituztela eta haiek ere zaintzen dituztela bezeroak".

Udaletxea irudiz jantziko dute

Black Arrasateren baitan, moda-desfilea ziren egitekoak bihar, zapatua, Herriko Plazan, baina bertan behera utzi behar izan dute, euriagatik. Desfilearen osterako zuten pentsatuta *bideo mapping* izeneko teknikaren bitartez udaletxeko fatxada apaintzea, baina desfilerik egongo ez denez, 19:00etan egingo dute

ARRASATEKO UMEEK EGINDAKO 100 BAT MARRAZKI BIDEO BIDEZ ERAKUTSIKO DITUZTE UDALETXEAN

ekintza hori. "Arrasateko umeek 100 bat marrazki egin dituzte eta horiek bideo bidez erakutsiko ditugu", azaldu du Apraizek. Hamabost minutuko emanaldia izango da eta sei aldiz errepikatuko dute, 20:30ak arte.

Aspaceko kideen otarreak

Bestalde, Gabonetako otarreak Aspaceko kideek egindakoak izango dira aurtan. "Orain arte, otarreak kalitate txarrekoak izan dira eta zaborrontzian bukatu izan dute beti. Hori dela-eta, Aspacekoekin harremanetan jartzea bururatu zitzaigun, baina iaz berandu ibili ginen eta ezin izan genuen lortu. Beraz, aurtan lotu dugun lehenengo gauza hori izan da eta oso harro gaude". Datorren astean hasiko dira otar horiek banatzen. Parte hartzeko, Arrasateko saltokietan erosi, erosketa txartelaren argazkia bidali 688 73 41 49 zenbakira edo Ibai-Arteren Instagram edo Facebookeko kontutuan partekatu argitalpena.



Herritar bat, sinatzen, BAZen, Placi Garcia ekimenaren sustatzailearekin. M.B

TAO sistemaren aurkako 3.782 firma entregatu dituzte BAZen

Placi Garcia ekimenaren sustatzaileak astelehenean erregistratu zituen ordura arte batutako sinadurak

E.A. ARRASATE

Astebete barru indarrean sartuko den TAO sistemaren aurkako 3.782 sinadura batu ditu Eragin Arrasate plataformak, eta astelehenean erregistratu zituzten BAZen. "Ezarritako ereduaren luzamendua eskatzen dugu, eta herritarren artean erreferendum bat egitea", nabarmendu du ekimenaren sustatzaile Placi Garciak. "Moratoria eskatzen dugu. Inori ez zaigu gustatzen. Nik ez dut politikarik ulertzen, baina, herriaren haserre ikusita, sinadurak batzen hasi nintzen. Oso

ko bilkuran egon nintzen eta pentsatzen nuena esan nien, baina ez zidaten konponbiderik eman", gaineratu du.

Sinadura gehiago izan daitezkeela ere uste du Garciak, baina orain arte batutakoek "bide luzea" egitea espero du. "Erantzun bat eskatzen dugu. Udal Gobernuak aintzat har ditzala herritarren iritzia. Ziurgabetasuna handia da, eta kezka ere bai. Irtenbideak behar ditugu. Ez gaude TAOren ereduarekin ados, eta aldatzea eskatzen dugu. Ez dugu etsiko. Borrokan jarraituko dugu".



NIRE USTEZ

IANA SANCHEZ

A zer-nolako azterke-TAO!

Abenduaren 4a gure zain dago. Dagoeneko eguna gainean daukagu eta ni oraindik oposizioa gainditzeko ikasi gabe nago. Agian, txikitan ikasitako koloreak berriro ere errepasatu beharko ditut. Jesus! Ze zaila jarri duten! Seguruenik, kopiatzen harrapatu nahi gaituzte.

Arrasatearrok bi hilabetez *L* hizkia eraman beharko dugu. Batek baino gehiagok txaleko hori fosforeszentekin amestuko du. Apustua egingo al dugu? Nahiz eta margolanak sufritu, behin eta berriz albisteetan iragarri eta eguna geroz eta gertuago zegoela jakin, Arrasateko TAO sistema berriak ezusteko batean harrapatu gaitu.

TAOk Arrasatek aparkatzeko duen arazoa lekuz aldatuko ote du? Auzoetan *gorrillak* agertzen hasiko dira? Koadrizepsak gogortuko al ditugu? Bizikleta eta bestelako gailu ez-kutsakorrek erabiltzera behartuko gaitu? Isuna da funtzionatzen duen neurri bakarra? Galdera hauei eta beste askori erantzuna emateko 2022a daukagu. Adi egon zuen automobilen haizetako-garbigailuei. Laster ikusgai!



Bideo mapping teknika erabiliz itxura hori hartuko du udaletxeko fatxadak. IBAI-ARTE

"Hausnarketa sustatu gura dut herritarrengan"

SERGIO SERRANO ARRASATEKO HERRITARRA

Arrasateko kirol azpiegituren inguruko proiektu pertsonal bat landu du, eta herritarrei aurkeztu gura die orain, azpiegituren inguruko hausnarketa sustatzeko helburuarekin

Eneko Azurmendi ARRASATE

Igerilekuak, ur-parkeak eta bestelako kirol instalazioak aintzat hartzen dituen proiektu osatu bat egin du arrasatearrak, eta Udalean aurkeztu du. Hala, "ekarpen pertsonal" bat egin nahi izan dio herriari.

Zer dela-eta erabaki duzu proiektu hau egitea?

2012an hasi nintzen. Musakolako kiroldegia aluminosia zeukala jakin genuen, eta kiroldegi berri baten aukera mahaigainerratu zen. Hori dela-eta, ideia berriak jasotzeko beharra sentitu nuen. Erronka pertsonal handia izan arren, aurrera egitea erabaki eta zazpi urtez egon nintzen lanketa egiten. Behin informazio guztia jasota, 2018ko azaroan zirriborroari forma ematen hasi nintzen eta 2019an aurkeztu nuen Udalean.

Nolako lanketa egin duzu?

Soroslea naiz, eta, gehien kontrolatzen dudana segurtasun arloa izanik, uste dut arlo horretan ekarpenak egin ditzake-dala. Edozelan ere, klubekin eta askotariko erabiltzaileekin hitz egin dut, dituzten kezkak eta beharrak zeintzuk diren jakiteko, eta, hori kontuan izanda, moldaketa batzuk egin ditut. Bestalde, arlo ludikoa eta segurtasuna jorratzeko, esaterako,



Sergio Serrano, Otalora Lizentziaduna kalean. E.A.

oporraldietan *in situ* aztertu izan ditut askotariko errealitateak, ur-baliabideez bizi diren inguruetan: Mediterraneoan, Kanariar uharteetan eta Balear uharteetan. Hondartzak eta ur-parkeak aztertu ditut, besteak beste. Hainbat segurtasun arduradunekin hitz egin ostean, ideia asko jaso ditut, eta txostenetan txertatu.

Ze irizpide erabili duzu?

Herri xumea da gurea, eta behar batzuk ditu kirol arloan. Dena den, dauzkagun gauza asko ondo daude. Beraz, ondo dagoena man-

tendu egin behar da, eta behar dena eraiki; aurrez egindako lana errespetatuz. Musakolako kiroldegian, Antónako eraikinean, berrikuntza batzuk behar dira, hezetasun eta aireztapen arazoak daudelako. Bestalde, oso eraikin altua da eta altuera horretan espazioa galtzen da. Beraz, solairuarterko espazioa aprobetxatu daiteke. Horrez gain, teniseko eta padeleko pistak eta estalkiak ondo daude, eta ez du zentzurik eraisteak. Hobe litzateke horiek mantendu eta geratzen den espazioan beste zerbait egitea.

Igerilekurako Angel eye sistema aipatzen duzu. Zertan datza?

Sistema informatiko bat da eta sentore bidez funtzionatzen du. Igerilekuko perimetro osoan kokatzen dira horiek, uniforme-ki banatuta, eta objektuak antzematen dituzte; pertsona bat, esaterako. Sorosleak bi begi baino ez ditu, eta, hura konturatu gabe pertsona bat hondoratzen bada, eraginkorra izan daiteke sistema hau, denbora aurreztuko duelako. Pertsona guztiz hondoratuko balitz, ia geldi geratuko litzateke eta sentoreak martxan jarriko liriteke. Aurrez sistemari zehaztutako segundo kopurua igarotzean, alarmak joko lioke begiraleari eta igerilekuko zein puntutan dagoen zehaztu. Argi geratu behar da sistema hau ez dela soroslea ordezkatzeko, baizik eta haren lagungarri edo osagarri izateko. Segurtasun arloan inbertsio aproposa izango litzateke hori.

Igerileku ereduari beste buelta bat emango zeniokeela diozu.

Bai. Hiru eredu daude: igerileku ez-estaliak urte osorako, igerileku estaliak urte osorako eta eredu mistoa, gaur egun Arrasaten daukaguna. Nolanahi ere, horrek oztopo bat dauka, bederatz hilaitez espazio erraldoi bat galduta geratzen baita. Beraz, nik proposatzen dut eredu mistoa, baina beste buelta bat emanda; hau da, udarako belardia dena parke publikoa izan dadila neguan.

Topagune gela bat ere bai, Gasteizko eredu aintzat hartuta.

Gasteizen egin nituen ikasketak, eta han gizarte etxeetan egiten nuen kirola. Kiroldegiei hala deitzen diete han. Gizarte etxe horiek eraikin berean batzen dituzte liburutegia, kiroldegia

eta topagunea. Hau da, gaur egun sozializatzeko daukagun eredu, kaleez eta parkeez gain, egoitzak eta tabernak dira; are gehiago, eguraldi txarra egiten duenean. Horiek ondo daude, baina ondo legoke Gasteizko eredu ere. Azken batean, sozializatzeko balioko lukeen espazio publiko bat izango litzateke, doakoa eta ezer kontsumitzaera behartuko ez liokeena erabiltzaileari. Proiektuan horrelako hiru zerbitzu irudikatzen ditut: Musakolan, erdigunean eta San Andresen.

Zer lortu gura duzu proiektu honekin? Zein da helburua?

Helburu bakarra da herritarrengan hausnarketa sustatzea. Kiroldegia herritarrendako zerbitzua izango da eta logikoa da herritarrek ideiak eta ekarpenak egitea, hortik gauzatu dadin kiroldegi berria. Hori dela-eta, barrutik atera zaidan gauza bat izan da, modu boluntarioan, eta herritarrei abiapuntu bat eskaintzeko asmoz egin dut. Gero, gauzatu daiteke edo ez, baina ideia batzuk mahai gainean jarri gura izan ditut, lan boluntarioak daukan indarrean sinisten dudalako. Kiroldegi berri bat oso gai serioa da, Udalaren diru kutxa hipotekatuko duelako eta, egiten denaren arabera, arrasatearron kirol beharrak baldintzatuta geratu daitezkeelako. Horrenbestez, ahalik eta hanka-sartze gutxien egin behar dira.



Igerilekuen proiektua ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.



Azpiegituren proiektua ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

Mondravember ekimenaren egun handia, bertan behera

Eguraldi txarraren eta COVID-19ren egoeraren ondorioz, antolatzaileek bertan behera utzi dute egitaraua

Ainhua Arana ARRASATE

Azaroa amaitzear da, eta baita Mondravember ekimena ere. Hilabete osoan antolatu dituzte ekintzak, eta bihar, zapatua, zen egun handia, egun osorako egitaraua prestatuta baitzuten.

Hala ere, eguraldi txarragatik eta COVID-19aren egoerarenagatik, besteak beste, bertan behera utzi behar izan dute egitaraua. Asteazken gauean hasi ziren arazoak: Arrasateko Gaztetxeak komunikatu bat

zabaldutuen, eta bertan, Mondravemberko egitarauaren barruan zeuden kontzertuak bertan egingo ez zirela azaldu zuten. Aipatutakoari beste hainbat arrazoi gehituz, ezin izan dute eguna aurrera atera. Aurten, gainera, berrikuntza bat zuten esku artean: I. Mondravember mus txapelketa. Horrez gain, mendi martxa, txosna, Arrasateko alde zaharrean korrikaldia, bertso saioa eta bizikleta enkantea egiteko asmoa zuten. Eguerdian paella banatu

behar zuten Seber Altube plazan batutako herritarren artean. Egun osoan, gainera, artisau-garagardoa dastatzeko aukera eskaini behar zuten.

Batez ere, prostatako eta barrabletako minbizien prebentzioa ditu helburu Movember ekimenak, eta Mondravember mugimendua horren barruan dagoen Arrasateko taldea da. Duela lau urte sortu zen herriko taldea, eta 2015. urte inguruan hasi ziren Movember ekimenaren baitan batzen.

Konstelazio familiarren gaineko tailerra Musakolan

Lau orduko saioa egingo du Sara Vitoria psikologoak bihar, zapatua, Santa Teresa eliza ondoan. Edozein arazo lantzeko aukera izango da; adibidez, osasunarekin edo harremanekin lotutakoak. 10:00etatik 14:00etara izango da eta lan egiteko askotariko moduak aurkeztuko dira. Izena 658 72 09 87 telefono zenbakira deituta eman daiteke.



IZENE IZANA
TXOMIN MADINA
ASTELEHENETAN

"Abizenak eta
Debagoieneko
kale-izendegia izango
ditugu ardatz"



AKORDEAK
AITZIBER ARANBURUZABALA
MARTITZENETAN

"Hainbat estilotako
musikariak izango ditugu
protagonista"



OKM GIDA
JONE OLABARRIA
EGUAZTENETAN

"Debagoiensean
baldin badago,
hemen dago"



"Eduki
berriekin gatoz,
orain artekoa
eta gehiago
eskaintzeko"

LARRAITX ZEBERIO LEKUONA



DEBAGOIENDARRAK MUNDUTIK
ENEKO AZURMENDI
EGUENETAN

"Munduan
zihar bizi diren
debagoiendarrendako
leihoa"



LUZAPENA
MIREIA BIKUÑA
EGUBAKOITZETAN

"Bailarako kirolariak gertutik
eta beste modu batera
ezagutuko ditugu"



ZUBIAK
UXUE IGARZA
HAMABOSTEAN BEHIN

"Musikari, kirolari eta bailarako
aurpegi ezagunek gizarteko
erronkekin nola konektatzen
duten ikusiko dugu"

HEMEN DEBAGOIENA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00 / 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!



goiena

Zu hemen zaude.



Leire Valor, eskualdean, borrokaldiaren une batean. JURCZAK PHOTOGRAPHY



Izurrategi lehiatzen. A.M.



Valor, taldekideekin, animatzen. J.M.



Izurrategi -eskuman-, Madinabeitia eta Valor, hegazkinean. DANIEL IZURRATEGI

Krakoviatik ikasgaia ikasita itzuli dira hirurak

Danel Izurrategi, Aitor Madinabeitia eta Leire Valor Munduko Kyokushin Txapelketan lehiatu dira Polonian. Esperientzia ederra izan dela diote. "Ikusi dugu borrokalariaren jatorriak ez duela horrenbesteko garrantzirik", dio Madinabeitiak

Xabier Urzelai ARRASATE

Saioa Karate taldeko hiru ordezkariak esperientzia ederra bizi izanda itzuli dira Polonian egin duten Munduko Kyokushin Txapelketatik. "Orain arte, halako mailako txapelketa batean egon gabe geunden, baina gure talde-tik Krakoviara joateko aukera eskaini zigutenean aurrerapauso ematera animatu ginen",

adierazi dio GOIENARI Aitor Madinabeitiak.

Kadete mailan lehiatu da Danel Izurrategi, 21 urtez azpikoen mailan Aitor Madinabeitia eta senior mailan jardun du Leire Valorrek. Hala, Madinabeitiak egin du asteburuaren kontakizuna: "Egunean egin genuen bidaia, Bilbotik Munichera eta handik zuzen Krakoviara. Nik egunean bertan bete nahi nituen txapelketa au-

rreko tramiteak. Pisatu egiten zaituzte, ze kategoriatan lehiatu behar duzun zehazteko, eta Leirek eta Danelek ez zuten arriskurik, baina nik zalantzak nituen, eta ez nuen arriskatu nahi. Jan gabe nengoan, urik edan gabe, eta pisatzearen tramitea lehenbailehen gura nuen ginetik kendu. Danel 65 kilora artekoekin lehiatu zen, Leire 55 kilora artekoekin eta nik 75 kirola artekoekin. Momentu

hori gaindituta ondo elika zaitezke eta baita hidratatu ere, garrantzitsua da".

Egubakoitzean izan zituzten borrokaldiak: "Danelek lehenengo saioa Poloniako gazte baten kontra irabazi egin zuen. Hura gaindituta, zozketan Kazakhs-tango gazte bat egokitu zitzaion eta hor ez zuen zortetik izan. Hasteko, Danel baino urtebete nagusiagoa zelako eta gorpuzker handiagoa zuelako. Kontua da borrokaldia galdu egin zuela, eta momentuan amorrua eman zion, baina gero, borrokalari hori bigarren sailkatu zen eta konturatu zen benetan zela kontrario gogorra".

Leirek, borrokaldi laburra

Leire Valorrek, berriz, min hartu zuen hasi eta berehala: "Irango neska batekin lehiatu zen lehen borrokaldian, eta hasi eta berehala kolpe handia jaso zuen

saihetsetan. Kontrarioak 7 kilo gehiago izango zituen, asko da hori. Ezin izan zuen jarraitu eta bertan behera geratu zen borrokaldia. Saio laburra egin izanagatik penaz geratu zen Leire, hilabeteak eman dituelako hitzordua prestatzen".

Madinabeitia ere ez zen zapo-re onarekin geratu, baina dio asko ikasi duela: "Zozketan atariko borrokaldi bat egitea egokitu zitzaidan, ez da hasteko modu onena. Bulgariako borrokalari bat izan nuen aurrean, lau minutu egon ginen eman eta jaso, eta epaileek erabaki zuten nik irabazi nuela. Biok distantzia motzean borrokatzea erabaki genuen eta ukabilkadak ibili ginen". Hala ere, lehenengoa irabazi izanak ez zituen urduritasunak uxatu: "Borrokaldia amaitutakoan botaka egiteko zorian egon nintzen; hurrengo kontrarioa Kazakhs-tangoa zen, eta okadak egiten ikusi ninduen. Eta nire kontra ondo baliatu zuen hori, kolpe guztiak sabelera bideratu zituen. Sufritzen ari nintzen eta KO bat jasotzeko arriskua ikusi nuen, hor erabaki nuen amaitzea".

Izan ere, 21 urtez azpikoen mailatik gora KO-ak onartuta daude: "Bai, halako txapelketa batean min har dezakezu, eta neurtu egin behar da noraino iritsi. Hirurondako sekulako esperientzia izan da, eta ikasi dugu borrokalariaren jaioterria ez dela garrantzitsua".

IZURRATEGIK ETA MADINABEITIAK LEHENENGO BORROKALDIA GAINDITU ZUTEN

Desorekako mutilak bigarren izan dira alebin kategorian

Desoreka judo klubekoak Hondarribian izan ziren joan den asteburuan. Eta alebin mailan mutilak bigarren sailkatu ziren. "Askok helmugari ematen diote garrantzia; hau da, emaitzari. Judoan, baina, egiten den bidea da garrantzitsua; horregatik, hobetzen jarraitzea da gura duguna", adierazi du Markel Urrutiak koordinatzaileak.



Desorekako alebinak. DESOREKA

Espainiako maratoi txapelketan laugarren izan da Aitor Eraña

Arrasate Atletiko atletismo taldeko Aitor Eraña laugarren sailkatu zen -master kategorian- joan den astean Maspalomasen (Kanaria Handiko uharteak) egin zuten Espainiako maratoi txapelketan. Bergarako korrikalariak 65 urtez gorako kategorian hartu zuen esku, eta meritu handiko denbora egin zuen: 4.55.31.



Aitor Eraña korrika. A. ATLETIKO

Izen-ematea zabalik dago Gabonetako Ointxeren campusean

Ointxe! saskibaloia klubak Gabonetako campusa antolatu du 2006etik 2013ra bitartean jaiotakoendako. Bi txanda egingo dituzte eta eskolak Musakolan eta Ibarran izango dira. Lehenengo txanda abenduaren 27tik 31ra arte egingo dute, eta bigarrena urtarrilaren urtarrilaren 3tik 5era. Informazio gehiago, ointxe.eus atarian.

Gazte eta helduak, Santa Zezilia omentzeko prest

Goikobalu abesbatzak azaro bukaeran egin ohi duen kontzertua egingo du gaur, 20:00etan hasita, San Frantzisko elizan. Ekitaldian zehar, 13 urtetik gorako gazteek osatu berri duten Arrasateko Gazte Abesbatzak bere burua aurkeztuko du, gainera

Hasier Larrea ARRASATE

"Pozez eta gogotsu" azaldu da Iñaki Maidagan, Goikobalu abesbatzako zuzendaria, aspaldiko partez publiko aurrean agertuko direlako: "Maiatzean berreskuratu genituen zuzeneko entseguak, eta irailetik aurrera ia kide guztien parte hartzea izan dugu". Hala, 40 kantari inguruko taldeak hiru pieza interpretatuko ditu musikariaren patroia den Santa Zeziliari omenaldia egiteko: John Leavitt-en *Misa festiva*, Xabier Sarasolaren *Mendi goietan* eta Vivian Tabbush-ek moldatutako *Color esperanza*.

Aire freskoak datoz

18 urte inguruko kideren batek ere parte hartuko du talde nagusian. "Adin horrekin koruan egotea ez da erraza, gazteek beste ardura batzuk izaten dituztelako", adierazi du Maidaganek. Horri lotuta, Rakel Murgiondok zuzentzen duen Arrasateko Gazte Abesbatzaren sorrera "albiste bikaina" dela gehitu du.

Hain zuzen, lehen kontzertua emango du Arizmendi ikastolako abesbatzaren eta Goikobaluko talde gaztearen arteko elkarlanetik eratu den formazioak. "Pandemia aurretik ikastolako 50 lagun inguru batzen ginen abesbatzan, eta, ia bi urte gel-



Goikobaluren 30. urteurreneko kontzertua, 2019an, San Frantzisko elizan. GOIENA

'FAIR SATURDAY' EKIMENAREKIN BAT EGINEZ, MSF ERAKUNDEARI LAGUNDUKO DIOTE

dirik egon ostean, irakasle bati omenaldia egiteko hamar bat kide batu ginen; hortik atera zen abesbatza berria sortzeko ideia", aipatu du Murgiondok. Ondorioz, Goikobaluko partaide nerabeekin harremanetan jarri

eta entseguei ekin zieten, eta hamazortzi lagun inguruko taldea osatu zuten: "Kantari gehiago animatzea gustatuko litzai-guke; hainbat proiektu ditugu esku artean; tartean, ekainaren 26an Parisko Disneylanden egingo dugun emanaldia".

AGAk erreperitorio interesgarria eskainiko du: "Amazonasko tribu baten kantu bat eta Hego Afrikako beste bat, adibidez". Arturo Goikoetxearen pianoak lagunduko du kontzertua une oro, eta, amaieran, bi koruek batera abestuko dute.

'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' taularatuko dute bihar

Abadiñoko Gorakada antzerki taldeak adin guztiendako obra eskainiko du Amaian, arratsaldeko bostetan hasita

H.L. ARRASATE

Jean Giono XX. mendeko idazle frantsesaren nobela garrantzitsua antzerkira eraman du Gorakada konpainiak. Artzain bat eta bere buruaren bila ari den gazte bat dira kontaketa protagonista; bata lana gogotik egingo du bizileku duen basoa berritu eta lurra salbatzeko, eta besteak borondatea eta eskuzabaltasuna erresilientziarako tresna ezin hobeak direla deskubrituko du. Besteak beste, kontzientzia ekologikoaren sorreran, politikaren diskurtso hutsaletan, naturarekiko ulermenean eta gizakiaren indar sortzailean jartzen dute arreta pertsonaiek.

Aktualitateko gaia

Istorioaren testuingurua I. eta II. mundu gerren artean kokatzen den arren, konpainiako kide Maialen Magunagoitiaren esa-



Obrako bi pertsonaiak. GORAKADA

netan, "gaur egun pil-pilean dagoen aldaketa klimatikoari buruz hausnartzeko balio du obrak. Txikitik handirako prozesuaren baitan, zuhaitzak landatzen hasita baso bat sortzen dela ikusiko dugu". Sarrerak salgai daude arrasate.eus atarian.

Abenduko Koolturek gertuko taldeei egingo die tokia

Audience talde gernikarrak atzo emandako zuzenekoak itxi zuen Kooltur Ostegunen azaroko kartela, eta, abendua ate joka datorrenez, lau euskal taldez osatutako kartela ondu dute kontzertuen antolatzaileek. Hala, datorren egunean, Oki Moki izeneko getariarrak igoko dira gaztetxeko agertokira. Energiatz betetako abestiak egiten dituzte,

punk, after-punk, garage eta pop estiloak uztartuz.

Urtea amaitu aurretik gonbidatu dituztenak Arima, Mc Onak eta Iheskide dira. Lehenengoa duela hiru urte sortutako proiektu freskoa da, malenkonia kutsuko doinu distorsionatuz beteak; bigarrenak Lekeitioko kostaldetik ekarriko dute folk-rock zelta ukituko kantua; eta azkenak, elorriarrak, euren ibilbideko bigarren etapan daude murgilduta, punk-rock estiloko disko ugari kaleratu ostean.

Arrasate Musikalen presentzia

Musika eskolako Banda Gazteak kalejira egingo du gaur, 17:30ean hasita, erdigunean zehar, eta 19:00etan erreleboa pasako diete Arrasate Musikaleko gaiteroei.

Domekan, ohiko kontzertua

Urtero lez, etzi, 12:30ean, San Frantzisko elizan joko dute, eta ordu erdi lehenago irekiko dituzte ateak.



2018ko Santa Zezilia egunean, Arrasate Musikaleko klarinete-joleak. GOIENA

Morborrek eta AGAKOk zine zikloari ekingo diote domekan

Zine ziklo *transmaribibolloa*, izen hori jarri diote hileko azken domeketan emitituko dituzten pelikulen emanaldiei. Hitzorduek gaztetxean izango dira, 18:00etan hasita. Etzi, *Shortbus* proiektutako dute; datozen hilabeteetan, berriz, *Yes We Fuck*, *Silvana*, *Pride* eta *Ur Handitan* saioaren *Ez bitarrak* kapitulua, azken hori film laburrekin batera.

Gala lirikorako sarrerak, bihartik aurrera eskuragai

Ozenki elkarrekin abenduaren 14an Amaia antzokian egingo duen ekitaldira joateko, arrasate.eus atarian eta ozenkielkartea@hotmail.es helbidean eskatu ahaliko dira sarrerak zapatutik aurrera, 15 euroren truke. Besteak beste, Goikobalu abesbatzak hartuko du parte gala lirikorako, Helena Gallardo eta David Baños nazioarteko abeslariarekin batera.

Maskulinitate eredu en inguruan, gizonekin

Berdintasun Sailak antolatuta, tailerra egingo dute abenduaren 11n udaletxean. Izena eman beharko da abenduaren 9a baino lehen, eta ikastaroak irauten duen bitartean haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute. Azaroaren 25aren harira antolatu dute

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO

Atzo, azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izan zen. Aramaioko Udalak eta hainbat eragilek bat egin dute aldarrikapenekin, eta zenbait ekintza antolatu dituzte egun hori aldarrikatzeko; atzo iluntzean, esaterako, elkarretaratzea egitekoak ziren Aramaioko plazan. Aurten, adineko emakumeengan jarri du fokua Emakundek; adineko emakumeek jasaten duten indarkeria ikus-tarazteko kanpainak jarri dituzte abian, benetako lekukotzak batuz.

Aramaioko Berdintasun Sailak, aldiz, gizonezkoengan jarri nahi izan du fokua aurten.



Hiruki Larroxa kooperatibako kideak; Gabilondo, erdian. HIRUKI LARROXA

Borroka batzeko asmoa

"Udalean hausnarketa egin dugu eta konturatu gara azaroaren 25a beti fokalizatu izan dela emakumeengan, eta, berez, biolentzia eragiten dutenak gizonezkoak dira", azaldu du Berdintasun teknikari Jone Unzaluk. "Emakumeek urteak daramatzate borrokan, baina gizonezkoek ez dute hainbeste aurrerapen egin borroka horretan", gaineratu du. Hori horrela, maskulinitatea lantzeko gizonezkoendako tailerra egingo dute abenduaren 11n, udaleko osoko bilkuren aretoan.

Berdintasun Sailaren asmoa da gizonezkoak ere borroka horretara batzea, ildo horretan lanean jarritz. "Ikastaroa lehenengo kontaktua izango da; ikusiko dugu ea gizonezkoen artean testigua hartzeko gogo duen talde txorik dagoen", dio Unzaluk.

Abenduaren 11n 10:00etatik 14:00etara izango da ikastaroa eta haurtzaindegi zerbitzua egongo da. Izena eman nahi duenak abenduaren 9a arte dauka, eguna; horretarako, mezua idatzi behar du berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidera.

MASKULINITATE OSASUNTSUAGOA BIZI IZATEKO, GAUR EGUNGO EREDUEZ HAUSNARTUKO DUTE

Hiruki Larroxa

Maskulinitate tailerra Hiruki Larroxa kooperatibako kide Joseba Gabilondok emango du. *Bide ezberdinetatik hausnartuz, eraldatuz, irauliz* da elkartearen leloa, eta, hain zuzen, gizonezkoen desboteretzea proposatzen dute, maskulinitate osasuntsuagoa bizi ahal izateko.

"Aramaiokoa lehenengo saioa izango denez, termometro moduko bat da, ikusteko parekidetasunean eta gizontasunean zelan dabilzan", dio Gabilondok. "Berandu bada ere, gizonezkoek parekidetasunaren alde zer egin dezakegun pentsatzeko balioko du. Emakumeek ahalduntzeko eman dute pausoa; bada, gizonezkoek desboteretzeko egin behar dugu", dio, eta gaineratu du: "Desboteretzea da onartzea jendarte patriarkal honetan ditugun pribilegioak, eta zalantzan

jartzea pribilegio horiek. Nondik datoz pribilegio horiek, eta zergatik?".

Gizontasun ereduaz hausnartuko dute: "Maskulinitate toxiko tradizional hori zelan dagoen aztertu, hausnartu eta identifikatu dugu, eta bakoitzak nola bizi duen gizontasun hori ikusiko dugu". Horrez gain, maskulinitate eredu horrek bizitza sozialean ze abantaila dakarkien aztertuko dute. "Hortik hasten da desboteretzea", nabarmendu du Gabilondok.

Ingurukoak interpetatu

Gizontasun eredu horiek gizonen arteko harremanetan indartzen direla gaineratu du Gabilondok. "Bestalde, zaurgarritasuna onartu behar dugu gizonezkoek; ez gara *Superman*. Zaurgarritasun hori onartzeak zelako ondorioak dituen ikusiko dugu; bai guregan, eta baita besteengan ere; batez ere, emakumeengan", dio.

Maskulinitate eredu berrietara lehenengo hurbilpena izango da ikastaroa: "Konturatu behar dugu hausnarketa hau ez dela guregan geratzen; gainontzekoak interpetatu behar ditugu, hausnartu eta desikasteko".



Gaztetxoak euskarazko mahai jolasekin. A.E.G.

Hizkuntza portaeretan ere erreferenteak behar dituzte

'Haurren aurrean, helduek heldu' ekimenaren barruan, 'Jolas molaz' tailerra egingo dute abenduaren 1ean

A.E.G. ARAMAIO

Euskarazko mahai jolasak eza-gutzeko eta probatzeko aukera egongo da eguaztenean, abenduaren 1ean. Euskararen Egunaren barruan kokatzen den ekimena da. 17:00etan izango da, kultura etxean.

Aurten ez da Euskaraldirik egingo; hala ere, ekimen berezia jarri dute martxan hainbat herri-ritan; tartean, Aramaioren: *Haurren aurrean, helduak heldu*.

Umeak eta gurasoak

Ekimen horren barruan, Aramaioren *Jolas molaz* tailerra egingo dute, 3 eta 12 urte bitarteko umei eta euren gurasoei zuzendutakoa. Ekimenean parte hartzeko aurrez izena ematea eskatu dute: udaletxean edo liburutegian eman daiteke izena. *Jolas molaz* tailerrean euskarazko mahai jolasak ezagutu eta probatuko dituzte.

Helduek euskaraz egitea

Helburu nagusia da haurren zuzeneko heldu erreferenteek euskaraz egitea euren artean. Modu horretan, hizkuntza-praktikak aldatzea eta euskara gehiago erabiltzea nahi dute. Umeen eredu diren helduen euskarazko portaerak bultzatuta, haurrek euskaraz hitz egitea normaltzat hartzea eta hizkuntza portaera hori barneratzea.

Eskolako egitaraua

Euskararen egunarekin bat egin ez hainbat ekintza egingo dituzte San Martin eskolan. Eguenean, esaterako, Maider Alzelai ipuin kontalariaren bisita izango dute, kultura etxean. Abenduaren 3an, egubakoitza, eskolako umeak herriko kaleetan ibiliko dira Alaiak erretiratu taldearekin eta Eguneko Zentroko nagusiekin batera euskal kantak abesten.

KZguneak teknologiei buruzko hitzaldiak eskaintzen ditu online

KZguneak online hitzaldiak eskaintzen jarraitzen du. Astero egiten dituzte IKTei buruzko hitzaldiak, euskaraz eta gaztelaniaz izaten direnak, 30 minutukoak.

Ikastaroetan parte hartu nahi duenak ez du zertan aurrez izena eman; parte hartu ahal izateko, Internetarako konexioa izatea besterik ez da behar.

Abendurako zehaztu dituzten ikastaroak dira: *BakQ: alta, erabilera eta kudeaketa* eta *Zein programa behar du artxibo-formatu bakoitzerako?* Lehenengo ikastaroa abenduaren 14an –euskaraz– eta 16an –gaztelaraz– izango da, 12:00etan; eta bigarren ikastaroa abenduaren 21ean –euskaraz– eta 23an –gaztelaraz–, 19:00etan.

Youtubeko ekitaldirako sarre- ra libreza izango da: hitzaldi- eta- rako estekak www.youtube.com helbidean daude.



Markel Arriolabengoa, pilota eskuetan duela. A.E.G.

Finalerako sailkatzea lortu du Arriolabengoak

Martitzenean Maider Unda pilotalekuan jokaturako finalerdian 22-13 irabazi zion Jokin Larrietari. Abenduaren 4an izango da finala, Gasteizen, Ogeta pilotalekuan. Arabako lurraldeko banakako txapelketaren ondoren, trinketea lehiatzeko asmoa du

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Markagailuan atzetik aurrera egin ostean, abenduaren 4an Gasteizen jokaturako den finalerako txartela lortu zuen Markel Arriolabengoa pilotari aramaiarra martitzenean. Txarto hasi zuen lehia, 1-5 galtzen; ondoren, parekatzea lortu zuen, eta behin 12. tantora iritsi zenean lortu zuen markagailuan alde handitza. Azken emaitza 22-13 izan zen, etxeko pilotariaren alde.

"Ezagutzen nuen Jokin Larrieta aurrez; pentsatzen nuen lehia gogorragoa izango zela", azaldu du Arriolabengoak. Maider Unda pilotalekura joandako ikusleen eta, batez ere, lagunaren animoak eskertzekoak direla nabarmendu du Aramaioko pilotariak.

Finala, Ogetan

Abenduaren 4an jokaturako dute Arabako lurraldeko banakako txapelketako finala, Gasteizko Ogeta pilotalekuan. Atzo, eguea, jokatzekoa zen lehiatik irtena da aramaiarraren aur-

karia: Herriaren elkarteko Aimar Amondo eta Aimar Saez pilotariaren arteko lehiatik, hain zuzen. "Finala zail ikusten dut. Bi pilotariak ni baino bi urte zaharragoak dira", azaldu du Arriolabengoak.

Pisu handiagoko pilotak

Aramaiorren lehenengo urte du 22 urtez azpikoen kategorian. "Hasieran, kosta egin zitzaidan kategoria berrira egitea, baina dagoeneko moldatu naiz", dio. Izan ere, mailen artean nabaritu duen diferentzia handiena partiduen iraupena da: "Gazte mailan partidua motzagoak izaten ziren, baina seniorretan tantoak luzeagoak dira, eta horrek dakar partiduen iraupena

GAZTE MAILATIK SENIORRETARA IGOTZEA KOSTA ARREN, DAGOENEO MOLDATU DELA DIO

luzeagoa izatea". Horrez gain, pilotaren pisuan ere aldea dagoela dio: "Pilotaren pisua 105 gramo ingurukoa da, eta lehenengoak nahiko arinagoak ziren".

Aurtengo denboraldian izan duen beste aldaketa bat klubarena da. Aramaioren jokatzetik Legution jokatzera pasa da Arriolabengoa. Legution senior mailako sei pilotari daude.

Denboraldi berrian zer?

Iazko denboraldian Arabako lurraldeko banakako gazte mailako txapelketa irabaztetik dator Arriolabengoa. Abenduaren 4ko finala irabaziko balu, 22 urtez azpikoetako txapela ere bereganatuko luke. Behin txapelketa hori amaituta, bestelako txapelketak ditu buruan Arriolabengoak: "Trinketea lehiatu nahiko nuke. Iaz, Cariñanosekin batera Arabako trinket txapelketa irabazi nuen, gazte mailan; ea aurtun Asier del Camporekin osatzen dudana bikotea". Ondoren, lau eta erdikoa etorriko da.



NIRE USTEZ

JOKIN LARRAÑAGA

Txanpon baten truke

Idazten hasi orduko pasa zaizkit 15 minutu. Erloju orratzen joan-etorri geldiezinak *tik-tak*. Nire barnean zalantza zaren sua piztu da: gizakiak sortu du erlojua, eta baita orratzak bertara lotu. Handinahikeria? Ala beldurra? Zeren, denbora joan badoa, baina ez da sekula itzultzen. Nire bakarriketaren antzera, badoa, baina ez badut bertan argi distirarik aurkitzen galdua dut goiza. Galdua. Ni ala nire denbora? Denbora balitz, lanean nengo; idazten ari naiz, ordea. Ni banaiz, lanean nintzateke, baina idazten ari naiz. Zer galdu dut, hortaz? Dirua. Dirua lortzeko behar dudana denbora, hobeto esanda. Kaka zaharra.

Ezin atera denbora ekuaziotik. Baliotsua behar du izan. Dirua baino gehiago? Agian. Biak baitira geroz eta garestiago urteak joan ahala, baina denbora ezin dezaket sortu, eta dirua bai. Kontua da dirurik gabe ere ezin naizela bizi. Kaka zaharra?

Nire denboraren zati bat saldu beharko dut merkatuan. Handinahikeria? Ala beldurra?



JOSU BILBAO

Nerabeak, bazkaria prestatzen

Masterchef lehiaketa egin zuten zapatuan eskolako patioan. 18 gaztetxok parte hartu zuten, eta haxe prestatu: patata-tortilla, paella, sanjakoboak, gazta-tarta... Aramaioko nerabeak elkartu eta aisialdi aukerak eskaintzea izan zen topaketaren helburua. Udal ordezkariak urte hasieratik dabilta nerabeen aisialdiaren inguruan hausnartzen.

Etxeko txikiek ere arte eszenikoez gozatzeko ekimena

Haziaraba in the Mapping jaialdiaren barruan, bi ekintza egingo dituzte aste bukaeran. Umei zuzendutako jaialdia da, eta arte eszenikoak umeei gerturatzea du helburu. Hala, aste bukaerako ekitaldiak umeendako izango dira: bihar, zapatua, 18:00etan, *Leihoak* ikuskizuna egingo dute; eta etzi, domeka, *Kulunka* musika emanaldia.

Paraiso antzerki taldeak egingo du *Leihoak* lana, 2 eta 5 urte bitarteko umeendako. Gaua, hotza eta haizea dira protagonista nagusiak istorioan; horien artean, gauaren itzalean dantzari baten silueta agertuko da, bere beso loretsuekin.

Kulunka kontzertua, aldiz, 1 eta 4 urte bitarteko umeendako izango da. Hiru musika estilo nahastuko dituzte emanaldian: klasikoa, jazz eta etnikoa. Ikusle txikiendako opari bat izan nahi du *Kulunka*-k.

Konpromisoak hartu eta euskara erabiltzeko deia

'Ixotu euskaria!' leloarekin, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 2an ospatuko da Aretxabaletan; ekitaldi xumea egingo dute, udaletxe zaharrean. Hurrengo egunean, ikastetxeek egingo diete keinua egunari, baina ekitaldiak barruan egingo dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Paparrean jartzeko txaparik ez dago aurten, baina euskararen aldeko konpromisoak hartzeko edozein egun da aproposa. Horren jakitun, *Ixotu euskaria!* deia egin die aretxabaletarrei euskara sustatzeko ekintzak antolatzeko sortutako lantaldeak, eta datorren egunean, abenduaren 2an, udaletxe zaharraren atarian (18:30) egingo den ekitaldi xumera gonbidatu ditu.

Konpromisoak eta kandelak

Herriko hainbat elkartek eta eragilek jaso dute gonbidapena egunerako. Euskararen aldeko konpromisoak hartzeko pizgarri izan gura du dei horrek eta horiek jendaurrean adieraztera gonbidatu dituzte. Ekitaldia aretxabaletar guztiei dago zabalik, euskaraz jakin edo ez. "Herritar oro gonbidatu gura dugu euskararekiko konpromiso bat hartzera; norberaren gaitasun eta gogoaren arabera, noski, baina seguru



Ainhoa Sanchez, Euskararen Egunaekin bat egitera gonbidatzen. MIRARI ALTUBE

guztiok dugula zerbait esateko", adierazi dute batzordeko kideek. Kandela isiotuta irudikatuko dute konpromiso hartze hori, udaletxe zaharra argizatuta, eta txokolate beroarekin goxatuko dute ekitaldia.

Ikastetxeek, barruan

Herriko ikastetxeek abenduaren 3an egingo diete keinua egunari, baina ekitaldi gehienak barruan eginda. Kurtzebarri eskolako neska-mutikoei hainbat bisita izango dituzte: astelehe-

nean, *Goazen* telesaila hainbat kideekin jardungo dute, online; martitzenean, Potx eta Lotx pailazoekin elkartuko dira; eta eguaztenean, Haimar Arejita, Gatibu taldeko gitarra-jolea, izango dute kontu-kontari. Egubakoitzean, oster, *Mihi-Kurtze* lehiaketaren finala jokatuko dute, eta gaztainak jango dituzte. Kurtzebarri institutukoek, oster, sentsibilizazio saio bat izango dute euskararen gainean hausnartzeko, pirolo lehiaketa egingo dute, eta euskal musika-

ren gaineko bingoa ere bai, besteak beste.

Arizmendi ikastolan ere dagoeneko hasita daude girotze lanekin. Basabeazpi gunean, *Ixotu euskaria* lelopean hasiko dute eguna; antzinako jolasak egingo dituzte, tailerrak ere bai, eta, bukatzeko, txorizo muturtxoan. Almenen ere tailerrak izango dituzte, eta txistor mokadutxo. Gainera, Arizmendiko gune guztietan egingo dute giza mo-saikoa, dantza bateratua eta manifestu irakurketa.

"Ospatzeko zein aldarrikatzeko eguna da"

AINHOA SANCHEZ
LORAMENDIKO TEKNIKARIA

Euskara sustatzeko lantaldean gidari lanak egin ditu.

Zelako eguna dator aurten?

Bizi dugun egoerak zaildu egiten du edozein aurreikuspen, baina ilusioarekin eta goxotasunez biziko dugun egun bat izatea gurako genuke.

Aldarrikatzeko edo ospatzeko eguna da?

Bietatik du. Iraganera begira jarritz gero eta euskarak izan duen ibilbidea ikusi, pozgarria



IMANOL BELOKI

da gaur egun dugun egoera, euskaraz bizitzeko baliabideak ditugu eta. Etorkizunera begira jarrita, baina, aldarrikatzea dagokigu. Euskaraz bizi garen arren, asko dira erdarara jotzen dutenak, "erraztasun gehiago" daudela aitzakiatzat erabiltza. Euskaraz modu errazean bizi daitekeela aldarrikatu behar dugu, horretarako baliabide berriak gure hizkuntzara moldatuta eta norbanako moduan euskarari helduta.

C02 neurgailuak eskatu ditu EH Bilduk Udalaren eraikinetan

Prebentzio neurriei lehentasuna eman gura diete, eta erabilera publikoko leku itxietan jarri dute fokua

M.A. ARETXABALETA

Koronabirusarekin kutsatzeko arriskutsuak diren guneak identifikatu gura izan dituzte EH Bilduko kideek, "aireztatze gutxikoak eta itxiak izanik larrienak". Halako lekuetan maskara erabiltzea oso garrantzitsua dela gogorarazi dute, eta gaineratu aireztatzea egokia dela ziurtatzeko CO2 neurgailuek asko laguntzen dutela. Horregatik, Udalaren eraikinetan neurgailu horiek lehenbailehen jartzeko eskatu diote Udal Gobernuari.



CO2 neurgailu bat. ION ALBIZU

Datu batzuk eman dituzte: 12 urtetik gorakoen artean %90 txertatuta dago eta 6 eta 12 urte artean kutsatze-tasa 700etik gorakoa da. Hori dela-eta, prebentzio neurriei lehentasuna eman gura diete eta fokua jarri dute erabilera publikoko leku itxietan: "Udalaren eraikinetan neurgailuak lehenbailehen jartzea eskatu dugu, umeek erabiltzen dituzten lokalei lehentasuna emanez: liburutegia, ludoteka...".

Ikastetxeekin harremanetan jartzea ere eskatu dute: "Lehen-tasunez jarri behar diren neurgailuak emateko udal baliabideekin". Baita interesa duten komertzio zein tabernariekin hori bera egitea ere, dirulaguntzen bitartez. Hori guztia egin ahal izateko aurrekontuan behar diren baliabideak aktibatzea eskatu dute.

Institutuaren 25 urteak erakusketan jasoko dituzte


Kurtzebarri Bigarren Hezkuntzako Institutua 25. urteurrenaren bueltako ekitaldietan murgilduta dabil irailaz geroztik. Ibilbide horretako pauso eta bizipen asko eta asko dituzte jasota argazkietan eta bideoetan, eta horiek guztiak ikusgai jarriko dituzte erakusketan batean, Arkupen. Azaroaren 30ean, martitzenean, 18:00etan, irekiko dituzte erakusketak gelako atean, eta abenduaren 14ra bitartean izango da zabalik.

"Garrantzitsua iruditzen zaigu herriari bueltatzea mende laurden horretan emandakoa", adierazi dute institutuko kideek, eta aretxabaletar guztiak gonbidatu dituzte Arkupetik pasatzera.

'Maixabel' filma eta antzezlanaren aste bukaeran Arkupen

Ikusmin handia sortu duen Iciar Bollainek zuzendutako *Maixabel* filma emango dute aste bukaeran Arkupen; gaur eta bihar (19:30) eta astelehenean (16:00). Hurrek, oster, *D'Ortengan eta Hiru Moske-Txakurak* marrazki bizidunen filma izango dute bihar eta etzi (17:00).

Domekan, berriz, Naita Produzioak-ek *Adela eta Martirio Bernarda Albaren etxean* antzezlanaren eskainiko du (19:00). Garcia Lorcaren klasikoaren moldaketa da eta azaroaren 25aren bueltako ekitaldien artean dago. Umore ukituak dituen drama da eta moldaketaren egileek gaineratu dute musikal groteskoa eta poetikoa dela.



Barrainkua, Ruiz de Azua, Azkorbebeitia eta Etxeberria. GOIENA, TTAP ETA WIKIPEDIA

Emakumeen kirola ezagutaraztea helburu

'Emakumea eta kirola' egitaraua gertatu dute Udaleko Berdintasun eta Kirol sailek, UDArekin batera, eta hor jaso dituzte film emanaldi bat abenduaren 9an eta mahai-ingurua 16an; alor askotariko kirolari ezagunak elkartuko dira Arkupen

Mirari Altube ARETXABALETA

Emakumeak kirol arloan duen presentziari "balioa emateko ahaleginetan", *Emakumea eta kirola* izena jarri dioten egitaraua osatu dute Udalak -Berdintasun eta Kirol sailak- eta Aretxabaleta kirol elkarteak elkarlanean. Bi hitzordu, abenduko bi egue-netarako, zehaztu dituzte, eta, besteak beste, hausnartuko dute kirolariek gaur egun bizi duten egoeraren gainean, gizonezkoen kirolarekiko dagoen arrakalari buruz eta profesionalki zein pertsonalki kirol jardunean aurrera egiteko dituzten oztopoen gainean. Emakumeen lana jendaurrean azaltzea ere bada asmoa.

'Hijas De Cynisca' dokumentala

Film emanaldi bat izango da abenduaren 9an, Arkupen (19:00): *Hijas De Cynisca*. Beatriz Carreterok zuzendutako film-dokumentala da, eta kirolean gertatzen den genero desberdintasuna du hizpide. Erreferenteak diren eta euren ibilbidean lorpen handiak izan dituzten emakumei eman die ahotza Carreterok; besteak beste, honako hauenak: Almudena Cid gimnasta ohia, Ona Carbonell igerilaria, halterofilian diharduen Lydia Valentin eta eskubaloiko jokalaria Carmen Martin. Nazioarteko zinema jaialdi askotan hartu du parte filmak, eta hainbat sari jaso ere bai.

Lau kirolari mahaiaren bueltan

Abenduaren 16rako, ostera, mahaiaren bueltan elkartuko dituzte zeresan handia duten hainbat kirolari, eta *Emakumea eta kirola oztopoez haratago* izenpean kontu-kontari jardungo dute. Laboral Kutxako txirrindulari ohi Ainhize Barrainkua aretxabaletarra, estatuko pertika-jauzilari onenen artean dagoen Malen Ruiz de Azua arrasatearra, bertako zein nazioarteko mendi lasterketetan aurrean dabilen Oihana Azkorbebeitia abadiñarra eta Garbiñe Etxeberria Realeko kirol zuzendaria izango dira Arkupen (19:00); moderatzaile lanetan, ostera, Ane Urkiri kazetariak jardungo du.

Gabonetako 500 bonu jarriko ditu salgai Udalak, eguaztenean

20 euro ordaindu eta trukean 30 euroko txartela jasoko dute herritarrek Aretxarteko komertzioetan erabiltzeko

M.A. ARETXABALETA

Abenduarekin batera, eta Gabonen atarian, bonuen kanpaina jarriko du abian Udalak, herriko dendetan erosketak sustatzeko helburuarekin. 500 txartel jarriko dituzte salgai, hilaren 1ean hain zuzen ere, eta aurreko urteetako deskontu berbera izango dute: erosleak 20 euro ordainduko ditu eta, trukean, 30 euroko txartela izango du, hau da, 10 euro jasoko ditu debalde. Txartel horiek Aretxarte merkatarien elkartean bazkide diren establezimendue-

tan erabili ahal izango dira abenduaren 31 bitartean.

20+10 bonuak erosteko Arku-pera jo beharko dute herritarrek beste urte batzuetan legez. 16 urtetik gorako aretxabaletarrek eskuratu ahal izango dituzte, pertsona bakoitzak bakarra, eta horretarako nortasun agiria aurkeztu beharko dute. Udaletik jakinarazi dute 5.000 euro bideratuko direla ekimen horretara. Bono guztiak salduz gero, 15.000 euroko inpaktu ekonomikoa eragingo dute tokiko ekonomian.

Hamabi bikote nor baino nor gehiago frontenis txapelketan

Aretxabaleta kirol elkarteak antolatuta, bihar eta etzi jokatu da, goiz partean, Iturrigorri pilotalekuan

M.A. ARETXABALETA

Bikote mistoen arteko frontenis txapelketa jokatu da zapatuan eta domekan, Iturrigorri pilotalekuan. Hamabi bikotek jardungo du nor baino nor gehiago; gehienak aretxabaletarrak dira, baina inguruko herrietakoak ere izango dira: Arrasatekoak, Eskoriatzakoak eta Elgetakoak, eta Bilbotik etorriko den bikote bat ere badago.

Hiru bikoteko lau talde egin dituzte antolatzaileek: zapatuan (08:00-13:30), talde berekoek elkarren artean jokatu dute;

eta domekan, talde bakoitzeko bi bikote onenak elkarren artean nahastuko dituzte. Eguerdi partean iritsiko da txapelketaren bukaera; hirugarren eta laugarren postua erabakitzeke partidua jokatu da lehenengo (12:00) eta finala gero (12:30).

Harmailak, ikusleen zain

UDArekin 75. urteurrenaren baitako ekitaldien artean dago txapelketa eta antolatzaileek jakinarazi dute partiduak giro-tuko dituzten ikusleen zain izango direla harmailak.



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Finalerako ez sailkatu arren, oso pozik gaude"

JOSE MARI ETXEBARRIETA TABERNA BERRIKO SUKALDARIA

Gipuzkoako I. Pintxo, Banderilla eta Miniaturazko Sukaldaritzaren Txapelketako finalaurrekoa jokatu da aste honetan, eta bertan izan da Taberna Berri jabetxea

Ainhoa Arana ARETXABALETA

40 establezimenduk baino gehiagok hartu zuten parte lehiaketan, baina hamalau jabetxe soilik sailkatu ziren banderillen kategoriako finalaurrekorako, eta hamabi miniaturazko sukaldaritzako kategoriakoan. Asteartean, azaroaren 23a, izan zen lehiaketaren finalaurrekoa, eta Taberna Berri bi kategorietan hartu zuen parte. Finalerako txartela lortu ez badute ere, pozik daude egindakoarekin, eta hurrengo urteko lehiaketara begira daude jada.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Polita eta oso aberasgarria. Inoiz horrelako lehiaketa batera aurkeztu barik geunden, eta asko disfrutatu dugu. Ikasi ere bai; izan ere, jendea asko prestatzen da horrelako lehiaketetarako. Hurrengo urtean antolatuz gero, gu ere prest izango gara.

Bi modalitatetan sailkatu zineten; espero zenuten?

Ez; egia esan, guk aurkeztu genituen pintxoak tabernan izaten ditugu, normalean. Ilusio handiarekin jaso genuen notizia.

Zeintzuk izan ziren aurkeztutako pintxoak?

Banderillen modalitatean aurkeztu genuena Aretxabaletako tomatearekin egindako broxeta izan zen. Hau, normalean, tomatearen garaia heltzen denean egiten dugu. Tosta bat da, tomatearekin: gainean bakailao melatua, ozpin-olio berezia eta alioli puntu bat izaten du. Miniaturazko sukaldaritzako atalean, aldiz, buztan-biribilkiak aurkeztu genituen. Buztanari hezurak kendu, haragia txikitu, biribilkiak bete eta saltsa batekin zerbitzatzen ditugu. Azkenik, porrua frijitzen dugu eta gainean jartzen diogu; horrek ukitu berezia ematen dio.

Nolakoa da lehiaketaren egitura?

Arraroa. Ni ez naiz zuzenean epaimahaiarekin egon: hasieran, aurkeztu genituen bi pitxoak



Jose Mari Etxebarrieta, Taberna Berrin. AMIRARI ALTUBE

"AURTEN HASIBERRIAK IZAN GARA, ETA, HAIN ZUZEN ERE, HORI NABARITU EGIN DA"

tabernan jarri genituen hilabetez. Horren ondoren, finalaurrekorako aukeratuak izan ginela esan ziguten. Asteartean, finalaurrekora joan nintzenean, sei pintxo berdinekin egin behar nituen: bost epaimahaiarentzat eta bat argazkirako. Goizean izan zen kategoriatu bateko finalaurrekoa eta arratsaldean bestea. Azkenengoan, baina, ezin izan nintzen egon, lan egin behar nuelako.

Hurrengo urterako prest, orduan?

Bai: aurtun hasiberriak izan gara eta hori nabaritu egin da. Astearteko finalaurrekoan, beste sukaldari batzuekin hitz egiteko aukera izan nuen, eta konfiantza nintzen taberna askok pintxo bat sortzen dutela espresuki lehiaketarako. Guk ez dugu horrelakorik egin: tabernan ondo kontsumitzen diren eta goxoak diren bi aukeratu ditugu eta horiekin aurkeztu gara. Hurren-

go urtean lehiaketa berriz antolatuz gero, prest egongo gara. Aiztoak prest ditut jada!

Nolakoa izan zen lehiakideekin izandako tratua?

Ezin hobea; aurretik aipatu bezala, ezin izan nintzen arratsaldeko finalaurrekoan egon, lan egin behar nuelako, eta pintxoak prest utzi behar nituen epaimahaiarentzat. Lehiakide bat gerturatu zitzaidan pintxoak muntatzen ari nintzenean. Momentu hartan muntatzen banuen ez zela behar bezala egongo esan zidan. Nire arazoa azaldu nioanean, berak muntatuko zidala esan zidan. Hori poza! Sekulako giroa zegoen bertan eta oso atseginak izan ziren nirekin.

Herriarrek ezer esan dizute?

Noski; animo asko eman dizkigute tabernara gerturatu izan direnean eta horrelako hitzak entzuteak animatu egiten gaitu. Azken finean, gure bezeroek oso ondo ezagutzen dituzte aurkeztutako pintxoak eta konfiantza handia izan dute guregan. Askok eskertzen da hori. Hemendik aurrera esperientzia izango dugu horrelako lehiaketetan, eta, zeinek daki, akaso, hurrengo urtean finalean egon gaitzke!

Tailerrak abenduan, Gu Haziak Gara elkartearen eskutik

Plaza mugatuak izango dira eta, horrez gainera, aurrez eman behar da izena bertan parte hartzeko

Ainhoa Arana ARETXABALETA

Lau tailer eskainiko ditu elkar-teak datorren hilabetearen. Eskumuturrekoak egingo dituzte lehenengo hitzorduan, hariekin zein haziarekin, eta abenduaren 8an izango da, 09:30etik 12:30era bitartean. Fototransfer tailerra, aldiz, bi eguneko izango da, eta bertan, irudien bidez objektuak pertsonalizatzen ikasiko dute. Abenduaren 10ean eta 17an izango da hori, 10:00etatik 12:00etara bitartean. Abenduaren 27rako, 28rako eta 29rako, bi tailer antolatu dituzte: lehena,

goizez, joskintzaren hastapenen ingurukoa; bigarrena, arratsaldean, konpresak egiten ikasteko.

Iralabarriko lokalean izango dira hitzorduetan eta ordaintzeko bi aukera eman dituzte: dirua edo denbora. Azken honek aukera ematen die, beraz, egoera ekonomiko txarrean dauden herritarrei parte hartzeko. Materiala elkarteko kideek emango dute eta sei pertsonako taldeak izango dira, gehienez. Izena emateko, guhaziakgara@gmail.com helbidera idatzi behar da, edo 681 65 59 39 telefonora deitu.

GORA ETA BEHERA



Aretxabaletako olio, Eskoriatzara?

Murubiden Eskoriatzako olio jasotzeko edukiontzia berrien mapa jarri dutela azaldu du herritar batek: "Eskerrak guk etxe ondoan daukagun; bestela, Eskoriatzara joan beharko genuke eta".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.


Murrukixoren bulegoa zabalik dago, tramitazioetarako

Murrukixoren mendizale elkar-teak gutuna bidali die federatuta dauden bazkideei egunotan; han dituzte zehaztuta federatuen kuota eta aukerak. Edozein aldaketa egiteko Durana kaleko bulegotik pasatu beharko da datorren astean; astelehenetik egubakoitzera bitartean izango dituzte zabalik ateak, 19:00etatik 19:30era bitartean.

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Alabitako linean, Idiazabalen, Makatz-gain alboan, ehiztaria usoen zain. ANDONI ETXENAGUSIA

Uso-pase eskasa, baina birigarroekin konforme

Aldaype Ehiza eta Arrantza Elkarteko uso-postuen zozketak joan den astean amaitu zituzten. Aurtengo ehiza-denboraldiaren balorazioa egin dute elkartekideek, eta urtarrilera begira batzar orokorreko deialdia egingo dutela jakinarazi dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Joan den domekan, azaroaren 21ean, izan zuten lursail jabetzarik ez duten herritarrek, zozketa bidez, Aldaype, Ehiza eta Arrantza Elkartearen bidez ehizatze postua erabiltzeko azken eguna. Orain, ehiza soltean egiteko aukera izango da; hau da, postuan derrigorrez egon barik, oinez eskopetarekin basoan aritzeko aukera. Ehiza-denboraldia kaskarra izan dela adierazi dute Aldaypeko ehiztariek. Hala ere, usoak oraindik pasako diren esperantzarekin daude ehiztariak, eta zenbaitek aprobetxatuko dutela ehizatzeo adierazi dute Aldaype elkartetik.

Zozketa, egun bakarrean

Pandemiaren ondorioz, egunero barik, eguaztenak izan dira postu-banaketa zozketa egunak, eta, bertaratu diren ehiztariek begi oinez ikusi dutela horrela egitea adierazi du Aldaype elkarteko Gerardo Canterak. "Joan den eguaztenean egin genuen den-

boraldi honetako azken zozketa, eta herriko ehiztariak zapore gazi-gozoaz geratu dira. Izan ere, uso-pasea eskasa izan da aurtengoa. Hala ere, birigarroak pasa dira, eta horrekin konformatu behar izan dugu ehiztariok. Lehen, egunero egiten genituen postu banaketak, eta, sarritan, zenbaitek ezin zuten Aldaypeko lokalera bertaratu. Orain, berriz, eguaztenetan, aste osorako postu banaketak egin ditugu, eta, bi ordu eta erdian banaketa eginda, egunero etorri behar ez izatea positiboa izan da guztiontzat", gaineratu du Canterak.

Orain, ehiza modu soltean egiteko aukerarekin, ordutegian ere aldaketak daudela gogorazti nahi izan du Canterak:

EHIZA-POSTUEN ZOZKETAK EGUAZTENETAN SOILIK EGIN DIRA, EGUNERO BEHARREAN

"Lehen, eguzkia irten baino ordubete lehenago hasi zintezkeen ehizatzen, eta eguzkia gorde baino ordubete lehenago amaitu behar zenuen. Orain, berriz, 07:30etik 17:30era bitartean ehi-zatu beharko da".

Batzar orokorra urtarrilean

Aldaype elkarteko juntan kide berak ari dira azken urteotan, eta aldatzeko beharra ikusten dute gaur egungoek. Hala ere, ordezkito boluntarioak topatzea ez dela samurra azpimarratu du Canterak: "Aldaypeko juntan egoteko ordezkari faltan gaude; betiko arazoa da. 202 bazkide gara, guztira, eta junta zazpi kidek osatzen dugu. Hala, asmoa da elkarte osatzen dugun bazkideon bi herenak batzea, eta estatutuak aldatzea. Ez dago erabakita, baina zerrendaren arabera juntako kideak aukeratzeko izan daiteke irtentze bat... Urtarrilean egingo dugu batzarrak, eta data zehaztuko dugu Gabonetan".



Azarako ohiko osoko bilkura egiteko kultura etxean batu zirenak. IMANOL BELOKI

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna izan dute berbagai

Bi alderdiak indarkeria matxistaren aurka agertu diren arren, oposizioak "neurri zehatzak" eskatu ditu

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzenean egindako ohiko osoko bilkuraren gai-zerrendari erreparatuz, bi puntu izan ziren azpimarratzeko modukoak: batetik, dirulaguntzen plan estrategikoaren aldaketa bat; eta, bestetik, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren baitan bi alderdiek aurkeztu zituzten adierazpen proposamenak.

Dirulaguntza: 'Energia bonua'

"Alde batetik, ikusita argiteria asko igotzen ari dela, eta, bestetik, gasa ere igoko dela, pentsatzen genuen Eskoriatzako zenbait familiak arazoak izango zituztela, garbi esanda, kalefakzioa pizteko negu honetan. Hori ikusita, dirulaguntza berri bat sortzea planteatu genuen, *Energia bonua* deitu dioguna, eta 30.000 euroko partida bideratu dugu. Aurreikuspenen arabera, laguntza behar duten 200 bat

familiarentzat emango digula uste dugu...", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak.

Azaroaren 25a hizpide

Udal Gobernuak Eudeletik zertorren adierazpen instituzionala aurkeztu zuen, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunaren baitan, eta, EH Bilduk egoki ikusi arren, aurka bozkatu zuen, herritarrek ekin-tza zehatzak eskatzen dituztela argudiatuta: "Ezinbestekoa da herriko talde feminista edo emakume elkarteekin berba egitea, beraien ikuspuntua jakitea, eta zer nahi duten jakitea, eta zertan lagundu dezakegun jakitea. Guk hori aurkeztu dugu...", adierazi zuen Eluska Irazuk, EH Bilduko bozeramaileak. Hala ere, udal talde biek argi utzi zuten indarkeria matxistari amaiera eman behar zaiola.

Landagunerako hiru dirulaguntza, jendaurrean

Eskoriatzako Udalak landagunetarako hiru dirulaguntza lerro onartu ditu: Udalaz kanpoko ur hornidura sistema kolektiboentzako dirulaguntza, argiteria sistementzako dirulaguntzak eta jarduera soziokulturala edo ekonomikoa dinamizatze laguntzak.

Azaroaren 18an publikatu ziren Gipuzkoako Aldizkari Ofi-

zialean dirulaguntza horiek arautuko dituzten oinarriak, eta eskaerak aurkezteko azkeneko eguna 2021eko abenduaren 15a izango da. Dirulaguntza lerro bakoitzari buruzko informazio zehatza, berriz, Eskoriatzako udal webgunean ikusi daiteke.

Tramitazioa era presentzialean egin daiteke, Herriarrentzako Arreta Zerbitzura joanda, astelehenetik ostiralera bitartean, 08:00etatik 14:30era bitartean, eta online ere egin daiteke, *Herriarrentzen ataria*-ren bitartez.

Material birziklatuekin herria apaintzeko deia

Eskoriatzako Udalak material birziklatuekin egindako Gabonetako apaingarrien lehiaketa antolatu du, eta horrekin jendea gonbidatu nahi du Gabon jaiez modu arduratsuan, parte-hartzailean eta ingurumena errespetatuz gozatzeraz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako lorategiak, parkeak, zuhaitzak, plazak, herriko txokoak... apaintzeko lehiaketa abiatu du Eskoriatzako Udalak. Taldeka edo banaka hartu daiteke parte, eta egitasmoaren helburua da botatzeko diren hondakinak erabilita, horiei beste erabilpen bat emanda, Gabonetako apaingarriak egitea eta horiekin espazio publikoak apaintzea.

Espazio publikoetan bakarrik

Jendea kontzientziatu nahi dute egunero sortzen den hondakin kopuruaz eta horrek sortzen duen ingurumen arazoaz. Horrekin batera, beharrezko ez diren kontsumoak saihesteak duen balioaz jabetzea eta ohiko apaingarriak erabili beharrean egon daitezkeen alternatibak bilatzea ere bada helburua. "Iaz egin genuen lehenengo aldiz, eta espero genuen baino jende gehiagok hartu zuen parte. Hala, berrikuntzekin dator aurtengo edizioa. Iaz, posible zen balkoiak, leihoak, atariak eta abar apaintzea, baina ikusita espazio publikoak izan zirela, batez ere, apainduak, eta kontuan izanik zenbait kasutan leihoak, atariak eta bestelakoak kaletik ez direla ikusten, soilik espazio publikoan egitearen aldeko apustua egin dugu", adierazi du Arantxa Unzueta, Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Izen-ematea, ezinbestekoa

Kuadrilla, talde edo norbanako guztiek parte hartu ahal izango dute, baina, horretarako, posta elektronikoko bat bidali beharko da, abenduaren 16a baino lehen, hazi@eskoriata.eus helbidera edo 650 49 51 66 telefonora honako datu hauekin: arduradunaren izen-abizenak, apainduko den espazioa eta horren argazkia. Eta gero, antolatzaileen oniritzia jasotakoan apaindu ahal izango



lazko Gabonetako apaingarri lehiaketako txoko bat. IMANOL BELOKI

ESKORIATZAKO ESPAZIO PUBLIKOAK BAKARRIK APAINDUKO DIRA BIGARREN EDIZIOAN

da gunea. "Hala egitea erabaki dugu; izan ere, modu librean utzita baliteke gertatzea bi taldek leku bera apaindu nahi izatea...", adierazi du Unzueta.

Teknika librea izango da, eta Gabonetako ohiko objektu bihurtu daitezkeen edozein hondakin erabili ahal izango da: plastikozko botilak, diskoak, latak, tetrabrikak, bizikleta gorpilak, telak, kortxoa, beira eta egurra, esaterako, eta apaingarriak argiak ere jarri ahal izango zaizkie, nahi izanez gero. Talde, elkarte edo norbanako bakoitzak bere lana ere zaindu beharko duela erakusgai dagoen bitartean jakinarazi dute Eskoriatzako Udaletik.

Epeak, ezarrita

Apaingarriak jarrita egon beharko dute abenduaren 19ko 14:00etarako, eta Gabonetan

egongo dira ikusgai, urtarrilaren 7ra arte. Hala, urtarrilaren 10erako kenduta egon beharko dute apaingarri guztiek, eta, zaborretara bota behar baldin badira, behar den moduan birziklatu beharko direla adierazi dute antolatzaileek.

Balorazio irizpideak

Epaimahaiak abenduaren 19 eta 21 bitartean baloratuko ditu herrigunean zehar ezarritako lan guztiak, eta sariak abenduaren 22an jakinaraziko dira. Hori horrela, ondorengo alderdiak hartuko ditu kontuan epaimahaiak Gabonetako apaingarri lehiaketako lanak baloratzeko orduan: sormena, materialak eraldatzeko erabilitako teknika, ahalik eta erositako material gutxien erabiltzea, erabilitako materialak, diseinua, zailtasuna eta berrerabilitako materialen aprobetxamendua.

Sariak, berriz, dirutan eman go dira: lehenengo saria 300 eurokoa izango da; bigarren saria, 200 eurokoa; eta hirugarren saria, 100 eurokoa. Horrekin batera, 30 euroko hamar sari zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean.



Jose Antonio Garcia Mondra zilarrezko domina jasotzen. ESPAINIAKO KENPO FEDERAZIOA

Atamako zazpi borrokalariak, podiumean Espainiakoan

Zilarrezko bost domina eta brontzezko lau domina lortu dituzte, Rafa Carriet entrenatzailearen gidaritzapean

I.B. ESKORIATZA

Espainiako kenpo txapelketan Atama Eskoriatza taldeko zazpi borrokalari izan ziren lehiatzen Guadalajaran. Danel Azkunaga, Airam Duarte, Ion Garcia, Leire Rato, Jose Antonio Garcia Mondra, Julen Maqueda eta Jose Luis Maqueda izan ziren herriko ordezkariak, eta guztiak igo ziren podiumera.

500 borrokalari batu ziren txapelketan eta kenpo modalitate guztiak jokatu ziren bertan. Eskoriatzako borrokalariak egindako lana azpimarratu du Rafa Carriet Atama Eskoriatzako entrenatzaileak: "Klubak zilarrezko bost domina eta brontzezko lau lortu ditu: *semmikenpo*-an, Julen Maqueda eta Jon Garcia Espainiako txapeldunorde izan ziren, bakoitza bere kategorian; Danel Azkunaga eta Leire Rato, berriz, hirugarren postuan geratu ziren. Rato le-

sionatuta joan zen lehiaketara, eta, *semmikenpo*-an brontzea lortzeaz batera, bigarren geratu zen *summission* kategorian. *Kontinuo* sailean, aldiz, Danel Azkunaga eta Mondra txapeldu-norde geratu ziren eta Airam Duarte eta Jose Luis Maqueda hirugarren sailkatu ziren.

Trantsizio urtea

Carrietek gaineratu duenez, "aurtengo trantsizio urtea" izan da, eta azpimarratu du "borrokalari berriek lan oso ona" egin dutela. Horrekin batera, *fullkenpo* eta *submission* kategoriak indar handia hartzen ari dira; beraz, jendeari animatzeko eskatu nahiko nioke. Batez ere, emakumezkoek, klubean beharra dugu eta. Aurten, berandu jokatu da Espainiako txapelketa, eta datorren urtean martxoan egingo da; hala, ordurako prestatzea tokatzen da orain".

Gabonetako parkerako begiraleak behar dira

Abenduaren 28an eta 29an, berriro ere, Gabonetako parkea egingo da Eskoriatzan. Ohi bezala, parkeko ordutegia 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango da, eta bertan ariko diren begiraleek honako eginbehar hauek izango dituzte: eskulan tailerrak antolatzea, puzgarrietarako txandak eta zainketa antolatzea, sarrerak

saltzea eta parkea garbi mantentzea, besteak beste. Hori horrela, begirale aritu nahi dutenek curriculumak bidali ditzakete gazteria@eskoriata.eus edo hazi@eskoriata.eus helbideetara, edo Ibarraundi museora eraman.

Curriculumak jasotzeko azken eguna abenduaren 10a izango da, eta begiraleek baldintza batzuk bete beharko dituzte. Ezinbestekoak: euskaraz hitz egiten ondo jakitea eta 18 urte beteak izatea.

Katxiporretakoen saioak atzeratu egin dituzte

Zaldibar antzokian izan behar zen gaur, Katxiporretako pailazo ezagunen ikuskizuna. Bi saio eskainiko dituzte, 17:30ean bata eta 19:00etan bestea, baina, urtarrilaren 28an egingo direla jakinarazi dute azken orduan, Eskoriatzako Udaletik

Imanol Beloki ESKORIATZA

Irri, kantu eta dantza pandemia-
ra egokitutako formatu txikiko
ikuskizuna zen egitekoa gaur,
egubakoitza, Zaldibar antzokian.
Berrikuntzak izango ditu ikus-
kizunak; izan ere, Manuel Muñoz
kiroldegian beharrean Zaldibar
antzokian izango da ikuskizuna
eta saio bakarra izan beharrean
bi eskainiko dituzte Katxiporre-
takoek. Bata 17:30ean eta bestea
19:00etan. Hala ere, pandemiak
eragindako ezusteko bategatik,
bertan behera utzi dituzte bi
saioak, eta urtarrilaren 28ra
atzeratu dituzte.

Sarrerarekin zer egin

Iaz, Katxiporretako pailazoen
formatu handia antolatu zuen
Eskoriatzako Udalak, beti beza-
la, Manuel Muñoz kiroldegian.
Hala ere, sarrera gutxi saldu
zizuten, pandemia puri-purian
zegoelako, eta bertan behera
uztea erabaki zuten. Hori ho-
rrela, ikuskizun berri batekin



Porrotx eta Marimotots. KATXIPORRETA

etorriko dira oraingoan. "Katxi-
porretakoek egoerara egokitu
dute beraien ikuskizuna, eta
formatu txikian bi saio eskai-
niko dituzte, Zaldibar antzokian.
Guztira, 260 sarrera saldu ditu-
gu, eta gaur, egubakoitza, egi-

tekoak ziren saioetarako sarre-
rak dituztenek bi aukera izango
dituzte: sarrera gordetzea eta
urtarrilaren 28an erabiltzea edo
dirua berreskuratzea. Hala nahi
dutenek telefono zenbakira ho-
netara deitu edo Whatsapp mezu
bat idatzi beharko dute: 636 78
59 71 zenbakira", adierazi du
Arantxa Unzueta, Eskoriatza-
ko Udaleko Kultura teknikariak.

'Zorionak Marimotos'

Zorionak Marimotots! ikuskizu-
nean, Porrotx eta Marimotots
aritu dira soilik, Pirritx barik.
Porrotx Marimototsekin elkar-
tuko da parke magikoan. Ama-
txo Loreto duela 3 urte hil zen.
Intxaurrendoa landatu zuten
amatxoren oroimenez, bere agu-
rrean. Dolua igarota, ipuin kon-
tari, kantari, dantzan eta jolasean
ariko dira. Pozik daude amatxo
Loretorekin akordatzaren diren
aldi irria ateratzen zaielako
ezpainetan, intxaurrendoko
irria.



RUBEN TESTA

Biak ere, Euskadiko txapeldun

Enaitz Testa Euskadiko moto-kroseko txapelduna da 85 zilindradako
motorren mailan eta Aratz Testa anaia gazteak ere lorpen bere eskuratu
du 65 zilindradako motorren sailean. Denboraldia amaituta, datorren
urtean erronka berria izango dute Eskoriatzako motorzaleek. Izan ere,
zilindrada handiagoko motorren gainean lehiatzen hasiko dira.

Eskoriatzak Jarrilleros taldearen aurka jokatu du

Bihar, zapatua, hirugarren mai-
la nazionalako Eskoriatza areto
futbol taldeak Jarrilleros talde-
aren kontrako neurketa izango
du, 18:30ean, Manuel Muñoz
kiroldegian.

Aurreko jardunaldian, Aurre-
ra Vitoria taldearen aurka gal-
du egin zuten Mikel Alkaide
entrenatzailearen mutilek (5-2).
Hala ere, hasierako helburuari
utsiz, hau da, mailari eustea,
saillapenean zazpigarren postuan
daude, eta goiko postuetara igo-
tzeko hiru puntuak eskuratu
nahi dituzte. Hala, Portugalete-
ko Jarrilleros taldearen bisita
izango dute etxean, eta kantxa-
ra dena ematera irtengo dira
eskoriatzarrek.

LEINTZ GATZAGA 23



Baserri baten ikuspegia Gatz Bidetik. JUAN LUIS ZABALA

Bizitokiak azpibanatzeko ordenantza jendaurrean dago

Egitasmoaren helburua udalerriko baserrien biziraupena
bermatzeko alternatiba bat planteatzea da

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Urriaren 28an, Gatzagako ohiko
osoko bilkura egin zuten udal-
batzako kideek, eta bertan, uda-
lerriko lurzoru urbanizaezineko
bizitegi-eraikinak etxebizitzetan
azpibanatzeko ordenantza arau-
tzailea hasiera batean onartzea
izan zuten hizpide. Gipuzkoako
Aldizkari Ofizialean argitaratu-
ta, aukera du nahi duenak erre-
klamazioak egiteko.


Ordenantza honen xedea da
Gatzagako udalerriko lurzoru
urbanizaezinean baserriak za-
titzea zenbait etxebizitzatan,
banaketa horizontalaren proze-

duraren bidez, eraikin horien
berezko ingurumen baldintzak
eta ezaugarriak zaindu eta man-
tenduko direla ziurtatzeko beha-
rrezko baldintzak eta neurriak
ezarri, besteak beste.

Gehienez, lau etxebizitza

Eraikin bakoitzak, gehienez, lau
etxebizitza izango ditu, eta ezin-
bestekoa izango da zatiketaren
ondoriozko etxe bakoitzaren
azalera eraikiak 150 metro ka-
rratutik gorako gutxienezko aza-
lata izatea, besteak beste; bal-
dintza teknikoak udal webgu-
neko ordenantzan daude ikusgai.

GORA ETA BEHERA



GARAZI OROBENGOA

Gaizki aparkatuta, molestutzen

Atari baten aurrean auto bat gaizki aparkatuta agertzen da
irudian, etxebizitzatik irteten edo sartu nahi duenari bidea
oztopatzen. Ez dela kasu bakarra adierazi du herritar batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Iritzi oso kontrajarriak Larramendiko plantaz

Larramendiko plantaren bueltako mahai-inguruak, ikusmin handia pizteaz gain, argi utzi zuen alde biak ados jartzetik oso urrun daudela eta aurreikusten dutela gaiak epaitegietan bukatuko duela; Jauralaritzaren alegazio epea hilaren 29an bukatuko da

Jokin Bereziartua BERGARA

Valogreene Paper BC enpresak paper fabriketako hondakinak tratatzeko Larramendin eraiki nahi duen plantaren bueltan San Juan, Ubera, Basalgo eta Buruñao auzoko bizilagunek antolatu zuen debateak argi utzi zuen bi aldeek diskurtsoak oso kontrajarriak direla. Antolatzaileak pozik daude debateak piztu zuen ikusminarekin, Seminari-xoa bete egin zen eta. Hori bai, auzotar moduan "oso kezkatuta" daude, eta lanean jarraituko dutela dio antolakuntzako kide Paul Aznalek: "4.700 alegazio inguru ditugu, baina kopuru hori edo 10.000 aurkeztu, berdin izango da. Horregatik, beste hitzaldiren bat antolatu nahian ari gara, Zubietako erraustegiak kaltetutakoren batekin, Gurasos elkartekoren batekin... Askok uste dute Udalak baimena indargabetu duenez proiektua gelditu dagoela, baina ez da hala. Arantxa Tapiak iradoki du lege bat ateratzea Udalen araudien gainetik, *denon ongizatearen* izenean... Legeak nahi bezala aldatzen dituzte".

4.700 alegazio batu dituzte

Mahaiaren alde baten Greene enpresako zuzendari Juan Jose Hernandez eta Greeneko opera-



Lepo bete zen Seminarixoa mahai-ingurua jarraitzeko. LARRAIZ ZEBERIO LEKUONA

zio-zuzendari Enrique Araez izan ziren. Beste aldean, berriz, Ekologistak Martxan konfederazioko hondakinen arloko arduradun Carlos Arribas egon zen, Nuria Arnedorekin batera. Hasieran, alde bakoitzak 20 bat minutu izan zituen proiektuaren gainean duen ikuspegiaren inguruko azalpenak emateko, eta ondoren, bertaratutako herritarrek idatziz helarazitako galderak erantzun zituzten; bereziki, Hernandezek eta Arribasek.

Ordu eta erdiko mahai-ingurua izan zen, eta askotariko datu

teknikoak eta balorazioak entzun ostean GOIENAKO kameraren erantzutera animatu ziren herritarren artean kezka zen nagusi. Proiektuaren gainean gehiago jakiteko denbora eta mahai-inguru gehiago eskatu zituzten batzuek, eta enpresak argibide gehiago eman behar dituela ere uste dute beste herritar batzuek. Proiektuari alegazioak jartzeko epea datorren astelehenean, azaroak 29, amaituko da; iritzia oso kontrajarriak dira, eta ez litzateke harritzekoa gaiak auzitegietan amaitzea.

"Auzitegietan amaituko duen itxura dauka"

CARLOS ARRIBAS
EKOLOGISTAK MARTXAN

Zergatik adierazi duzu pirolisia erraustea dela?

Legearen aldetik pirolisia erraustea da, baldin eta pirolisia lortzen dituzun produktuak erre egiten badira, kasu honetan bezala. Bi produktu lortuko dituzte, eta, azkenean, erre egingo dituzte.

Enpresa gezurretan aritu da?

Saiatu dira jardura nagusia izango dena mozorrotzen. Hori izan da euren taktika. Udalari gol bat sartzen saiatu dira,

jakinda, gainera, errausketaren aurka dagoen alderdi batek gobernatzeko duela. Eta ia lortu egin dute. Orain bertan proiektua zehaztu gabeko fase baten dago, baina Jauralaritzaren asmoa da tramitazioarekin jarraitzea; Udalaren baimenik gabe artxibatu egin beharko litzateke, baina gaiak auzitegietan amaituko duen itxura dauka. Iritzi oso kontrajarriak daude; auzitegiek esku hartu beharko dute.



L.Z.L.

"Gezurretan ari garela? Erabaki dezala epaileak"

JUAN JOSE HERNANDEZ
GREENE-KO ZUZENDARIA

Debatean esan duzu, besteak beste, pirolisia ez dela erraustea. Zergatik?

Teknikoki, errausketa material baten oxidazio osoa denez, beroa baino ezin da lortu. Pirolisia oxigenorik gabe eta tenperatura altuarekin egiten den eraldaketa da, non gasa eta ikatza lortzen den. Eta horri balioa eman dakioke. Pirolisia ez da erraustea.

Ondorio guztiekin etorri zarela diozu. Zer dela-eta?

Mahai-inguruan gonbidapena egin diet Carlosi eta gurera etorri nahi duen orori proiektua bertatik bertara ezagutzeko. Behar izanez gero, hobekuntzak ere egin ahal izango dira; prest gaude proiektuan edozein hobekuntza ezartzeko. Bestalde, gezurretan ari garela esan du [Carlos Arribasek]. Joan auzitegietara eta epaileak erabaki dezala. Ez dut batere beldurrik, guztiz kontrakoa.




L.Z.L.




PAUL AZNAL DEBATEAREN ANTOLATZAILEETAKO BAT

"Carlosi [Arribas] entzunda beldur handiagoa sartu zaigu. Enpresak ez du datu teknikorik eman; esan dutena eta ezereza, nahiko antzerako guretzat".



MAREN BELASTEGI DEBATEA JARRAITU ZUEN HERRITAR BAT

"Zalantza asko ditut, enpresa aurpegia garbitzera etorri da. Eredu osoa aztertu behar da; hondakinen arazoari denon artean egin behar diogu aurre".



AITOR KORTABARRÍA DEBATEA JARRAITU ZUEN HERRITAR BAT

"Legedia betetzeak ez du bermatzen ez dela kutsatuko. Enpresari erantzutera dator; soluzio merkeena nahi dute, gure osasunaren gainetik".

Udalaren alegazioak, Jauralaritzan

Udalak astelehenean, hilak 22, aurkeztu zituen Larramendiko plantari lotutako alegazioak Jauralaritzan. Helegiteak hirigintzari eta ingurumenari lotutakoak dira: "Hirigintzari dagokionez, indarrean dagoen Plan Orokorra ez du jasotzen hondakinen kudeaketarako azpiegitura erabilerririk, eta, beraz, ez dago Larramendi industrialdeko H partzelan onartuta. Bestetik, hondakinen kudeaketaren erabilera ere ez da bateragarria, erabilera osagarri bezala onartuta dagoelako, baina ez erabilera nagusi bezala". Ingurumen ikuspegitik ere ez dute ikusten: "Kontuan harturik zuhurtziaren printzipioa eta berme teknikoaren gabezia, gomendatzen da jardura ez baimentzea, gertu daude-eta etxebizitzak eta bizitegi-auzoak. Osatzeko edo zuzentzeko hainbat alderdi ere proposatzen dira".

Elkar ezagutu, elkar ikusi eta elkarrekin ikasi

Diputazioak finantzaturako elkarbizitza eta elkartasun programa baten bidez Ndank Ndank elkarteak Senegaldik ekarri dituen lau ikasle gazteen bisita oso emankorra ari da izaten, eta abenduaren 4ra bitartean beste hainbat ekintza egingo dituzte

Jokin Bereziartua BERGARA

Ndank Ndank elkarteak 2018a ezkerro dihardu elkarlanean Senegalgo Dionewar herriko Ceed Sangomar ikasle taldearekin, eta azaroaren 18tik Bergaran daude talde horretako lau gazte Debagoiena bisitatzeraz etorrira: Assane Sarr, Amina Sarr, Moussa Ndong eta Aissatou Coumba Ndiaye. Diputazioak finantzaturako elkarbizitza eta elkartasun programaren baitan etorri dira, eta Dionewarko biztanleen eta debagoienarren arteko elkar ezagutza, kulturartekotasuna eta lankidetzat bultzatzea ditu helburu elkarlanak. Abenduaren 4ra arte egongo dira Bergaran.

Hemen ikasitakoa han irakastera Hainbat ekitaldi, ikastetxe, enpresa eta erakunde bisitatu dituzte; eguaztenean, esaterako, Goienaren egoitzan izan ziren –argazkian–; bertan esan zuen Ndank Ndank elkarteak Mamadou Sarr-ek egunak "ederto" ari direla aprobetxatzen: "Ikasleak oso gustura daude, ekintza mordoa egiten ari dira. Kulturartekotasuna bultzatzeko eta elkarrengandik ikasteko aukera oso interesgarria ari da izaten". Aissatou Coumba Ndiaye ikasleak Goienara egindako bisitan azpimarratu zuenez, Debagoienan



Assane Sarr, Amina Sarr, Moussa Ndong, Aissatou Coumba Ndiaye eta Mamadou Sarr. J.B.

MAMADOU SARR: "OSO GUSTURA DAUDE IKASLEAK, AUKERA OSO INTERESGARRIA ARI DA IZATEN"

eta Euskal Herrian ikusi eta ikasitakoa bertakoei transmititzen saiatuko dira: "Hemen ikusitako guztia azaltzen saiatuko naiz; batez ere, hemen dagoen egoeraz pentsatzen duguna eta errealtatea oso ezberdina dela. Buel-

tatzeko aukera banu, zalantza barik etorriko nintzateke, gehiago ikasi ahal izateko".

"Txundituta" berdintasunarekin Ikasleak "txundituta" geratu dira gizarte honetan dagoen "berdintasuna" dela eta: "Gehien harritu nauena izan da gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna. Kanean ere, zaharrak eta gazteak, guztiak dira berdinak. Nork bere erritmoa dauka, eta bere lana, baina lan guztiak dira garrantzitsuak hemen; hori asko gustatu zait".

Bisita asko eta askotarikoak egitera

Hainbat ekintza egin dituzte: San Martzialgo buelta egin zuten; Aretxabaletako Etxe Zuri baserrian egon ziren, ogia eta gazta nola egin ikasteko; Euskal Herriko aizkolari txapelketako final ikusgarriaren lekuko izan ziren; Oñatiko Elkarzabal proiektua bertatik bertara ezagutu zuten; Fagor Industrial eta MU bisitatu zituzten; Aspace zentroa; Oxirondoko ludoteka; Ttakun...



Martitzenean ludotekan egon ziren, bertako umeekin jolasten. NDANK DANK

ZTB jardunaldiak: helburuak bete dituzte, "elkarlanean oinarrituta"

23 ekintza antolatu dituzte, horietako asko emanaldi bat baino gehiagorekin, eta gazteengan "indar berezia" jarrita

J.B. BERGARA

Zazpigarren urtez antolatu dituzten jardunaldiek helburuak bete dituztela adierazi dute antolatzaileek. "Aurreikusitako 23 jarduerak egin dira. Aurtengoari helburu zehatza ere jarri zitzaion: zientziaren eragin zuzena egunerokotasunean ikusaraztea eta jendeari zientzia gerturatzea, Bergaran eta Bergaratik kanpo". Horretarako, besteak beste, "sona eta prestigio handiko" hizlariak ekarri dituzte. Gainera, gazteengan "indar berezia" jarri dela diote: "Ikastetxeen bidez, arra-

kasta handia izan duten tailerrak egin dira. Adimen artifiziala landu dute, Laboratoriumeko tresneria ezagutu, hainbat gailu martxan jarri eta haien funtzionamendua ezagutu, ederki gozatu dute *scape room*-etan... Gainera, Encounterra berreskuratu da, eta bailarako ikerlari gazteak etorkizunaz hitz egiten jarri ditugu". Udalarekin eta Laboratoriumekin hamazazpi eragile aritu dira elkarlanean: "Elkarlana da jardunaldion balio erantsia". Jasotako materiala *ztbergara.eus* webgunean dago ikusgai.

Odol gehien ematen dutenei omenaldia egingo diete domekan

Bergarako Odol Emaileen Elkartearen urteko zita garrantzitsuetako bat izan ohi da emaila finkoei diplomak banatzea, urte osoko laguntza eskertzeko. Iaz, pandemiaren ondorioz, ez zen ekitaldirik egin, eta aurtengoa ere baldintzatuko du, ez da-eta jatekorik eta edatekorik egongo. Hala ere, aurten erabaki dute "ekitaldi txiki bat" egitea; dome-

kan izango da, azaroak 28, San Joxepe erretiratuaren elkartearen egoitzan (12:00). 2021ean emandako laguntza eskertzeko Bergarako hamasei emaila omenduko dituzte domekan; eman duten odolaren arabera, zilarrezko, urrezko edo emaila handien diploma jasoko dute. Bide batez, aprobetxatu dute San Joxeperi eskerrak emateko, domekako ekitaldia antolatzen laguntzagatik. Hurrengo ateratzea abenduaren 15ean izango da. Argibide gehiago: 747 42 99 20 (Dulce).

OHARRAK

Boni Laskurain kaleko gizarte etxea, zabalik

Gizarte etxeko ohiko zerbitzuak ohiko ordutegian emango dira, 09:30etik 21:00etara. Maskara une oro erabili behar da.

Euskararen gaineko saioa Artatse elkartearen

Háblame en cristiano esaten digute. Eta guk zer? izeneko saioa antolatu du Sortuk azaroaren 29rako: Ainhua Pardina –euskal hizkuntzalaritzan doktoregaia–, Urko Aierbe –Euskal Herrian Euskaraz– eta Alex Arteaga –musikaria– izango dira hizlariak.

Boluko balkoi eta leihoen apaingarri lehiaketa

Gabonetako apaingarriak jartzeko lehiaketan izena eman behar da abenduaren 11 baino lehen, Imaz harategian. Abenduaren 21era arte egingo dute balorazioa eta sariak abenduaren 24an banatuko dituzte, auzoko hiru tabernatan zehar, 13:00etan.

Ogitartekoak eta beste saltzeko furgonetak

2022an eta 2023an, ogitartekoak, patatak eta antzekoak saltzeko eskaerak azaroaren 29ra arte egin daitezke: www.bergara.eus.

Euskal presoen aldeko Azken Ostirala

Plazatik abiatuta (19:30), alde zaharra zeharkatuko dute.

"Amiantoaren aurrean, oztopoak dira nagusi"

AINHOA LARRAÑAGA AMIANTOAREN BIKTIMEN ALDEKO EKINTZAILEA

Amiantoaren eraginez sortzen diren minbiziak onartzeko Osakidetza eta instituzio publikoek ez dutela erraztasunik jartzen dio Larrañagak, oztopoak baizik

Imanol Beloki BERGARA

Hauts dokumentalaren estreinua egin zuten martitzenean Seminarioan. Ikus-entzunezkoa Ekhiotz Mancisidorrek, Omar Granak eta Iñaki Fernandezek egin dute, eta, proiektzioaren ostean, mahai-ingurua egin zuten, Ainhoa Larrañaga Huheziko irakaslearen, Javier Marques (ASVIAMIE) Amiantoren Biktimen Euskadiko Elkartearen presidentearen eta Jesus Uzkundun Amiantoaren Biktimen Euskadiko Elkartearen ordezkariaren laguntzarekin.

Gertutik jarraitu duzu lana, ezta?

Ni izan nintzen dokumentala egin dutenen gradu bukaerako ikasleen tutore akademikoa, eta bizi izan dudana ere nik eraman nuen proposamena. Talde honek egin zuen lana, eta, ekainean aurkeztu zuten arren, hedapena sasoi honetarako utzi genuen.

Celestino Tolosaren istorioa hartzen du abiapuntu dokumentalak. CAF enpresako langile ohia izandakoak asbestosiaren ondorioz birika transplante batean bizia galdu zuen.

"Bizi izan dudana", diozu; zergatik?

Nire aitak, Ricardo Larrañagak, 48 urtez egin zuen lan Bergaran, Arcelorren. Beti aipatzen zuen amiantoarekin lan egiten zuela, eta beldurra zuela izango zituen ondorioengatik. Aita oso osasuntsu zegoen, eta duela hiru urte gaixotzen hasi zen: azkurak gorputzean, argaltzen hasi zen, eta bi bulto atera zitzaizkion, bata lepoan eta bestea bular gainean. Hala, hainbat proba egin ondoren Arrasateko Ospitalean, biopsiaren emaitza izan zen birikitako minbizi aurreratu eta agresiboa zuela; lau hilabeteko bizi-itxaropena eman da. Gero, Txagorritxun hasi ginen tratamenduarekin...

Eta orduan zer egin zenuten?

Bergarako LAB sindikatukoekin elkartu nintzen, amiantoaz zer zekiten hitz egiteko, eta gero, Jesus Uzkundekin kontaktatu



Ainhoa Larrañaga Huheziko irakaslea. GOIENA

"NIRE HIPOTESIA DA AMAREN MINBIZIA AITAREN ARROPAK GARBITZETIK ETORRI ZELA, AGIAN"

nuen. Susmoa nuen gure aitaren heriotza amiantoarengatik izan zela, eta, aitari baimena eskatu nion tramiteekin hasteko; aurrera egiteko esan zidan. Martitzeneko mahai-inguruan behin eta berriz aipatu zen bezala, aitaren lehen diagnostikoan tematu ziren erretzailea izan zela adieraztea. Aitak oso gutxi erre zuen; gaztetan, soilik. Ondoren, Osalaneko teknikari bat etxera etortzea lortu genuen, balorazio bat egin zezan. Elkarriketaren emaitza izan zen gure aitak amiantoarekin lan egin zuela: alde guztietan zuen; oinetakoetan zuen amianto...

Hurrengo urratsa, prozedura administratiboarekin jarraitzea izan zen?

Donostian, tribunal medikua pasatzea izan zen, aitortzeko gaitza zela gaixotasun profesional bat. Hau da, lanbidearen ondorioz eragindakoa. Aita oso

gaizki zegoen, eta ez zuen esperantza handirik. Ez zen diruagatik, justiziagatik zen. Bertara iritsi, aita bakarrik sartu, eta non lan egin zuen ere ez zioten galdetu. Nik esan nion medikuari 48 urtez amiantoaz lan egin zuela aitak, eta berak erantzun: "Orain belauneko mina duzu, eta hori ere amiantoaren errua da".

Administrazioen aldetik lagundu beharrean, prozedurak oztopatzeko sentsazioa izan duzu?

Interesak daude enpresaren aldetik, Osakidetza aldetik... Aita urtebeteko prozesu gogor baten ostean hil egin zen 2019eko ekainean; ez zioten autopsiarik egin, eta hor geratu zen gaia. Gero, 2021eko uztailean, ama, Urrategi Elortza, minbiziarekin hil zen. Nire hipotesia da amaren minbizi, agian, aitaren arropak garbitzetik etorri zela. Bergaran ere badago kasu bat, Ceciaga familiarena. Andrea eta gizona asbestosiarengatik hil zirenak; amiantotik eratortzen den minbizi mota da. Medikuek aitortu zuen andreari minbizi arropak garbitzetik etorri zitzaioela, eta baliteke gure kasuan ere hala izatea.



Eguaztenean Irizar jauregian egindako solasaldian batutakoak. LAB SINDIKATUA

Lau galdera oinarri, solasaldia izan da, Igor Arroyok gidatuta

LAB sindikatuak antolatutako solasaldian 20 lagun inguru batu ziren, Bergarako Irizar jauregian

I.B. BERGARA

Greba orokorra zergatik eta zertarako izenpean, solasaldia izan zen eguaztenean Irizar jauregian, LAB sindikatuko idazkari nagusiaren ondoko Igor Arroyok gidatuta. Bertan, 20 lagun inguru batu ziren, eta, batez ere, lau galderaren inguruan berba egiteko aprobetxatu zuten hitzordua bertaratuek.

Jon Kirru Iparragirrek LAB sindikatuko Debaldea eskualdeko arduradunak adierazi duenez, azkenaldian bolo-bolo ari da Euskal Herrian greba orokor baten beharra, eta, datarik ez egon arren, grebarako arrazoiak ez direla falta adierazi du. Martitzenean, Irizar jauregian, galdera batzuei erantzuna bilatzea edo horietaz berba egitea izan zutela saioaren helburu adierazi du: "Gaur egungo mundu mailako egoera nola dagoen eta izan diren aldaketak, nola dau-

den beste jendarte eredu bat bilatzen duten gizarte eragile taldeak, pandemiak ekarri dituen aldaketak, eta aurrerantzean ditugun erronkak eta hartu beharreko norabidea izan dira, batez ere, berba izan ditugunak".

Gizarte eredu berria

Datozen hilabeteetan erabaki zorrotzak hartu beharko direla adierazi du Iparragirrek: "Batez ere, Europako funtsak direla-eta erabakiak hartu behar dira, guk nahi dugun norabidean joateko. Birbanaketaren diskurtsoan sakondu nahi dugu, beste gizarte eta produkzio eredu bat eratzeko... Bilatzen dugun gizarte eredu horretarako, burujabetza behar dugu, babes sozialeko esparru propioa, legedi propioa, gure lan kodea... Hori lortzeko pausoak eman behar ditugu egunerokotasunean".

Berdintasun Planean ekarpenak egiteko, galdetegia

Bergarako Udaletik jakinarazi dutenez, Berdintasun Planean ekarpenak egiteko aukera zabalduko zaie herritar guztiei, galdetegi baten bitartez.

Azken hilabeteetan, Bergarako Udaleko Berdintasun Arloak 2018-2021 urteetan indarrean egon den Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa gauzatu du, eta, une

honetan, datozen urteetan indarrean egongo den III. Planaren elaborazio prozesuan ari da lanean. Egunotan, herriko eragileekin -kolektiboak eta norbakoak- batera berdintasun plan berrian jaso beharreko erronka eta lehentasunak identifikatzen ari dira. Hori horrela, bergarar orori prozesu honetan parte hartzeko gonbidapena egin dio Udalak, galdetegi bitartez. Abenduaren 8ra arte dago *bergara.eus* webgunean dagoen galdetegi batetzeko.



Martitzeneko promesen mailako finalean, Barrocal pilota astintzeko puntuan. MIREIA BIKUÑA

Barrocalek bigarren urtez jantzi du txapela

2019an irabazitako Bergara Hiria torneoko txapelak Maddi Barrocal bergararraren buru gainean jarraituko du. Finalean, Enara Gaminderekin bikotea osatuta ondo menderatu zituzten Leire Galeano antzuolarra eta Mirian Arraiza (22-7)

Xabier urzelai BERGARA

Bergara Hiria torneoko finalak jokatu zituzten martitzenean. Ibarreko pilota-zaleendako promesen partidua zen interesekoa, bailarako bi pilotari izan zirelako zein baino zein gehiago, Maddi Barrocal bergararra eta Leire Galerano antzuolarra. Hala, Barrocalek eta Enara Gamindek nahiko erraz irabazi zuten Ga-

leanoren eta Mirian Arraizaren kontra (22-7). Galeanok berak partidu amaieran aitortu zuen nahi baino urduriago hasi zutela partidua, eta Barrocalek min egin ziela sakearekin. Horrekin batera, Barrocalek bikotekide indartsua izan zuen, Gamindek torneo osoan erakutsi du-eta maila politeko pilotaria dela.

Senior mailan, berriz, indarrak parean izan ziren. Amaia Aldaik eta Olatz Ruiz de Larramendik Olatz Arrizabalagaren eta Nora Mendizabalen aurka neurtu zituzten indarrak, eta azken horiek gailendu ziren (22-20). Norgehiagoka erdira arte, Arrizabalaga eta Mendizabal aurretik ibili ziren; Arrizabalagak min egin zuen bai sakez eta baita aurreko

koadroetan ere, baina partidua- ren bigarren zatian huts batzuk egin zituen eta Aldai jokoan sartzen hasi zen. Markagailuak 20-16 erakusten zuenean pilota aldatu zuten, eta hor egon zen Arrizabalagaren eta Mendizabalen garaipenaren gakoa.

Txapelketarekin pozik

Antolatzaileak gustura geratu dira aurtengo txapelketak eman duenarekin. "Lehenengo bi jaialdietan jende gutxi izan zen harmailetan, baina, egia esatearren, espero genuen hori. Finalean

oso giro polita izan da. Gainera, etxeko bi pilotarik torneoa jokatu dute, eta eurretako batek txapela jantzi du, Maddi Barrocalek. Partiduak oso lehiatuak izan dira eta norgehiagoka politak ikusi ditugu", adierazi du Julen Aramburuk.

PROMESEN MAILAKO FINALA (22-7) BAINO PAREKATUAGOA IZAN ZEN NAGUSIENA (22-20)

Zuri-beltzeko argazki onena

Bergarako Jose Agustin Gurrutxagaren *Jugando al tenis* erretratuak –ondoko argazkia– eta Arrasateko Aritz Gordoren *Primeras luces*-ek –Puntua aldizkarian ikusgai– irabazi dute Kirol Argazki Lehiaketa. "Mojá jantzita badago ere, erakusten du emakumezko kirolzale normal bat dagoela atzean", adierazi du irabazleak.



JOSE AGUSTIN GURRUTXAGA


Bigarren sailkatu Atletico hartuko dute saskibaloiko mutilek

Bergara Soralue taldeko mutilek Atletico San Sebastianen bisita izango dute domeka arratsaldean Labegarietan (16:00). Donostiarrak bigarren daude sailkapenean, partidu bakarra galduta. Bergararrak, berriz, taularen erdialdean daude, jokaturako zortzi partiduetatik erdiak irabazi eta gero.

Eskubaloian, lider dagoen Urola hartuko dute zapatuan


Soraluce BKEko mutilek gol bakarragatik galdu zuten joan den astean Egiaren kantxan, gutxigatik ez zituzten donostiarrak ezustean harrapatu, baina, tamalez, esku hutsik itzuli ziren. Zapatuan, berriz, kontrario gogorra izango dute aurrean, lehenengo postuan dagoen Urola etorriko da-eta Bergarara (13:00).

Bailarako protagonisten esanak

LEIRE GALEANO
ANTZUOLAKO PILOTARIA

"Galdu arren, pozik gaude egindako torneoarekin"

"Gure jokoa aurreko koadroetan oinarritu nahi genuen, baina ikusi da indarrez gu baino gehiago zirela, eta atzean jokatzera derrigortu gaituzte. Horrekin batera, Maddik min egin digu sakearekin. Oso sake ona du, eta zaila izaten da horiei erantzutea. Egia da partidua urduri hasi dugula, eta konturatu garenerako eurek abantaila hartu dute. Gero, partidu erdian lasaitu egin gara eta aldea txikitu dugu. Finalarekin ez, baina torneoarekin pozik gaude".

MADDI BARROCAL
BERGARAKO PILOTARIA

"Etxeko zaleen aurrean irabaztea ederra da"

"Bagenekien Mirenek eta Leirek bikote indartsua osatzen dutela, eta ez genuen final erreza aurreikusten, baina oso pozik gaude egindako partiduekin. Enarak atzean sekulako segurtasuna ematen du, eta nik aurrealdean ere min egin dudala uste dut. Oso pozgarria da etxeko torneo irabazi ahal izatea, eta orain, Emakume Master Cup txapelketan jarriko dut indarra. Egubakoitzean [Gaur] daukat finalerdietako partidua, eta ea finalerako sailkatzen naizen; ederra litzateke".

Etxezarreta eta Heriz, Irazokirekin kontzertuan

Seminarixoa eskainiko dute kontzertua gaur, 20:00etan. Leire Etxezarreta eta Pello Herizekin batera Joseba Irazoki Eta Lagunak taldea izango da taula gainean. Berako gitarra-joleak eta bere taldeak irailean kaleratutako azken lana aurkeztuko dute

Jone Olabarria BERGARA

Bailarako musikarien doinuez gozatzeko aukera egongo da gaur iluntzean Seminarixoa, 20:00etan hasita. Joseba Irazoki Eta Lagunak ekimenak bat egingo du Leire Etxezarretaren ahots goxoarekin eta Pello Herizen ahots apurtuarekin.

Elkarrengandik ikasten

Orain dela gutxi hasi dira elkarrekin entseatzen Etxezarreta eta Heriz. Hala azaldu du GOIENAKo *Akordeak* musika saiorako egindako elkarriketan. Dena den, aspalditik *fitxatuta* zuela aitortu du Etxezarretak: "Eskarmentua du musika kontuetan, talde askotan ibilitakoa da. Batak besteari egindako doinuak edo idatzitakoak erakusten dizkiogu eta bion artean osatzen ditugu gero. Elkarrengandik asko ikasten gabiltzala iruditzen zait".

Etxezarretak berak ere esperientzia zabala du taula gainean. Kepa Junkera Eta Sorginak taldearekin aritu ostean, Neomak taldeko kidea da gaur egun eta bakarlari modura ere hainbat emanaldi egin ditu.

Talde erreferenteak

Lugaritzeko Kultur Etxeak proposatutako kontzertu batetik



Etxezarreta eta Heriz entseguan Arrasateko gaztetxean. GOIENA

"BATAK BESTEARI EGINDAKO DOINUAK ERAKUSTEN DIZKIOGU, ETA OSATZEN DITUGU OSTEAN ERE"

sortu zen Joseba Irazoki Eta Lagunak proposamena. Irazokiz gain, Ibai Gogortza, Jaime Nieto eta Felix Buff dira proiektuko kideak. Denek batera egindako disko batek "harrera ona" izan zuelakoan, lanean hasi eta

dagoeneko kaleratu dute hiru garren lana: "Album honetako kanta, berez, gehienbat riff gisara jaio ziren. Talde-soinua izango zuen zerbait egin nahi genuen, Euskal Herrian beste talde batzuk -Gora Japon, Jupiter Jon eta Borrokan- egiten ari zirenaren antzekoa.

Sarrerak, eskuragarri

Kontzertua zutik izango den arren, harmailak egongo direla jakinarazi dute Seminarixotik. Sarrerak www.seminarixoa.eus webgunean erosi daitezke.

Bergarako Txistulari Bandaren San Zeziliako kalejira domekan

10:00etan hasita, erdiguneko kaleak musikatuko dituzte txistuaren doinu alaiek eta danbolin kolpe leunek

J.O. BERGARA

Musikarien Egunaren harira, Bergarako txistulari bandako kideak kalejiran arituko dira erdialdeko kaleetan zehar domekan, 10:00etan hasita. Askotariko doinuak plazaratuko dituzte, eta, gainera, kaleetako ibilbidea amaitzerakoan, Seminarixoa egun berean egingo duten Bikote Gazteen Euskal Herriko Dantza Askatu Txapelketan ere izango dira, 12:30ean.

Ohiko erreperitorioa

Txistuaren doinu alaiek eta danbolinaren kolpe leunek herriko kaleak hartuko dituzte, eta "gogotsu" agertu da Jose Miguel Laskurain, Bergarako Txistulari bandaren zuzendaria: "Badaramagu tartetxo bat dagoeneko berriro ere kalera irteteko aukera dugula txistu eta danbolinarekin, eta, egia esanda,



Emanaldia osoko bilkuren aretoan. I.S.

asko eskertzen dugu. Bestela ere, ohiko moduan, osoko bilkuren aretoan jarraitzen dugu emanaldiak egiten. Domeka honi dagokionez, Santa Zeziliaren omenezko kalejira izango da eta gure ohiko erreperitorioa eskainiko dugu".

Arragoa taldea, San Juan auzoko ermitan zapatuan

San Juan auzoaren garapenerako Obieta elkarteak antolatuta, Arragoa folk taldeak kontzertua eskainiko du bihar San Juan auzoko ermitan, 18:30ean hasita. Doako emanaldia izango da, eta, bertara joan gura duten herritarren gozamenerako, Bergarako bi familiak osatzen duten taldeak folk doinuak oinarri izango dituen emanaldia egingo du.



GOIENA

'III' diskoa, irailean estreinatutakoa

Berako gitarra-joleak bere taldearekin irailean kaleratu zuen *III* diskoa zuzenean ikusteko aukera izango dute Seminarixora joaten diren herritarrek. Musikalki aurreko bi diskoen nahasketa dela zehaztu dute, rock ukitua duten kantuak esperimazioarekin nahastuta. Musika doinu guztiak Irazokirekin dira, baita diskoko hitz gehienak ere.



Joseba Irazoki Eta Lagunak taldea, Arrasateko gaztetxean. KOOLTUR

Katarsia eta Nowsky, kontzertuan gaur Zubitzako eskolan

Deba bailarako kontseilu sozialistak antolatutako ekimenaren baitan, musikariengan protagonismoa jarri eta kontzertuak izango dira gaur gauean, egubakoitza, Zubitzako eskolan, 22:00etan hasita. Hain zuzen, bertan izango da Maider Guridik, Irati Olabarriak eta Olatz Alberdik osatzen duten Katarsia taldea, eta Nowsky.

Zineklubaren baitan, 'El verdugo' filma ikusgai eguaztenean

Luis Garcia Berlanga zinema zuzendariaren *El verdugo* filma izango da ikusgai, asteon, ZinemaOn zineklubaren eskaintzaren baitan, abenduaren 1ean, 20:00etan. 1963. urteko filma "heriotza-zigorren aurkako alegaturik onenetakoa" da, umore beltzeko komedia oinarri. Sarrerak, hiru eurotan, seminarixoa.eus-en edo leihatilan.



Ehundu dinamikaren aurkezpen ekitaldiko irudi bat, Seminarixoa. GOIENA

Nork bere alea jarrita, herri baten komunitatea eraiki

Bi helduleku nagusi ditu Ehundu dinamika: herritarren zerbitzura dagoen eta Udalaren eta komunitatearen arteko zubi-lana egitea helburu duen bulego fisikoa; eta tokiko eragileen arteko elkarlanean oinarritutako herri dinamika amankomuna

Bergara plural, inklusibo, jasangarri, feminista, eraldatzailer eta ekintzailea helburu eta oinarri duen proiektu komunitario, integral eta iraunkorra da Ehundu herri dinamika, protagonismoa eta erabaki ahalmena herritarrengan lagata.

Hain zuzen, komunitatearen beharretatik sortutako erantzuna da Ehundu: pandemiak

agerian utzi zituen aurretik ere gizartearen zeuden hainbat behar, eta horiei erantzuna eman eta baliabideak errazteko ahalegin berezia egin du Bergarako Udalak. Bide horretan, ezinbesteko heldulekuak dira herritarren eskura egongo den bulego fisikoa eta pertsonen arteko lankidetzaren oinarri duen herri dinamika.

Bulego fisikoa, oinarri

Mizpildi kalean kokatuta, komunitatearen beharretan laguntzeko lanabesa izango da bulegoa, herritarren zerbitzura, eta Udalaren eta komunitatearen arteko zubigintza egiteko. Herritarrengana iristeko bitarteko eta tresna berritzailea izan nahi du, herritarren entzuteko espazio bat, harremanak saretzeko.

Eraldaketa zerbitzu konkretuak eskainiko dituzte bertan, esaterako, merkataritza erreleboa eta proiektuen eta pertsonen arteko sinergiak bideratzea. Horretarako, Olatukoop-en laguntzarekin, formakuntza, ekintza eta harremanen bidez elkarlan publiko-kooperatiborako heziketa sustatuko dute herrian. Ekonomia sozial eraldatzailean oinarritutako proiektuak bideratzeko eta sustatzeko hazitokia izango da.

Eragileekin elkarlanean

D2030 ekimenari esker, eragile-lurralde-ezagutza-dinamika batzuekin konektatzeko aukera egongo da, eta energia burujabetzari lotutakoen aholkularitza Goienerrekin batera landuko dute. Esaterako, pobrezia energetikoan dauden familia zaurgarriari aholkularitza eta argindarraren fakturen irakurketa egiteko tailerrak eskainiko dituzte.

Ostean, egindako lana sistematizatu egingo dute, hedapenerako euskarrietan biltzeko ardura Mondragon Unibertsitatearen eta Lankiren esku lagata.

Herri dinamika, indargune

Ehunduren bigarren heldulekua herri dinamika da. Hain zuzen, bakoitzaren pribilegioak alde batera utzi eta denon artean lan egiteko momentua delako, herri logika zabal bat eraikitzeke planteamendu inklusibo eta aberatsaren bidez.

Tokiko eragileen arteko proiektu amankomuna da Ehunduk proposaturiko herri dinamika. Eragile, komertzio, elkarre, enpresa eta norbanakoz osatuta dago, nork bere baliabideetatik, bakoitzak ahal duena eskainiz: ezagutza, denbora,

dirua, espazioak, lana, poza... Tradizio eta potentzial komunitario handiko herriaren adibide da: elkartuz gero indarguneak eraikitzeke gai den herria, eta eraikitzen jarraituko duena.

Hamaika ertz dituen proiektua

Azken hilabeteetan argia ikusi badu ere, maiatzetik hona askotariko proiektuak landu dira, bai herriko eragileekin elkarlanean eta baita Bergarako Udalarekin.

Alde batetik, energia komunitateak bultzatzen hasiak dira, elikadura mahaitik lantalde eta prozesu ezberdinei hasiera eman zaie... Bestetik, askotariko hariei tiraka, proiektu berriak iritsiko dira: teknologia, kultura, hezikuntza, etxebizitza, zaintza...

Ehundu formakuntzak

Etorkizuneko Bergara eraikitzeke, ikasturte osoan jarraituko dute dinamikaekin. Ehundetan lanetan lagunduko duten formakuntza saioak ere aurreikusten dituzte 2022ko udaberrian. Eta, nola ez, herritarrek proposatzen dutenari erantzuna eman eta gauzatzeko gogoz.

NORK BERE PRIBILEGIOAK ALDE BATERA UTZI ETA DENON ARTEAN LAN EGITEKO UNEA DA

KOMUNITATEAREN BEHARRETAN LAGUNTZEKO LANABESA IZANGO DA BULEGO FISIKOA

ehundu / herri dinamika

Norberak badu bere haria korapilo honetan

(feat. Martxel Mariskal)



Basilio Ormazabal eta Beñardo Kortabarria, Goiena telebistako platoon. M.A.

HAPO, Errekalde auzoa eta bidegorria berbagai

Olaran kultura etxeko obra, bidegorria, ur-zikinen kolektorea, HAPO eta, nola ez, COVID-19ak Udalari eta Antzuolako herriari nola eragin dion; horien hguztien gainean berba egin dute Beñardo Kortabarriak eta Basilio Ormazabalek 'Harira' saioan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako alkate Beñardo Kortabarria eta EAJko bozeramaile Basilio Ormazabal Goiena telebistako *Harira* saioan izan ziren, martitzenean Agintaldi erdira heldu berri, argi utzi du Antzuolako alkateak pandemiak baldintzatutakoa izan dela.

"Pandemiak denok jokozen kanpo harrapatu gintuen; badakigu

alkateak une gogorak igaro dituela, eta paper ona egin duela deritzogu. Hartu dituzten erabaki batzuk, ordea, ez ditugu ulertu. Batetik, udal funtsa jaitsi egin zen eta iazko inbertsio handienak, Olaran eta HAPO, atzeratu egin dira. Orain ari gara horren atzerapena ordaintzen. Dena itxita zegoenean, obra egiteko unerik onena zen. Orain,

ikasturtea horretan joango zaigu. Bestetik, San Joseko gunean gazteak batzen dira aisialdirako, eta Udalak epel jokatu duela uste dugu", dio Ormazabalek.

Alkateak dio pandemia kudeatzeko "zailtasuna eta sufrikarioa" igualekoa izan dela Bilboko Udalean nahiz Antzuolakoan. "Kalean gazteak eta ez horren gazteak ibili dira. Errudunak

bilatzen jardutea ez da osasuntsua; gu elkarrizketaren aldekoak gara, eta gazteekin, erretiratuekin, eskolarekin eta elkarrekin batu gara pandemiak eragin dituen egoera bereziei aurre nola egin aztertzeke. Antzuolan gerturatukoa herri guztietan gertatu da".

Olarani dagokionez, alkateak azaldu du bi urtetan egiteko planteamendua zegoela. "Abenduan zen amaitzekoa, baina material hornidurarekin zailtasunak ditu enpresak. Hala, gehieenez, urtarrilaren 31ra arte izango du lanak amaitzeko. Olaranen zeuden taldeak eta ikastaroak kokatzeko sekulako lana egin genuen, gainera".

Errekalde auzoa

Errekalde duintzeko parte hartze prozesua ere abian da. "Auzoak zikin itxura dauka, eta aparkatzeko leku bilakatu da. Parean dagoen Lazaretoko etxea ere ahaztuta dago, 113 urteko etxea da, eta babes ofizialeko etxeak egiteko proposamena dugu esku artean", esan du jeltzaleak. Errekalde auzoaren konplexutasunaz jardun du alkateak: "Auzoak Deskarga eta Irain erreka ditu albo banatan; eta beste aldean errepidea. Oraingoz, auzotarrekin batu gara, zertaz berba egin behar dugun adosteko. Abenduan diseinua finduta, bilera irekiak egingo ditugu, Errekalde auzoa guztion artean duintzeko".

Hirigintza Plan Orokorra

HAPO herritarren parte-hartzearekin egingo dute. "Plan orokorrak parte-hartze bidez erabakiko du eremu bakoitza zertarako erabiliko den. Iruditzen zait dagoen industriari eutsi behar diogula, eta etxebizitza

merkatua astindu, alokairuzko etxebizitza sozialen aldeko apustua eginez. Etxebizitzak hutsik ditugu, eta berriak garestiak dira", dio alkateak. Plan Orokorra ibaia aprobetxatuta igerilekua egiteko aukera bat eman go lukeela ere badio. Jeltzaleak ere azken ideiarekin bat egin du: "Udalaren egoera ekonomikoa ona da, eta igerilekua egiteko unea orain dela uste dugu. Udala ekonomikoki osasuntsu izanik, txikira jokatzen duela uste dut. Horregatik, Sagasti eta Antigua lotuko dituen bidea egiteko unea ere orain da".

Ur-zikinei irtenbidea

Adostasun osoz, biek ala biek, bai ur-zikinen kolektorea eta baita ere bidegorria Bergararaino egitea nahiz trenbideko bide berdea konpontzea beharrezkoa dela deritzote. "Azken ordua da bidegorriaren azken zatia proiektuaren idazketa esleitura dagoela. Teorian, proiektuak eginda egon behar du, eta 2022an gauzatu", nabarmendu du alkateak. "Ez da normala ur-zikinei irtenbiderik ez ematea. Konponbide integrala behar du, eta Bergarako bidegorria egitean etorriko da irtenbidea: ura, gasa eta bidegorria behingoz edukitzea, alegia", dio Ormazabalek.

Era berean, trenbide zaharretako Jauregiko tunela ia bi urtez erorita dagoela salatu dute. "Tunela konpontzeko lizitazioa irailan ateratzekoa zen Aldundia, eta Udalak oraindik ez daki ezer".

HIRIGINTZA PLAN OROKORRA HERRITARREN PARTE HARTZEAREKIN ABIATUKO DUTE

Florentino Lamariano herriko azken errotaria hil da

88 urte zituela hil zen azaroaren 21ean, domeka, Florentino Lamariano, Antiguako errotaria

M. A. ANTZUOLA

Azaroaren 21ean hil zen, 88 urte zituela, Florentino Lamariano Agirre, Antzuolako azken errotaria. Lamariano (Antzuola, 1933) errotarri artean hazi eta hezi zen. GOIENArekin Antiguako

errotaren funtzionamenduz eta zaintzaz makina bat bider jardun zuen, bere ezagutza komunitateari zabaltzeko asmoz.

Irausta baserrian, bere jaiotetxean, ez zeukaten errotarik, baina bere hiru koinaturen ar-

tean errota bat hartuta zeukaten, eta umetan bertan ikasi zuen ofizioa. Okin beharrean Eibarren aritu zen, harik eta 1960an Antiguako errota erosi zuen arte. Bertan garia ehotu, ogia egin eta banatu egiten zuen, bere emaztearekin batera. Beste okin batek bakarrik egiten zion kompetentzia Antzuolan. Lamarianok GOIENArekin egungo okinen egoeraz ere jardun zuen. Horrez gainera, herriko ikasleei errotari lanak azaltzen ere ibiltzen zen, maiz.



Florentino Lamariano, Antiguako errotaren alboan. GOIENA



Abiatu txartela eskuratzeko informazio gida. M.A.

26 Abiatu gailu eskatu dira bulegoan azaroan

Abiatu gailuari buruzko informazioa edota tramitazioa egiteko azken aukera izango dute antzuolarrek abenduaren 13an, astelehena. Orain arte, 26 gailu tramitatu dira aurrez aurreko arretari esker, eta, guztira, 501 gailu daude erregistratuta Antzuolan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Abiatu gailu telematikoa buruzko informazio kanpaina martxa onean doala adierazi dio Aldundiko Mugikortasun Sailak GOIENARI. Abiatu gailuari buruzko informazioa banatzen dihardute oraindik ere Antzuolan eta Bergaran; hala ere, dagoeneko orain arteko datu batzuk jakinarazi ditu Gipuzkoako Aldundiak. Hala, azaroan egingako informazio kanpainei esker, Antzuolan 26 Abiatu gailu telematikoren eskaera tramitatu dira. "Urriaren 18tik azaroaren 21ra arte, antzuolarren 26 eskaera berri erregistratu dira. Horietatik %74k online eta %26k eskuorria beteta", azaldu du Bidegik. Guztira, Antzuolan 501 Abiatu gailu daude indarrean.

Bergaran, aldiz, tarte berean, 87 eskaera berri erregistratu dira. "Horietatik %76k online eskatu dituzte eta gainontzeko %24ak paperean egin du eskaera". Guztira, Bergaran 3.474 Abiatu gailu daude indarrean.

Antzuolako bulegoan azaroan egon diren Bidegiko teknikariek azaldu dutenez, asko joan dira informazio eske: "Denetarik dago, baina gehientsuenek lanerako erabiliko dutela adierazi digute".

Azken txanpa

A-636 autobidetik gertu dauden eta teleordainketa gailurik ez duten biztanleei bideratutako kanpainak abenduan ere informazioa helaraziko die herritarrei. Azken aukera hori abenduaren 13an, astelehena, izango dute antzuolarrek. Bergaran, berriz, abenduaren 14an eta 15ean izango dira Bidegiko langileak informazioa eskaintzen.

2022ko urtarriletik aurrera ordaindu beharko da gaur

501 ABIATU GAILU ELEKTRONIKO DAUDE ANTZUOLAN ERREGISTRATUTA, ORAINGOZ

egun doakoa den Bergara eta Beasain arteko A-636 autobidea erabiltzeagatik.

Abiatu gailua eskuratzeko dei egin die Foru Aldundiak erabiltzaileei, deskontu "nabarmenak" lortzeko eskubidea ematen duen gailu bakarra dela gaineratuta. Gailuak berak 7 euroko mantentze zerbitzua izango du urteko. Abiatu gailuarekin beherapen progresiboak lor daitezke: %25etik %75era bitartean, hilean egiten den ibilbide-kopuruaren arabera. Gutxienez, hilabeteko sei igarotze egin beharko dira deskontua lortzeko. Gainera, hilean 33,37 euroko gehieneko gastua izango du Gipuzkoako autobideetan, 49,30 eurokoa Bizkaiko AP-8an eta Arabako AP-1ean. Espainiako, Portugalgo eta Frantziako autobide guztietan eta baimendutako aparkalekuetan ere erabili daiteke Abiatu. Gailu telematikoa Bidegiren webgunean ere eska daiteke: www.bidegi.eus.

Eskolarako eta pilotalekurako atezaina behar du Udalak

Interesa duten antzuolarrek Lanbiden eman behar dute izena azaroaren 29a baino lehen, astelehena

M.A. ANTZUOLA

Antzuolako Udalak eskolako eta pilotalekuko atezain lanpostua osatu nahi du. Egin beharreko zereginen artean hauek daude: eskolako eta pilotalekuko ateak zabaltzea eta ixtea, alarmaz arduratzea, argi, ur eta berotze instalazioak kontrolatzea, pilotalekua eta ikastetxea zaintzea eta, bereziki, ikastetxean eza-gutza espezializaturik eskatzen ez duten mantentze-lan txikiak egitea –zurgin, iturgin, argiketari, pintura eta garbiketa lanak–. Kategoriaren arabera Udalak

bestelako zereginak betetzea agindu dezake. Horrez gain, udal-langileen taldeak laguntza behar duen aldiro, hura ere eman beharko du. Baloratuko da, berriz, argiketari, igeltsero, iturgin, arotz, margolari eta teknologia berrietan esperientzia ziurtatua izatea.

Bete beharreko baldintzen artean daude eskola-ziurtagiria edo baliokidea izatea, euskaraz jakitea eta Antzuolan erroldatuta egotea.

Izena Lanbiden eman behar da, hilaren 29a baino lehen.

Plaka fotovoltaiakoak jartzeko aukera dute herritarrek

Argindarraren gaia pil-pilean dagoen honetan, autokontsumo taldeak sortzen laguntzeko helburuarekin lanean dihardu Udaleko Baliabide Naturalen Kudeaketarako Lantaldeak. Hala, plaka fotovoltaiakoak jartzeko interesa duen edonor lantaldearekin harremanetan jarri daitekeela jakinarazi dute hirigin-tza@antzuela.eus helbidean.

Gaske txokoak hasiera emango dio ikasturteari, bihar

Gaske txokoak jardueri hasiera emango die bihar, zapatua. "Lehenengo ekintza gisa, aurkezpen dinamika bat egingo dugu gazteekin eta 16:00etan, Herriko Plazan batuko gara; eta bertan azalduko dizkiegu dinamikaren nondik norakoak". DBH 1 eta DBH 3 arteko gazteak daudela gonbidatuta azaldu du Zumaia Elkoro koordinatzaileak.

GORA ETA BEHERA



Herriko Plaza, plastikoz beteta

Astelehen eguerdian, plaza plastikoz beteta zegoen. Herritar batek batu zituen, eta 50 metrora dagoen edukiontzi horira eramane zituen. Arduraz jokatzeko eskatu die herritarrei.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Indarkeria matxista irmo salatzeke urteroko zita

'Aski da' zioen pankartaren atzean eta 'Emakumeon kontrako biolentziarik ez!' lelopean elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek atzo, plazan. Herri Eskolan eta ludoteka zerbitzuan ere sentsibilizazio ekintzak egin dituzte egunotan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Indarkeria matxista estrukturala dela salatzeke eta 2003a ezkerro Euskal Herrian 112 emakume eta 11 ume hil dituela gogora ekartzeko –aurten bost hilketak izan dira– kontzentrazioa egin zuten hainbat herritarrek atzo iluntzean. Biolentzia matxista isilpeko errealitatea da kasu gehienetan; izan ere, biktimek lotsa, babesgabetasuna eta ez sinisteko beldurra sentitzen dute. Erasoak ez da inoiz jasaten duenaren erantzukizuna, erasotzailearena baizik, eta laguntza premian daudenek erabilgarri dute doakoa den telefono bidezko arreta zerbitzua, 900 84 01 11 zenbakian.

Halakoak gogora ekartzeko eta indarkeria matxistaren arazoa gizarteratzeko da Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna. Udalak deitutako kontzentrazioa izan zen, eta herriko emakume taldeko kideen parte hartzearekin antolatu zen.

Eskolan ere betaurreko moreak

Herri Eskolan ere aldarrikapen eguna ez da oharkabea pasa. Ikasleen adinera egokitutako ekintzak egin dituzte, astean zehar, ipuinak eta bideoak erabiltuta. "Gela guztietan margotu ditugu betaurreko moreak, eta



Indarkeria matxistaren kontrako ikurrak. L.Z.L.

PLAZAN EGINDAKO ELKARRETARATZEAZ GAINERA, ESKOLAN ETA LUDOTEKAN ERE LANDU DUTE GAI

landu dugu horren esanahia. Horma-irudi erraldoia ere egin dugu betaurreko moreekin eta tratu onak adierazten dituzten irudiekin", azaldu dute zuzendaritzatik. LH-5 eta LH-6ko ikasleek eta irakasleek Ara!Gorputz

taldeko kideekin hilerokoari buruzko tailerra egin zuten eguaztenez. Morea da eskolako jertsea eta kolore moreko arropekin bertaratu ziren ikasle, irakasle eta langile ugari atzo.

Berdintasunaren txoriak

Ludotekako erabiltzaileek ere landu dute gaia. *Berdintasunak indarkeria ezabatuko du* esaldia oinarri hartuta apaindu zuten espazioa. Askatasunaren eta berdintasunaren txoriak egin zituzten; origami txoriak, hain zuzen ere.



ELGETAKO LIBURUTEGIA

Maren Ubera eta Irargi Ortuzar

Elgetako liburutegiak urrian zehar 5 eta 16 urte arteko gazteendako egindako marrazki lehiaketak baditu irabazleak. Gaia zen *Irakurtzeko txokoa*, eta Maren Ubera Hernandezen eta Irargi Ortuzar Ezpeletaren marrazkiak aukeratu ditu Arrasateko liburutegiko langileek osatutako epaimahaiak. Liburu bana eta marrazteko materiala jaso dituzte opari.

Iraitx Lazkano eta Aintzane Oiarbide, 'Harira' saioan

Goiena telebistako *Harira* saioan izango dira datorren martitzenean, hilak 30, Iraitx Lazkano (EH Bildu) eta Aintzane Oiarbide (EAJ). Alkateak eta oposizioako bozeramaileak askotariko gaiak izango dituzte mahai gainean. Besteak beste, Udalaren egoera ekonomikoa, berriki egindako lanak, etorkizuneko proiektuak... Herriz herriko

mahai-inguru saioa da *Harira*, eta Eneko Azkarate eta Goiatz Arana kazetariaren gidaritzapean egiten da. 21:00etan eta 23:00etan izango da ikusgai Goiena telebistan, martitzenean.

Herritarrek ere izango dute gaiak edo galderak proposatzeko aukera. Posta elektronikoz helarazi daitezke galdera horiek: berriak@goiena.eus; eta baita ere Whatsapp edo Telegram bidez: 688 69 00 07. Ekarpenak egiteko azken eguna azaroaren 28a da, domeka.

PILOTA TXAPELKETA

EMAITZAK

NESKAK PALA TXAPELKETAN

Naiara Cap - Irune Errasti / Uxue Larrea
- M.A. Zeziaga **18-09**

Iratxe Bravo - Patricia Abella / Maitena
Mañarikua - Irune Diaz **08-18**

MUTILAK PILOTA TXAPELKETAN

Sergio Bouzas - Oskar Sarasua / Etor
Zubiaurre - Aitor Elkoro **17-18**

Diego Cantabrana - Mikel Beretxina /
Eneko Ormaetxea - Txomin de Vega **18-05**

Andoni Elorza - Unai Andres / Iban
Retolaza - Mikel Elkoro **18-15**

PARTIDUAK

AZAROAK 26, BARIKUA

18:00 Partiden hasiera frontoian.

OHARRAK

Ipuinak liburutegian

Liburutegiko ipuin kontalari taldearen eskutik ipuin kontalari saioa Haur Hezkuntzako 3 eta 4 urteko neska-mutikoendako, 17:15ean.

Ozkarbiko loteria


Eskatutako dezimoak jasotzeko aukera gaur 18:00etatik 19:00etara, eta domekan 12:00etatik 13:00etara, elkartean.

Koko-batzea: batzarra

Inauterietako koko-batzea antolatzen jarraitzeko batzar irekia deitu du Goibeko elkarteak eguaztenerako, abenduak 1. Ozkarbi elkartean izango da batzarra, 19:00etan.

Askotariko emakumeak irudi bakarrean

Azaroaren 25eko ekintzen barruan, horma-irudia egin du *Larrago* artista antzuolarrak Bolatokian. "Berdintasunaren inguruan horma-irudi bat egitea zen Udaletik jasotako proposamena, eta erabaki nuen berdintasunaren ikurrarekin batera emakume guztiok bat sortzen dugula irudikatzen duen irudi bat egitea, gai honek guztioi eragiten digulako".



Ione Larrañaga *Larrago*-k egindako horma-irudiaren zati bat. L.Z.L.

"Garrantzitsua da 'Elgeta', kariñoa dio jendeak"

Pertsonaiaren ezaugarriengatik eta herri mailan duen garrantziarengatik 'Sasi artean Elgeta' komikiak eskuetatik ihes egin diela azaldu zuten Izagirrek, Fanok eta 'Garluk'-ek domekan, hilaren 28an, Espaloia kafe antzokian

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Koldo Izagirre, Dani Fano eta Ekaitz Agirre *Garluk* Elgetan izan ziren domekan, *Sasi artean Elgeta* komiki-albuma aurkezten. Bi urteko lan prozesua dago Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilaria protagonista duen argitalpenaren atzean. Epe horretan askotariko zalantzak, eztabaidak eta elkartrukeak izan dira lantaldea osatu duten hiru lagunen artean. "Komiki-gintzak baditu bere ezaugarriak. Hori, behintzat, ikasi dut", zioen gidoilari lanak egin dituen Izagirrek. "Eta *Elgeta*-ri buruz dakiguna oso interesantea da, baina interesanteagoa da, akaso, ez dakiguna".

Komikia, elipsearen formatuan

Komikia ez da nolanahiko formatua. Adi irakurtzea eskatzen du, eta, neurri batean, irakurketa horretan gutxieneko entrenamendu bat. "Irudietan ematen den informazioak besteko garrantzia dute bineten artean daude hutsune zuriek", azaldu zuen Fanok. "Elipseak dira, eta espazio horiek ere irakurri egin behar ditu hartzaileak". Horrekin lotuta, *Garluk*-ek gaineratu zuen: "Komiki batek bi edo hiru irakurketa eskatzen ditu, eta arretaz egin beharreko irakurketak dira".



Koldo Izagirre, Dani Fano eta Garluk, domekan, Espaloian. IMANOL SORIANO

Gerra aurreko tokiko euskara

Hizkuntzaren trataerak ere arreta berezia eskatu du. "Nola jorratu euskara batuaren aurreko Eibarko hizkera?", planteatu zien aurkezpenera bertaratukoiei Izagirrek. Bere kabuz saiatu izana aitortu zuen, baina kapitulu berri bat argitaratu orduko iristen zirela zuzenketak. "Eibarko Badihardugu Elkartearen laguntza kontratatu genuen. Asier Sarasuak eta Aintzane Agirrebeñak lan handia egin dute, eta asmatu dute. Istorioak irabazi du sinesgarritasunean".

'Elgeta'-k jotako piezak

Adolfo Jainagak hiru pieza jo zituen ekitaldian. "Sasoi hartan, bi motatako trikitilariak zeuden: soltean dantza egiteko bakarrik jotzen zutenak eta lotuan egiteko ere jotzen zutenak. *Elgeta* bigarrenetakoa zen; fandangoak eta arin-arinak joko zituen Goi-mendin, eta Eibarren, berriz, *agarrauan* dantzatzeko piezak izango ziren gehiago. Kontua da genero guztiak dominatzen zituela". *Elgeta*-k trikitiaren transmisioan egindako lana azpimarratu zuen.



Lemak taldeko abeslaria. G.K.T.

Lemak eta Añube taldeak Espaloian

Gaur, barikua, zuzeneko musika emanaldia ikusteko aukera izango da Espaloian. Añube eta Lemak taldeak igoko dira agertokira. Aurrenekoa Añube taldea izango da. Bergararrak eta arrasatearrak daude tartean, eta sortu berria den taldea da.

Lemak taldea Bergarako eta Antzuolako musikariek osatzen dute. Otsailetik apirilera grabatu zuten lehen diskoa, Beasaingo Pottoko Studioan, eta irailan argitaratu zuten *Hemen gaude!* kantuaren bideoklipa.

Kontzertua 22:00etan da, eta sarrera doan. Udalaren azaroko kultura programazioaren baitan egingo den emanaldia da. Antzokiko atea 21:30ean zabalduko dute.



Dorleta Kortazar. D.K.

'Hitzen lapurra' ipuin saioa domekan

Herri bateko istorioarekin abiatuko du kontakizuna Dorleta Kortazar eskoriatzarrak. "Elkar maitatzeko, ikasteko eta sendatzeko hitzak lapurtu zizkieten herri bateko istorioarekin", aurreratu du. Lau ipuinez osatutako saioa izango da, eta kafe antzokian egingo du, 18:30ean. Helduendako saioa izango da, ordubetik inguruko iraupenarekin. "Hizkuntzari eta ahozkotasanari buruzko saioa izango da. Isildutako hitzen ingurukoa, hizkuntzaren balioaren ingurukoa... Lapurtu dizkiguten hitzak, hitzik gabe esaten ditugunak, isildu ditugunak, isilaraziak izan direnak... Umoretik jorratutako saioa da". Udalak antolatu du. Sarrera doan da.

HARIRA ELGETA

GOIENA TELEBISTA, 'HARIRA'

IRAITZ LAZKANO (ALKATEA) ETA AINTZANE OIARBIDE (EAJ)
AZAROAREN 30EAN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN

BIDALI ZUK ERE GALDERA:

berriak@goiena.eus ☎ 688 69 00 07

EPEMUGA: AZAROAK 28



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



'Appa hi!': tresna berria Oñatiko hitanoa ikasteko

'Hikaldixa' egingo da gaurtik abenduaren 5era bitartean, eta, antolatu dituzten ekitaldiez gain, dagoeneko eskuko telefonoetan jaitsi daitekeen aplikazio hau prestatu dute. Sariak egongo dira, herrian salerosketak euskaraz eginez gero

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko hitanoa ikasteko aplikazioa da *Appa Hi!* Bost astez, egunero ariketa bat jarriko du, eta azalpenak eta aditz horren adibideak datozen bideoak ere eskainiko ditu. "35 egunean, egunero pilula batean, informazioa ematen da: azalpena, marrazkiak –Mirari Sargazazurenak– eta bideoak, adibideekin –Ingo Xonau! taldeak oñatiarrei egindako grabazioak–. Galdera edo ariketa bat ere etorriko da. Aukera ezberdinak eskainiko zaizkio erabiltzaileari, eta, zuzen erantzunez gero, hurrengo egunean beste pilula bat egiteko moduan egongo da. Erantzuna okerra bada, berriz saiatu ahal da. Bost maila daude, guztira. Bakoitzak bere erritmora jolas eta ikas dezake", azaldu du, martitzenean egindako aurkezpenean, Ingo Xonau! egitasmoa koordinatzaile eta Badihardugu Euskal Elkarteko ordezkari Idoia Etxeberriak.



Iñaki Olalde, Idoia Etxeberria, Xabier Zabaleta eta Ainhoa Galdos. O.E.

Toka zein noka

Gaurtik, azaroak 26, abenduaren 5era bitartean egingo duten *Hikaldixa* ekimenaren barruan aurkeztu du eskuko telefonoetarako aplikazio hori Oñatiko Udaleko Euskara Departamen-

tuak, Oñatiko hitanoa biziberri-tzeko asmoz sortutako Ingo Xonau! proiektuaren baitan. Toka zein noka praktikatzeko eta ikasteko aukera eskaintzen duen aplikazioa da. Badiharduguk garatu du, CodeSyntax enpresarekin

elkarlanean, eta Udalarari esker. Aplikazioa doakoa da. Dagoeneko jaitsi daiteke Android gailuetan, eta iPhoneetan laster instalatu ahal izango da.

Hika bertso saioa domekan

Aplikazioaz gain, beste ekintza batzuk ere antolatu dituzte *Hikaldixa*-ren barruan; domeka eguerdian gaztelekuan egingo den hika bertso saioa tartean. Miren Artetxe, Oihana Iguaran, Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze arituko dira Mirari Sargazazuk jarritako gaiei buruz bertsoetan. Doan izango da eta gonbidapenak aurrez hartu behar dira, Txokolateixan edo udal webgunean. Solasaldia, musika emanaldia, antzerkia eta hika-triki-poteoa ere egongo dira abenduaren 5era bitartean.

Argazkia, 688 62 11 42ra

Euskararen Eguna da abenduaren 3a, eta hor bukatu ohi da Euskaraldiak proposatutako ariketa. Aurten ez da horrelakorik egongo, baina hizkuntza ohiturak ez galtzeko ekimenak antolatu dituzte hainbat eragilek, eta Oñatin antolatutako *Hikaldixa* testuinguru horretan dator. Topaguneak, esaterako, 0 eta 12 urteko haurren aurrean helduek euskaraz egiteko ariketa proposatu du, *Haurren aurrean helduok heldu* izeneko ekimenarekin. Oñatik bat egin du ekimen horrekin, eta baita Eusko Jaurlaritzak eta Uemak, dendetan

salerosketak euskaraz egiteko sustatutako zozketarekin ere. Udalak 100 euroko balioa duten sei sari emango ditu. Horretarako, eroslea eta saltzailea agertzen diren argazkiak bidali behar dira, abenduaren 10a aurretik, Whatsappez, 688 62 11 42 zenbakira. Argazki sarituan agertzen den erosleak 100 euroko balioa duen denda horretako produktu sorta irabaziko du.

Egitaraua

Azaroak 26

- **20:30** Ingo xonau hika? solasaldia. Gaztetxean.

Azaroak 27

- **18:30** Hika-bertso-poteoa. Bogan hasita.

Azaroak 28

- **12:00** Hika bertso saioa. Gaztelekuan.

Abenduak 2

- **20:00** Atzoko Ogixa taldea. Gaztetxean.

Abenduak 3

- Euskararen Eguneko ekitaldiak.

Abenduak 5

- **12:00** Hika-bertso-poteoa. Bogan hasita.

GORA ETA BEHERA



Zintzilikarioetako poltsa organikoak, jaso gabe

Hondakinak jasotzera datozenek ez dituztelako poltsa organikoak batzen eta denbora batetik hona "zintzilikario inguruak zikin uzten" dituztelako kezatu da herritar bat. Eta Oñatiko garbitzaileak txalotu gura ditu, "euren lana eta besteenak egiten ibiltzeagatik".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



GOIENA

Udalek autonomia gal dezaketela salatu du EH Bilduk

EAJk eta PSEk Lurralde Antolamenduaren Legea aldatzeko egin gura duten moldaketa "udalen autonomiaren aurkako eraso" dela uste du EH Bilduk, eta horixe salatu du Udal Gobernuak. "Herriko lurren antolaketa eta hirigintza udalen eskumen nagusietako bat da, HAPOen bidez gauzatzen dena. Legez herritarren partaidetzarekin egin behar dira eta prozesu baten ondoren herritarrek hautatutako zinegotzien gehiengo osoaren babesa behar dute onartuak izateko. Arau berri honek Jaurlaritzaren asmoak HAPOren ginetik jartzea ekarriko luke, eta hori herritarren borondatearen eta demokraziaren aurkako eraso da".



NIRE USTEZ

MIEL GURIDI

Goza ezazu gehiago

Euskararen Nazioarteko Eguna hurbiltzen ari zaigu, datorren astean, abenduaren 3an, izango baita. Aurten ez dago Euskaraldirik, baina bai *Euskarak 365 egun* kanpainaren harira sortutako beste ekimen bat: hain zuzen ere, *Haurren aurrean helduok heldu* izeneko. Egitasmo horren helburua da haurrekin harremana izaten duten pertsonak umeen aurrean euskara erabiltzera bultzatzea.

Esan daiteke oraindik ere horrelako egunen, ekimenen, kanpainen eta abarren beharrean gabiltzala, oraindik ere ez baitugu erabat normalizatuta euskararen presentzia eta erabilera gure gizarte honetan. Belarria jarri besterik ez dago gure herriko dendetan, tabernetan, lantegietan...

Egoera honetan, Anje Duhalderen *Etxekoandre* izeneko aspaldiko kanta etortzen zait burura. Abesti horretan behin eta berriz errepikatzen den leloa eslogan polita izan daiteke: *Maita, maita nazazu gutxiago, goza, goza nazazu gehiago*. Beraz, ez dezagun denborarik galdu euskara zenbat maite dugun pentsatzen, eta goza (erabili) dezagun gehiago.



Izaro Elorza eta Xabier Igartua, osoko bilkuren aretoan, aurrekontuen aurrerapena azaldu ostean. HASIER LARREA

Inbertsioetarako 2,6 milioi, EH Bilduren nahia

Ia 19 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du Udal Gobernuak hurrengo urterako, "orain arteko zerbitzu guztiak mantendu eta hobetzeko" helburuarekin; azkena baino %13 handiagoa. Abenduaren 16ko osoko bilkuran onartzea da asmoa

Oihana Elortza OÑATI

Ia 19 milioi euroko aurrekontua -18,7 milioi euro- aurkeztu du Udal Gobernuak 2022rako, azkena baino %13 handiagoa. Kopuru horretatik 2,6 milioi inbertsioak egiteko izango direla azaldu dute Izaro Elorza alkateak eta Xabier Igartua Ogasun Sailako batzordeburuak, "aurreko partidaren bikoitza".

Irigarritasun lanen jarraipena

Pandemiaren bilakaerak ekonomia hobetzeak, Foru Funtsetik aurtan diru gehiago jasotzeak -1,1 milioi euro- eta udal enpresen dibidenduak %32 handitzeak ahalbiderratu dute igoera hori, udal ordezkarien esanetan, eta orain arteko zerbitzu guztiak "mantendu eta hobetzeko helburuarekin" egindako proposamena dela gaineratu dute.

Inbertsioetara bideratzeko asmoa dute, esaterako, 600.000 euroko partida bat San Lorentzo eta Olakua auzoetako irigarritasun faseetarako. HAPoren

garapenerako 106.000 euro jarriko dituzte, eta argiteria publikoan 120.000, besteak beste. Berdintasun Sailaren aurrekontua %3,5 handiagoa izango da. Kulturen, emakume sortzaileen lana lehenetsiko dute -10.000 euro- eta herriko kultur taldeen dirulaguntza eta sormena sustatzen jarraituko da -86.000 euro-. Santa Ana aretoa egokitzeko 85.000 euro gordeko dira eta Aita Madinaren heriotzaren 50. urteurrenaren harira programazio berezia gauzatuko da -12.000 euro-. Herriguneko zenbait etxe jatorrizko izenez identifikatu, eta proiektu bat landuko dute 2022an, horien izena bistaratuz eta kultura eta historia zati hori berreskuratuz.

URRUTXUN ATLETISMO PISTA BATEN PROIEKTUA ABIAN JARTZEKO DA DIRU PARTIDETAKO BAT

Azkoagain eta Urrutxu

Kirol arloan, Urrutxun atletismo pista egokitzeko proiektua abiatzeko asmoa ere ageri da aurrekontuen aurrerapen honetan, eta baita Azkoagainen belar artifiziala jartzeko ere -360.000 euro-. Urrutxuko gunean, zigilatzearen bigarren fasearen proiektuaren idazketa amaitzea eta goiko eremua erosteko asmoa ere badu Udal Gobernuak 2022rako.

Auzoetako inbertsioak %9 igoko dituzte, tartean ur eta saneamendu proiektuak bideratzeko partida berria sustatuz. Haur, gaztetxo eta gazteen artean sorturiko integrazio beharrak lantzea ere bada asmoa, eta Merkataritza eta Turismo plan estrategikoen garapena egitea.

Astean aurkeztu dio aurrerapena Udal Gobernuak oposizioari, eta asmoa da abenduaren 16an egingo duten osoko bilkuran onartzea datorren urteko udal aurrekontua.



Biribilgunea egin gura duten tokia, Urbieta baserriaren ondoan. O.E.

Urbieta ondoan biribilgunerik ez dutela gura diote bizilagunek

Abiadura murrizteko eta zirkulazioa hobetzeko aukerak aztertzeke alegazioa aurkeztu dute Foru Aldundian

O.E. OÑATI

Herri sarreran dagoen Urbieta baserriaren parean, GI-2630 eta Otadui zuhaitziaren artean, biribilgune bat egiteko proiektua aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Inguru horretako bizilagunek, baina, uste dute biribilgune horrek arrisku gehiago ekar ditzakeela abantailak baino, eta Aldundiari eskatu diote beste toki batean egiteko aukera aztertzeke. Sinadurak batzen hasi dira.

Sinadurak batzen

Errepide horretan ibilgailuek hartzen duten abiadura gutxitzea da biribilgune hori egitearen arrazoiak, bizilagunen esanetan. "Horixe esan digu Aldundiak. Guk uste dugu, ordea, abiadura moteltzeko beste bide batzuk ere egon daitezkeela, agian. Esaterako, Garibai eta Santxolopez-tegi auzoen artean irlatxoak

jarri dituztenetik nabarmen igartzen da abiadura moteldu egin dela gune horretan. Bestalde, beherago edo gorago zergatik ez duten egiten ere ez dakigu. Ez dute azterketarik egin, eta guk horixe eskatzen dugu. Guxienez, beste gune batzuk edo abiadura gutxitzeko beste bide batzuk aztertzea. Biribilgunea hor eginda, San Pedro aldetik datozen ibilgailu guztiek bertatik pasa behar dute Zubillaga aldera joateko, adibidez, eta gune horretan zirkulazio handiagoa egotea ekarriko du horrek".

Euren kezka eta eskaera zabaltzeko sinadura bilketa hasi dute aste honetan bizilagunek. Gaur arratsaldean plazan, kontzejupean, eta Urgain Errekalde eskola kanpoan izango dira, adibidez. Zapatuan, bihar, goizean berdura azokan eta kontzejupean; eta domeka eguerdian, berriz, plazan.

Selma Huxley Barkham bekarako deialdia zabalik dago

Emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpenak ezagutarazi eta horiei balioa emateko helburua du Selma Huxley Barkham bekak. Hirugarren deialdia zabaldu du orain Udalak, eta lanak aurkezteko epea urtarrilaren 4ra arte izango da. 17.400 euroko beka da eta lana egiteko epea, hemezortzi hilabetekoa.

Bihar goizean da 'Aulkiak' egitasmoko azken saioa

Bihar, zapatua, egingo dute herriko elkarten eta eragileen arteko igurtzia, elkarlana eta elkar-egazutza helburu duen *Aulkiak* ekimeneko hirugarren eta azken saioa. Eltzian izango da, aurreko biak bezala, 10:00etatik 13:30era. Lehenengo saioetan sentsazio onak izan dituztela adierazi dute udal ordezkariak, "jendea asko" inplikatu dela.



Ganbara abesbatza, azaro hasieran Arantzazun egindako emanaldian. IMANOL SORIANO

Txapela gogoan doa Ganbara Avilesera

Hiru urte dira herritik irten eta lehiaketa batean azkenekoz jardun zutenetik. Lehiakide gogorak izango dituzte Asturiasen, baina oñatiarrek badakite zer den han irabaztea –bitan; eta behin, bigarren–. "Lan ona egitera eta gozatzera goaz", dio Aitor Biainek

Oihana Elorza OÑATI

Pandemia hasi zenez geroztik lehen lehiaketa –era presentzialean, behintzat– izango dute Avileskoa Ganbara abesbatzako kideek. Beste lau korurekin lehiatuko dira Asturiasen; hauek dira: Nafarroako Aizaga abesbatza eta Bizkaiko Leioa Kantika Korala, Leongo Angel Barja abesbatza eta Madrilgo Voces Para La Convivencia deiturikoa.

Parte-hartzaileen mailari eta lorpenei dagokienez: Aizaga abesbatza Tolosako Nazioarteko Lehiaketan euskal obra baten interpretazio onenaren saria irabazitakoa da; nazioartean prestigio handien duten gazteen koruen artean dago Leioakoa; Avilesko lehiaketa irabaztea zer den badaki Leongo abesbatzak ere –2006an eta 2014an; 2010ean, bigarren–; eta hainbat sari jasotakoa da Madrilgoa, hezkuntza arlokoak ere bai.

"Hiru urte hauetan jende berria sartu da, eta, 2022an Bulgariara lehiatzera joatekoak garenez,

iruditzen zitzaigun aurrez halako lehiaketa bat egitea ondo zetorrela; batez ere, jende berriarentzako-eta, lehiaketa bati eskua hartzeko", dio Aitor Biain zuzendariak, izango dituzten lehiakideei buruz hitz egiten segituz: "Egongo diren taldeak maila handikoak dira, eta nahikoa lehiatua izango da. Baina gu gogotsu goaz. Lana ondo egin dugu. Azken hiru hilabeteotan nahikotxo proiektu izan ditugu, eta denari aurre egin behar izan diogu. Baina gauzak ondo presatatuta goaz, eta ilusioz eta gogoz".

Lau obra

Lehiaketan parte hartuko duten abesbatzek obra erlijioso bat eta Asturiasko lan bat interpretatu

**BULGARIAN
LEHIATUKO DIRA
DATORREN URTEAN,
ETA ONDO DATORKIE
HAU, PRESTATZEKO**

beharko dituzte –eurek aukeratzten dituztenak–, eta bakoitzak erabakitako motako beste bi lan. Ganbara izango da jaialdiari hasiera emango diona, bihar, zapatua, 19:00etan, eta ondoren go lanek osatuko dute oñatiarren errepertorioa: Josef Gabriel Rheinberger-en *Agnus dei*, Albert Alcarazen *Fariñona y Marañuelles*, Claude Debussyren *Dieu! qu'il la fait bon regarder* eta William Byrden *Laudibus in sanctis*. "Saiatu garena da estilo eta garai desberdinetako piezak aukeratzten. Daramagu pieza barroko bat, folkloreko beste bat, erromantiko bat, eta inpresionista bestea", dio Biainek.

Lehiaketako hiru abesbatza onenek 2.000, 1.000 eta 750 euroko sariak eskuratuko dituzte, hurrenez hurren, garaikurratz gain; horrekin batera, publikoaren saria egongo da, 250 eurokoa, eta Asturiasko Abesbatzen Federazioak lurraldeko obra ondoen interpretatzen duenari emango dion garaikurra ere bai.

LPK bikoarentzat publikoaren saria Kameratoian


Iñigo Madinak eta Xabier Urbinak (LPK taldea) eskuratu dute –*Aitta* lanarekin– publikoaren saria Euskaltzaleen Topaguneak Lekeitioko Euskal Zine Bilera-ekin batera antolatzen duen Kameratoia ikus-entzunezko rallyan, aurkeztutako hamasei lanen artean. Gaia eman –*Mugimendua*– eta 36 ordu izan zituzten parte-hartzaileek laburrak prestatzeko –itsasontzi bat porturatzen ageri zen bideo pasarte ere erabili behar zuten–. "Lanpetuta genbiltzan, eta pentsatu genuen zerbait sinplea egitea, baina ideia sakon batekin", zioen Urbinak, sariarekin gustura. *Kameratoia.eus* webgunean daude ikusgai lanak.

Hegazkin taldea, domekan, gaztetxeko 'matinee' saioan

Alayn Carazo Iturriaga bergararrak eta Iosu Isaias Villanueva Castro *Isuo* urretxuarrak osatzen dute Hegazkin. Sintetizadoreak, gitarra eta ahotsa erabiltzen dituzte, baina diote ez dagoela elektronika-zalea izan beharrik euren emanaldiez gozatzeko. Ekainean atera zuten *Haize beltzak* diskoa, eta diote pozik daudela lortu duten emailtzarekin, erritmo eta baxu sendoeikin ahots melodikoa nahastuta. Disko horretako piezak eskainiko dituzte domekan Antixena gaztetxean egingo duten emanaldian. *Matinee* egitasmoaren barruan da kontzertua, 12:30ean. Sarrera bost euro izango da, hiru langabeentzat.

Kepa Aldekoa Izura, Mallorcara, Espainiakora

Maila absolutuko txapelketa izango da Mallorcakoa, eta bertan lehiatuko da Aloña Mendiko igerilaria, 200 metroko bizkarreko proban, gaur bertan –egubakoitza–. Sasoi onean dago Aldekoa, aurreko zapatuan Bergaran erakutsi zuen bezala. Abenduaren 3an, berriz, euskal selekzioarekin ariko da, Castellon, nazioarteko lehiaketan.



Kepa Aldekoa Izura. MIREIA BIKUÑA



MIREIA BIKUÑA

Takilak erabiltzeko eskaria

Zubikoako aldageletan arropak utzi barik, takilak erabiltzeko eskatu dute kiroldegitik. Kartelak jarri dituzte aldageletan, eta bozgorailuetatik ere ari dira mezua zabaltzen. Erabiltzaileei gogorarazi gura diete bakoitzak bere arropak eta bestelakoak armairuan gorde behar dituela, "higieneagatik, besteei lekua uzteko eta baita lapurretak ekiditeko ere".

Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez goienakide!

**goiena[“]
kide**



www.goiena.eus/kideak





Julen Irizar eta Mikel Aristi, astelehenean, Harmailatik saioan. X.U.

"Urte txarra izan arren, ez diogu geure buruan sinesteari utzi"

MIKEL ARISTI ETA JULEN IRIZAR EUSKALTEL EUSKADIKO ZIKLISTAK

ZIKLISMOA Urteko helburuak betetzeke geratu direla naturaltasunez onartu dute ziklista bergarrek, eta ilusio berriuekin ekin diote 2022ko denboraldia prestatzeari

Xabier Urzelai BERGARA

Tarteka, agerian geratzen da zaleen txaloen eta argazki kameraren flashen atzean dagoen guztia ez dela ederra. Elite mailako kirolean emaitzak lortzeko presioa kudeatzea gaitza da, bereziki denboraldia okertu egiten denean; askok idealizatzen dituzten lanbideen atzean sasoi txarrak ere izaten dira, eta horiek kudeatzea ez da beti erraza. Hala, bizikleta

gainean Julen Irizarrek (Bergara, 1995) eta Mikel Aristik (Bergara, 1993) ez dute 2021 honetan nahi moduan gozatu; bizikleta gainean ez, behintzat. Eta naturaltasunez onartu dute hori. Baina azaroa da denboraldi berria prestatzeko sasoa, fokuetatik urrun lan egiteko momentua. Eta 2022a irudikatu duten momentuan irribarre egin dute. Aristiren kasuan, bibote eta guzti.

Azaroan gaude; zer-nolako hilabetea izaten da zuendako?

Julen Irizar: Gaurkoa moduko egun batek laburbildu dezake azaroan egiten dugun hori. Lantzaio ezberdinak egiteko momentua izaten da, bizikletan ibili, gimnasioan ariketa batzuk egin... Oporralditik bueltan ostera ere gorputza egokitzen joateko momentua da. Mikel Aristi: Hiru aste daramatzagu entrenatzen, eta elkarrizketara gentozela ko-

mentatzen ibili gara gorputzean *klik* bat igarri dugula gaur, hantetan sentazio onak sentitzen hasi garela. Noski, oraindik bide luzea geratzen zaigu egiteko. Baina hilabete hauek oso gogoko ditut nik, ilusio berriak izaten dira, beste kirol jarduera batzuk ere egin ditzakegu; prestatzaileek agindutako lana txukun egiteaz arduratu behar duzu, baina ez duzu urteko beste momentu batzuetako presiorik.

Zer-nolako izan da 2021a? Mikel, zure kasuan, hainbatetan izan duzu gertu garaipena...

M.A.: Aurten lau aldiz geratu naiz bigarren [Valentziako Klasikoan, Per Sempre Alfredo lasterketan (Italia) eta Alentejoko Itzuliko (Portugal) bi etapatan], eta bigarren sailkatzeko ere modu asko daude. Bada, horietako batzuetan garaipena oso-oso gertu ikusi dut, baina ez dut lortu irabazterik. Aurten ondo ikusi dut ze zaila den garaipena lortzea. Urtea ondo hasi nuen, neguan gozatu egin nuen entrenatzen, ondo sentitzen nintzen eta urte hasiera ona egin nuen. Gero, otsail inguruan hilabetez geldu behar izan genuen koronabirusagatik, eta ondoren, ondo nengoenean eroriko bat izan nuen. Erorikoan ez nuen ezer larririk egin, baina hemen ez da askorik behar atzerapausoa emateko. Esango nuke Euskal Herriko Itzulira arte txukun ibili nintzela, baina gero dena okertu zitzaidan. Alde horretatik, urte zaila izan da; zortea ere ez dugu lagun izan, ondo geundenean koronabirusa tarteko ez genituen lasterketak, eta lasterketak izan ditudanean beti izan dut zerbait, sasoi puntua ezin hartu... Guk, emaitzak lortzeko, %100 egon behar dugu, detaile txikiak eragin handia izaten dute hemen.

Julen, zure kasuan ere ez da urte erraza izan.

J.I.: Ez; Mikelek komentatu duen moduan, detaile txiki bat alde ez izatea nahikoa da gure maila ez emateko, edo aurrean ibiltzeko aukerak galtzeko. Kategoria honetan asko igartzen da hori, sekulako maila dago eta. Hala, arazo fisikoetatik harago bestelako arazo batzuk ere izan ditut eta ez dut lortu nahiko nukeen moduan ibiltzea. Ez da gozatzeko urtea izan, ez.

Ez zarete ziklismoa iritsi berriak, baina bistan da urte onak egin dituzueneko erreferentziek ezer gu-

txirako balio dutela. Urte bakoitza ezberdina da hemen.

M.A.: Eta, gainera, koronabirusak gehiago zaildu ditu gauzak. Bariante gehiago daude aurretik egin duzun lana pikutara bidal dezaketena. Izan ere, hori da gure esku dagoen gauza bakarra, aurretik dagoen lan guztia ahalik eta ondoen egitea. Gero, erorikoak izaten dira, lesioak, gaixotasunak... Eta, diodan moduan, koronabirusak bariante horiek areagotu egin ditu: norberak edo taldekide batek positibo eman dezake, sasoi onean zaudenean lasterketa bertan behera gera daiteke... Halakoak ere izan dira aurten. Hain zuzen, hori da urtero eskatzen dudana, zorte txarrik ez izatea. Gero, errepideak jarriko gaitu gure tokian.

Izango zenuten momenturen bat gozatu egin duzue.

J.I.: Uda partean, Italian, astebeteko lasterketa batean gustura ibili nintzen [Uztailaren 14tik 18ra egin zuten Settimana Ciclista Italiana, Diego Ulissi (UAE) irabazi zuen eta Irizar 17. sailkatu zen sailkapen orokorrean], lasterketa txukuna egin nuen, eta han gozatu nuen, bai.

M.A.: Ni bereziki neguan ibili nintzen gustura, ikusten nuen ondo nengoela. Gero, lasterketak hasi genituen, urte hasieran ibili nintzen ondo. Baina Itzultik aurrera ez dut batere gozatu; kontrara. Atsedean hartzen saiatu ginen, ondo entrenatzen... Baina ez, onartu behar dut denboraldiaren bigarren zatian ez nintzela kapaz izan egoerari buelta emateko.

Julen, zure kasuan, zapora ona uzten duten momentu horiek arnasa emango dute...

J.I.: Zalentza barik. Azken batean, guk inongo momentuan ez diogu geure buruan sinistea-

"ERREPIDEAK JAR GAITZALA GURE TOKIAN, EZ ZORIAK"

"UDAN SASOI PUNTUA HARTU EZINKA IBILI NINTZEN"

"AURTEN LAUTAN EGIN DUT BIGARREN; ZAILA DA IRABAZTEA"

MIKEL ARISTI, TXIRRINDULARIA

ri utzi, badakigu lana ondo egiteko aukera daukagunean maila txukunean ibil gaitezkeela. Egia da, aldi berean, denbora daramazunean maila erakutsi ezinean, psikologikoki erraza dela behera egitea. Horregatik, Italian izan nuen aste hark oxigenoa eman zidan, bai.

Bakarkako lana alde batera utzita, talde moduan zelako urtea izan da Euskaltel Euskadirendako?

M.A.: Nik uste dut taldeak bete dituela urteko helburuak, garaipenak izan dira, emaitza onak batu ditugu, eta uste dut lasterketa handietan ere taldeak jakin duela protagonista izaten. Talde gaztea gara, nahiz eta baditugun esperientziadun ziklistak ere. Pausoz pauso, uste dut Euskaltel-Euskadi badoala aurrera.

Ondorengo galderak azkar batean erantzutekoak dira, askorik pentsatu barik. Hasteko, gogoko duzun lasterketa bat?

J.I.: Euskal Herriko Itzulia.

M.A.: Tro Bro Leon.

Eta ametsetakoa?

J.I.: Frantziako Tourra.

M.A.: Munduko Txapelketa.

Olentzerori bizikleta bat eskatzekotan, zein?

M.A.: Mendiko bizikleta esango dut, Oiz bat.

J.I.: Aspaldian, *gravel*-eko bizikletan nabil gustura, polibalen-teagoak dira; halako bat esango dut.

Gogoko ziklista bat? Ez du balio taldekide bat nabarmentzea.

J.I.: Vincenzo Nibali.

M.A.: Julian Alaphilippe.

Neguan zer nahiago? Arrabola egin, ala kalera irten hotz apur bat pasatzera?

J.I.: Nik nahiago dut hotz apur bat pasatu.

M.A.: Baita neuk ere.

Oporretan, hilabete egon zarete kirolik egin barik?

J.I.: Ez; ez dut bizikletarik ukitu, baina mendian egin dut kirola.

M.A.: Hori da; nik ere bazter-tuta izan dut bizikleta, baina ez naiz geldi egotekoa. Azken batean, kirolzaleak gara...

Eta sasoi horretan baduzue kale-rik egiten ez duzuen parrandaren bat?

M.A.: Guk oporrak hartzen ditugunerako, urri amaiera izaten da, eta ordurako uda sasoi-ko jai gehienak pasa dira. Egia esan, ez, ez daukat leku konkretu bat urtero itzultzen naizena parranda egitera. Bakenen bat egingo dugu, baina ez naiz oso zalea.

J.I.: Sasoi horretan astebururen baten irteten gara, baina horraino. Kuadrillan baditugu parranda-zaleak, baina gu ez gara horrenbestearainokoak.

Zein da gehien zaintzen duzun gorputzeko atala?

J.I.: Hankak.

M.A.: Bai, hankak.

...Eta Mikel, hilabete honetan bi-botea...

M.A.: [Barre] Baita hori ere.

Miseria handienak non pasa dituzue aurtien?

J.I.: Nik neuk, Mikelen lasterketarik gustukoenean, Tro Bro Leonen. Infekzio bat nuen ahoan eta...

M.A.: Lasterketa berezia da Tro Bro Leon; zati batzuk lur gainean egiten dira. Urte batean lasterketa polita egin nuen han, eta horretxegatik aipatu dut.

Ados, baina ez dituzu aurtengo mi-seriak kontatu...

M.A.: Uda osoan pasa ditut mi-seriak [Barre].

Kuadrillan txirrindularitzaren gainean egiten duzue berba, ala txanda-pasa?

J.I.: Bai, gurean nahiko presente egoten da txirrindularitza.

M.A.: Nirean esango nuke lehen baino gehiago egiten dugula berba ziklismoaz, baina nahikoa txanda-pasa, bai.

Entrenatzeko nora joateko joera izaten duzue? Mikel, garai batean kostaldera joateko ohitura zeneukaten *grupeta*-koek.

M.A.: Eta oraindik badut ohitura hori, bai. Azkenean, neguan tenperatura epelagoa izaten da kostaldean, eta kontrara, udan freskoago. Bai, kostalderantz joateko joera dugu.

J.I.: Aldatzearren, esango dut Aramaioko errepideak ditudala gustuko. Etxaguen, Uribarri... Auzo horietan ibiltzen naiz gustura.



Linazisoro podiumean. FEDME

ESKALADA Espainiako Kopako bigarrena Linazisororendako

Salamanca egin zuten, joan den astean, Espainiako Kopako bigarren jardunaldia, eta bertan, gizonezkoen kategorian, Mikel Linazisoro nabarmendu zen. Txapelketan egon ziren, baita ere, Irati Guenetxea eta Haizea Osés aretxabaletarrak. Hamargarren eta hamaikagarren sailkatu ziren, maila absolutuan. Lugon dute asteburuan Kopako azken hitzordua.



Baloia urruntzeko gertu. I.S.

FUTBOLA Bergarak eta Leintz Arizmendik derbia dute zapatuan

Emakumezkoen ohorezko erre-gional mailan, sailkapenean ondoan dauden Bergarak (13 puntu) eta Leintz Arizmendik (16) elkarren kontra neurtuko dituzte indarrak bihar (15:30, Ipintza). Gizonezkoetan, Bergarak eta UDak jokatu dute etxean. Euskalduna hartuko dute mahoneroek (zapatua, 15:30), eta Eibar sailkapenean lider dauden aretxabaletarrek (domeka, 16:30).

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

O.ERREGION. GIZ.

Bergara-Euskalduna

Zap. 15:30. Agorros.

Urola-Mondra

Zap. 16:00. Argixao.

Touring-Aloña Mendi

Zap. 16:30. Fanderia.

Aretxabaleta-Eibar

Dom. 16:30. Ibarra.

O. ERREGION. EMAK.

Bergara-Leintz Ariz.

Zap. 15:30. Ipintza.

GORENGO MAILA

Ilintxa-Mondra

Zap. 16:00. Bikuña.

Beasain-Antzuola

Dom. 16:30. Loinaz.

Lagun Onak-Aretx.UDA

Dom. 17:30. Garmendi.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Batzarre-Mondrate

Zap. 17:30. Olanarbe.

Eskoriatza-Jarrilleros

Zap.17:30. M.Muñoz.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Hegalarriak-Aretxab.

Dom. 18:00. Ibarra.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Usurbil-Mugarri Eingou

Egub. 20:15. Oiardo.

Fagor Indus.-Deusto

Zap.18:00. Zubikoa.

EMAKUMEZ. EUSKADI.

Constr. Aloña-Egia

Zap. 19:45. Zubikoa.

SASKIBALOIA

EBA

LBC Cocinas.com-MU

Zap.20:00. Logroño.

BIG. MAILA. EMAK.

Bera Bera-MU

Zap. 16:00. Donost.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

B.Soraluce-A Atletico S.

Dom. 16:00. Labegara.

GIP. SENIOR EMAKUME.

Luberri-Bergara Sor.

Egub. 19:30. Antigua.

PILOTA

GIPUZKOAKO TXAPELK.

OÑATI

Domeka. 11:00etan

partidu bat.

ARETXABALETA

Egubakoitza. 18:00etan

hasita zazpi partidua.

ARRASATE

Egubakoitza. 20:00etan

hasita partidua bat. Zap.

18:00etan partidua bat.

BERGARA

Egubakoitza. 18:45ean

hasita bost partidua.

ANTZUOLA

Egubakoitza. 20:00etan

hasita partidua bat.



Fagor Industrial. I.S.

"DETAILE TXIKI BAT NAHIKOA DA GURE ONENA EZ EMATEKO"

"ONDO ENTRENATZEA DA ORAIN DUGUN ZEREGIN NAGUSIA"

"2022RA BEGIRA ILUSIO BERRITUAK DITUGU"

JULEN IRIZAR, TXIRRINDULARIA

Ruiz de Azua eta Sanchez, argazki onenaren erakusketan


ATLETISMOA World Athletics-en urteko kirol argazki onenaren sariketan ibarrak bi protagonista ditu aurtien

Jon Irizar ARRASATE

2021 honetan ere kutsu debagoiendarra izango du World Athletics-ek antolatutako argazki lehiaketak. Hiru finalisten artean sartu ez diren arren, 25 argazki hautatuaren artean dira Malen Ruiz de Azua atleta arrasatearra protagonista duen Sergio Mateoren argazkia eta baita Felix Sanchez oñatiarrak Tara Davis luzera jauzilari estatubatuarri ateratako erretratua ere *-goiena.eus*-en ikusgai-.

Kirolaria eta argazkilaria

Ruiz de Azuak objektiboaren aurrean izango du presentzia, *The Hunger (athletics) Games* Sergio Mateo gaztelarrak egindako argazkiaren protagonista baita arrasatearra. Silesian, Polonian, jokatu zen Taldekako Europako Txapelketan egindako jauzi baten osteko unea jasotzen



Ruiz de Azuaren irudiaren zati bat. S.M.

du irudiak, Ruiz de Azuak zilarra irabazi zuen hor. Sanchez, berriz, objektiboaren atzean aritzen da, eta Tara Davis luzera jauzilari estatubatuarri Olinpiar Jokoetan ateratako irudiaren bidez sartu da erakusketan.

"Lan berezia da, bidea ezberdina izan delako"

RUPER ORDORIKA MUSIKARIA

Kubako doinuak oinarri dituen eta musikari kubatarrekin grabatu duen 'Amour eta toujours' lana argitaratu du Oñatiko musikariak asteon, Elkar argitaletxearekin

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Erronka "handia eta zaila" izan da Oñatiko musikariarentzako lan berri hori argitaratzea.

Disko asko atera eta gero, ilusiorik egiten dizu berria eskuetan izateak?

Bai, horixe! Batez ere, lan honen bidea oso ezberdina izan delako niretzako, eta esango nuke entzuten duenak ere ñabardura ezberdinak sumatuko dituela. **Kuban kontzertu asko egin dituzu, hango musikariekin abestu izan duzu, eta azkeneko diskoa musikari kubatarrekin grabatu duzu. Zerk bultzatuta?**

Han bizi den Angel Azkarraga *Matxitxa* nire lagun eta manager ohiak antolatuta emanaldi asko egin izan ditut; horien artean, orain dela 12 urte irlan egin nuen bira. Kantaldiaren lehengo zatia egiten nuen nik eta hango musikariekin, eta behin eta berriro esaten zidan *Matxitxa*-k disko bat grabatu behar nuela Kubako musikariekin. Ez nion proposamena serio hartzen, oso urrun sentitzen nuelako jotzeko modu hura, nire iturrietatik oso urrun, eta ikaragarria delako han dagoen musika maila.

Erronkari heldu zenion gero; zela-koa izan da prozesua?

Miresten ditudan hango kantarien disko bat ezin nuela egin



Ruper Ordorika musikaria. R.O.

"KANTU BERRIAK OSO NIREAK DIRELA ESAN DIDATE, NAHIZ ETA KUBAKO KLABEAN OINARRITUTA EGON"

pentsatu nuen, baizik eta nire gauza bat egin behar nuela; hori horrela, Donostiako Jazzaldian New Yorkeko bateria-jole Kenny Wollesen-ek nirekin jo behar zuela aprobetxatuta, Kubako perkusionista handi Yaroldi

Abreu eta nire lehenagoko Mugalari Buenos Airesko Dani Perez jarri nituen batera. Hala sortu nuen, gero, diskoa grabatzeko formazioa Kubako eta hemengo musikariekin. Tinbrikoki guztiz bestelakoa da diskoa, Afro-Kuba giroko kantuak egitea zen-eta hasieratik genuen asmoa. Diskoa entzun dutenek esan didatenez, nire kantuak dira, baina hango musika-gakoa edo giltza erabilia.

Zuzenekoetan ere musikari kubatarrek izango dituzu lagun?

Bai; sei lagun izango gara, Mugalariak, Eduardo Lazaga perkusionista kubatarra eta Nando de la Casa.

Baina Kuban grabatzeko asmoak bertan behera utzi zituen pandemiak.

Hala da, bai. Iazko apirilerako hegaldiak hartuta eta bira lotuta genuen, baina pandemiak eztanda egin zuen eta azkenean hemen grabatu dugu musikari kubatarrek ekarrita. Garai ezberdinetan hiru estudiantan grabatu dugu: ohi moduan Abetxukon, Jonan anaiarekin Azkarraren eta Elkarren, gero. Iaz hasi ginen eta aurten bukatu dugu.

Doinuez gainera, kantuen hitzek ere Kubaraino hurbilduko gaituzte?

Bai; hango bizipenak eta istorioak dira kantuen oinarri nagusia. Nik idatzitakoak dira gehienak,

baina badira, esaterako, Joseba Sarrionandiaren eta Eva Linazasororen kolaborazioak ere. Eta badira aurrez argitaratutako bi kanturen moldaketak ere *-Haizea garizumakoa eta Zorioneko moilan-*.

Amour eta toujours izena jarri diozu bildumari. Zergatik?

[Barre] Aspaldi gogoan dabilkidan izenburua da. Sarrionandiaren *Poesiaren gauza galdua*-n oinarrituta egin nuen *Kantuaren gauza galdua* kantuan abesten nuen *amour eta toujours lako errimak zaborretara*. Eta hortik heldu zitzaidan izenburua. Frantziar klasikoetako esamoldea da *amour et toujours*: errima eta topikoa. Eta niretzat son kubatarra, bere errima eta irudi fantastikoekin, kantagintzaren barru-barruan dagoen kanta moldea da.

Diskoa kalean, zer moduz ari zara zuzenekoak lotzen?

Egia esan, ezin gara geratu, itxialdiko hiru hilabete horietan ezik. Hasieran, ez nuen oso argi kontzertuak egin edo ez, baina baieztatzeko alde egin genuen, eta ez naiz damutzen. Emanaldi asko egin ditugu, nahiz eta egoera askotara moldatu behar izan dugun; esaterako, areto berean bi kontzertu segidan ematea, aurrekoan Usurbilen egin genuen moduan. Baina neguan aire zabalean kontzertua egitea baino irtenbide hobea iruditzen zait. Lan berria aurkezteko ere ari gara lotzen, eta pozik gaude.

Debagoienean baduzu kontzerturik? Oraingoz, Arrasaten dugu lotuta: abenduaren 23an, Amaia antzokian izango gara.

Durangoko Azokan izango zara?

Ez dakit sinatzera joateko eskatuko didaten, kolokan daude-eta gauza asko, baina gustatuko litzaidake Durangora joatea.

Durangoko Azoka, aurten ere, egoerara "birmoldatuta"

Landako Gunera eta Plateruenara sartzeko izena eman behar da; online denda ere bada

A. Aranburuzabala ARRASATE

Abenduaren 4tik 8ra, askotariko diziplinetako kultur jarduerekin gozatzeko eta kultura ekoizpenak erosteko aukera izango da Durangoko Azokako hainbat gunetan; online denda, berriz, abenduaren 3tik 7ra bitartean izango da.

Eusko Jaurlaritzak ezarritako osasun-neurrietara egokituko da aurtengo Azoka ere; hori horrela, Landako Gunera eta Plateruenara sartzeko ezinbestekoa izango da aldeztu aurretik izena ematea. "Landako Gunean 1.200 bisitariko bost txanda izango dira egunero, ordu eta erdiko bisita egin ahal izateko. Astelehenean, abenduaren 29an, hasita, *Durangoazoka.eus* atarian izango da txanda hartzeko aukera", azaldu dute antolatzaileek, zera gaineratuta: "Espazio guztietan maskara erabili beharko da une oro, eta ezin izango da jan eta edan".

Durangoko Azokan eskura egongo den kultur eskaintzari dagokionez, "219 erakusmahaitan banatuta 990 argitalpen berri" izango direla iragarri zuten atzo komunikabideen aurrean egin-dako aurkezpenean, eta horiek guztiak sarean erosgai izango direla gaineratu.

ZUBIAK

GOIENA TELEBISTA
GIZARTEKO ERRONKEZ EZTABAIDAN
AZAROAREN 26AN, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Gazteak lehian fandango eta arin-arin dantzetan

laz azken momentuan bertan behera utzi behar izan zuten Euskal Herriko bikote gazteen dantza txapelketa egingo dute domekan Seminarixoan. Hala, Gipuzkoako hamahiru dantzari bikote gazte izango dira fandango eta arin-arin dantzetan lehian

Aitziber Aranburuzabala BERGARA

16 urtetik beherakoak dira Bergarako dantza txapelketako parte hartzaile guztiak. Hamahiru bikote batuko dira etzi, domeka, Seminarixoan, 12:00etan hasiko den Euskal Herriko 43. dantza askatu txapelketa jokatzeko. Bergarako Musika Eskola antolatu du, Udalaren eta Gipuzkoako Dantzari Biltzarren laguntzarekin.

Gipuzkoarrak guztiak

Ez da Bergarako bikoterik izango lehian; izan ere, zazpi bikote Azpeitikoak dira, bi Lezokoak eta bikote bana Ibarreakoa, Zestoakoa, Lezo-Pasai Donibaneakoa eta Lezo-Bidaniakoa. Hala ere, lehiatuko ez diren arren, ekitaldia borobiltzeko, Bergarako Musika Eskolako dantza ikasleak taularen gainera igoko dira, ikasgeletan ikasitakoa jendarean erakustera. "11 eta 12 urteko neska-mutikoekin osatutako taldeak Gipuzkoako pausoe-tan oinarritutako koreografia eskainiko du", azaldu dute antolatzaileek.

Iaz egiterik ez zuten txapelketa egiteko aurten protokolo berezia ezarri dutela azaldu dute Bergarako Musika Eskolakoei: "Parte hartzaile guztiak maskara erabiliko dute, musika jo, edo



Maren Galvez eta Gorka Granado, 2019ko irabazleak. BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

dantza egiten ez duten tarte guztietan".

Fandangoa eta arin-arina

Lehiakideek bi dantza egin behar dituzte: fandangoa lehenengo eta arin-arina ondoren. Bergarako txistulari bandaren doinuekin dantzatzeko dute fandangoa eta Estanga anaia-arreba trikitilarien laguntzarekin, berriaz, arin-arina. Fandango piezez gain, lehiaketatik kanpo Jose Inazio Ansorenaren *Lexearen habanera* eskainiko dute Bergarako txistulariek.

Bost sari jokoan

Gipuzkoako Dantzari Biltzarrak izendatutako lau kidek osatuko dute epaimahaia. Udalak emandako garaikurra –Bergarako Xanti Arrieta zeramikagileak eta Xabier Diaz de Zerio eskultoreak egindakoak– txapela, zapia eta 180 euro jasoko ditu bikote irabazleak, eta garaikurra eta 160 eta 130 euro bitarteko diru-saria beste lau bikote irabazleak. Sari horiez gainera, garaikur bereziak ere izango dira jantzi egokienarentzat eta 12 urte arteko bikote onenarentzat.

Akordeoi doinuak protagonista datorren astean Arrasaten

Abenduaren 4tik 6ra, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa eta Gipuzkoako Lehiaketa eta Jaialdia izango dira

A. A. ARRASATE

Hauspoz Euskal Akordeoi Elkartearen urteroko hitzorduak dira Arrasateko Udalaren, elkarteen eta eragileen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatzen dituen lehia-

ketak eta jaialdia. Osasun krisiak eraginda, iaz ez zuten egiterik izan, eta "gogotsu" daude aurtengoa egiteko. "Egoera zein den ikusita, azpimarragarria da parte hartzaileen kopuru handia. Hamabi erkidegotako goi mai-

lako akordeoi-joleak izango dira lehian Gipuzkoako sariketan, eta, horrez gain, bertako musika eskoletako harrobiaren erakusle izango da, beste behin, Jaialdia", dio Hauspoz-eko Maria Zubimendi de la Hozek.

Txinako, Poloniako, Frantziako, Bielorrusiako, Serbiako eta Espainiako zortzi profesional lehiatuko dira Nazioarteko Arrasate Hiria sariketan. "Azpimarratzekoa da izena eman duten hamar lagunetatik sei emakumeak direla".

Goienakideen txokoa

Azaroko sariak!



Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: Saskia

Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATISKO DA

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sariaren izena" [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena 10/10/2021 lehenengo astean, jakinarazten den egunaren artean Goiena Komunikazio Zerbitzuen bitartez automatikoki bideratuko da. Zozketa bakoitzaren helburu bakarra da irabazlearen izena jakitzea. Zozketaren gaineko informazioa goiena.eus webgunean dago. Erabazleak zozketaren gaineko informazioa goiena.eus webgunean dago. Erabazleak zozketaren gaineko informazioa goiena.eus webgunean dago.

Irabazi bi lagunendako otordua

ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkariako Otorduan atala eta hartu parte!

Parte hartzeko azken eguna: azaroak 30

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE Jateketa [barkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...

BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

102. EROSI

Oñati. Oñatin etxea errentan hartzeko prest, erosteko aukerarekin. San Lorenzo, Olakua, Errekalde edo erdialdean. Beste auzoetan baloratuko nuke. 679 62 69 64 edo jontxu2009@hotmail.com

103. ERRENTAN EMAN

Oñati. Apartamentua ematen da errentan, 60 metro koadrokoa. Logela bat du, egongela, sukaldaria eta bainugela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 72 11 29

104. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bergarako neska errentan hartzeko etxebizitza bila. Urgentea da. Deitu 690 75 61 18 telefonora.

Bergara. Bergaran etxebizitza bila nabil. Telefonoa: 645 72 92 87

Bergara. Kaixo, Bergarako neska gazte euskalduna naiz eta etxebizitza txiki baten bila nabil. Edozer gauza dela eta, jarri nirekin harremanetan. Eskerrik asko. Ane. 684 14 95 54

Oñati. 34 urteko langilea, Oñatin denbora luzerako etxebizitza bila. Ardurasua eta aurretik hainbat denboraz alokairuan egondakoa. 658 86 98 38

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Errentan hartzeko logela baten bila ari naiz. Deitu 648 00 86 55 telefonora.

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Uribe auzoan edo Polo Garaia inguruan garaje bat hartuko nuke errentan. Deitu 619 68 39 14 zenbakira.

3. LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Aretxabaleta. Errentan hartzeko lokal baten bila nabil, dagoeneko finkatutako eliza kristau baterako. Deitu 627 79 28 99 telefonora.

4. LANA

401. ESKAINTZAK

BERGARA

Akademiak irakaslea behar du ingelesa eta laguntza eskolak emateko
605 76 32 72

Bergara. Akademia baten irakaslea behar dugu ingelesa eta laguntza eskolak emateko. Telefonoa: 605 76 32 72

Debagoiena. Adineko pertsonekin lan egiteko soziosanitario titulua duen neska behar dugu. Telefonoa: 660 46 34 93

402. ESKAERAK

Arrasate eta Bergara. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut egunez, gauzez edo asteburuetan. Kotxea daukat. Arrasaten bada, baita etxean bertan bizi izaten ere. 602 80 15 38

Arrasate eta Bergara. Pertsona nagusiei eguneroko jardueretan laguntzeko prest nago; paseatu, erosketak egin, zaindu eta abar. Eskarmentu handia daukat. Telefonoa: 615 40 61 66

Arrasate. Garbiketa lanak egingo nituzke goizetan. 602 68 40 89

Arrasate. Legezko agiriak eta esperientzia handia duen emakumea zaintza lanetarako gertu. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan edota etxean gau solteak egiten. 632 48 38 91

Bergara. Esperientzia duen neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko, etxeko garbiketarako edota zerbitzari moduan. Lanerako baimen agiriarekin. 685 10 01 85

Debagoiena. Astean zehar edo asteburuetan emakumea prest umeak edo helduak zaindu edo

garbiketa lanak egiteko. 631 75 03 97

Debagoiena. Emakumea etxerako lanetarako prest. Titulu soziosanitarioa eta papalak dituena. Esperientzia eta erreferentzia handiduna. 643 73 62 83

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu orduka garbiketarako edota zaintza lanak egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Eskarmentu handia daukat hainbat lanbidetan eta lanerako prest nago: garbiketa lanetan, jatetxeetan edota pertsona nagusien zaintzan. 642 95 00 04

Debagoiena. Esperientzia handia daukan neska bergararra nagusiak zaintzeko gertu. Titulazioa daukat. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 03 65 02 (Elena)

Debagoiena. Esperientzia handia eta soziosanitario titulazioa daukan emakumea, baserriren baten zaintza lanak egiteko gertu. Autoarekin. Astean zehar, eta gaur bat egiteko aukerarekin. Deitu konpromiso barik telefono zenbaki honetara: 637 52 89 83

Debagoiena. Gaudetan edo goizetan orduka zaintza lanak egiteko gertu nago. Soziosanitario titulazioarekin. 659 90 85 13

Debagoiena. Lan bila nabil. Garbiketa lanak egingo nituzke: atariak, lokalak, baserriak eta abar. 645 72 92 87

Debagoiena. Mutila nagusiak zaintzeko eta denetarikoko garbiketarako egiteko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. 631 98 39 36

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzeko gertu nago, orduka. Orduetako arazo barik. Telefonoa: 631 11 87 57

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 666 80 48 11

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Baita egoitzatik paseatzera laguntzeko ere. Autoa daukat. 631 37 49 04

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketetan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 632 39 87 73

Debagoiena. Nagusiak zaintzen, garbiketetan, margoketan zein lan mekanizatuetan aritzeko gertu nago. 631 55 24 37

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak eta umeak egunean zehar zaintzeko. Baita orduka ere. Egitu telefono zenbaki honetara: 677 14 64 27

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zain-

tzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egunean zehar edota orduka. Telefonoa: 677 14 64 29

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko zein garbiketa lanetarako. Orduka eta asteburuetan ere bai. 662 54 79 50

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Edo egunean zehar edo gau solteak. Telefonoa: 696 84 19 51

Debagoiena. Nikaragua-ko 33 urteko mutila lanerako gertu. Nagusiak zaintzen, eraikuntza laguntzaile edo sukalde laguntzaile moduan. Deitu telefono zenbaki honetara: 687 35 06 37

Debagoiena. Orduka lan egingo nuke garbiketetan edota nagusiak zaintzen. Baita gaudetan ere. Soziosanitario titulazioa eta autoa daukat. Telefonoa: 631 48 33 08 (Raquel)

Debagoiena. Prest nago pertsona nagusiak zaintzeko arratsalde, gau edo asteburuetan. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 631 98 15 50

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa duen neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko, ospitalean gauak egiteko zein garbiketa lanetarako. Orduka eta asteburuetan ere bai. 662 54 79 50

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko gertu nago. Edo egunean zehar edo gau solteak. Telefonoa: 696 84 19 51

Lan bila. Edozein lan mota egiteko prest: umeak zaindu, tabernan, enpresan eta abar. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 01 32 58

Oñati edo Bergara. Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 602 01 32 58

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Bergara. Batxilergoko lehen mailan dabilen mutiko batentzat matematika

eskola partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilta. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 70 58 33

Bergara. Lehen Hezkuntzako 6. mailan dagoen ikasle bati etxean eskola partikularrak emango dizkion norbait behar ditut. Euskara beharrezkoa. 679 43 32 55

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Katakumeak. Hiru katakume dohain eskaintzen dira. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 664 34 47 33 (Itziar)

8. DENETARIK

807. AURKITU

Giltzak Aretxabaletan. Larunbat gauetan Aretxabaletako Orly tabernan etxeko giltza batzuk aurkitu nituen. Golmar etxeko giltzarako beltz bat dauka. Arrasateko BAZ bulegoan utziko ditut.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

'APPA HI!' APLIKAZIOA EZAGUTZEN

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA

AINHIZE BARRAINKUA 'LUZAPENA' TARTEAN

'Hemen Debagoiena' Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
[goiena.eus/
telebista](http://goiena.eus/telebista)
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

HILETA

Arantxa Mondragon Garay

Ignacio Cenciaga 'Divino'-ren alarguna

2021eko azaroaren 25ean hil zen, 88 urte zituela.



Haren aldeko hileta-elizkizuna, gaur, egubakoitza, azaroak 26, izango da, 19:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokan.

—
*Itxutu argixe ta kontuz eskaileratan
Izarbo baten elkartuko gare, amama
Gero arte 'Rubia de Uribe'*
Etxekuak

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten, 2021eko azaroaren 26an.

OROIGARRIA

Javier Zubia Pagalday



2020ko azaroaren 27an hil zen.

*Urtea zein azkar igaro den,
joan zinen, baina gure artean izango zaitugu beti.*

Zure senideak.
Aretxabaletan, 2021eko azaroaren 26an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.
- ORDAINTZEKO ATALETAN, PARTIKULARREN KASUAN, PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBKO BAZKIDEENDAKO.

URTEURRENA



**Segundo
Leceta Errasti**

2020ko azaroaren 22an hil zen, 85 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 28an, 11:30ean, Eskoriatzako San Pedro parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan, 2021eko azaroaren 26an.

URTEURRENA



**Antolin
Lobato Carton**
'Toli'

2020ko azaroaren 25ean hil zen, 67 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, azaroaren 28an, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizara joango zaretenoi eskerrik asko, familiaren izenean. Bergaran, 2021eko azaroaren 26an.

20.URTEURRENA



**Iker
Eguren Medina**
'Baxi'

2001eko azaroaren 24an hil zen.

Urteak zeinen azkar igaro diren,
joan zinen, baina gure artean izango zaitugu beti.

Kuadrillakuak.
Bergaran, 2021eko azaroaren 26an.

ESKER ONA



**Iñaki
Sologaistoa Zabaleta**

Rosita Agirre Larrañagaren alarguna
2021eko azaroaren 13an hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, azaroaren 27an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2021eko azaroaren 26an.

ESKER ONA



**Teresa
Zabaleta Ortubay**

Juanito Unzueta alarguna
2021eko azaroaren 20an hil zen, 95 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Haren aldeko meza domekan izango da, azaroaren 28an, 12:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian.

Arrasaten, 2021eko azaroaren 26an.

ESKER ONA



**Trinidad
Mugica Garitano**

Fernando Lazcanoren alarguna
2021eko azaroaren 22an hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2021eko azaroaren 26an.

ESKER ONA



**Jorge
Zubizarreta Unanue**

2021eko azaroaren 24an hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko azaroaren 26an.

ESKER ONA



**Manu
Zubizarreta Arenaza**

2021eko azaroaren 23an hil zen, 75 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2021eko azaroaren 26an.


ESKER ONA



**Florentino
Lamariano Agirre**

Elisabete Azkarate Larrañagaren alarguna
2021eko azaroaren 21ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.


Antzuolan, 2021eko azaroaren 26an.

OROIGARRIA



**Jorge
Zubizarreta Unanue**

2021eko azaroaren 24an hil zen, 74 urte zituela.

Eskerrik asko Palazioko famelixien parte izetiegatik.
Eta hainbeste urtetan emun gaizun maitasunagatik.
Agur bero bat, Jorge.

Zure Untzillako famelixie.
Aretxabaletan, 2021eko azaroaren 26an.

OROIGARRIA



**Jorge
Zubizarreta Unanue**

2021eko azaroaren 24an hil zen, Aretxabaletan, 74 urte zituela.

Bizi gazen artian gure bihotzian eruango zaittugu.
Eskerrik asko, Tio Jorge.

Zure Boluko loibak. Zubia senidiak.
Bergaran, 2021eko azaroaren 26an.

**Oroilore**
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.

Gure eskerrik beroenak guran izan duzun konfiantzagatik eta maitasunagatik.

Ion, Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

TXUTXU-MUTXUAK

**1. 'Asier Cuevas' lasterketan**

Zure Irrifarra, Nere Indarra taldeko hainbat kidek parte hartu zuten Eibarko lasterketan. Han egon ziren Urdin Mendiola oñatiarra eta Julen Ziarsolo bergararra.

2. Diskoa aurkezten

Bergarako Seminarioxoa lepo bete zen Diablues Ta Bluezifer bikoaren doinuez gozatzeko. Herritarren aurrean *Gure urdina* diskoa aurkeztu zuten.

3. Bibotedunak, elkarrekin

Elorregin elkartu ziren Antzuolako, Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko Movember taldeetako kideak. Emakumezkoek biboteak margotu zituzten.

4. 50 urte ezkontuta

Joxu Lazkano eta Mariaje Epelde bergararrek urrezko ezteiak ospatuko dituzte bihar, azaroak 27. "Zorionak eta egun ona pasa! Besarkada bana, familiaren partetik".

5. Derbiaren osteko bazkaria

Mondrako ohorezko mailako kadeteak, UDAREN kontra jokatu ostean, bazkaltzeko elkartu ziren. "Ederto ospatu genuen, elkarrekin. Aupa Mondra!".

6. Oroiz eta Lopez, Espainiakora

Arrasateko Desoreka kluba hasi da emaitzak lortzen. Naiara Oroiz eta Iker Lopez Espainiakorako sailkatu dira, eta taldeka bigarren izan ziren Euskadikoan.



ZORION AGURRAK



BERGARA / BAÑARES
Ander Aparicio Aranzabal
Abenduaren 2an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Etxeko guztien izenean. Muxu handi bat eta ondo pasatu.



ARETXABALETA
Mari Carmen Vila
Abenduaren 1ean, 59 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu egun berezi hau, dena merezi duzu-eta! Patxo potolo bat guztion partetik.



OÑATI
Markel Zabaleta Legaristi
Azaroaren 30ean Markelek 6 urtetxo beteten dau. Zorionak, politt hori, eta ondo pasatu zure egunian. Patxo handi-handi bat familia osoaren partetik.



LEINTZ GATZAGA
Martiñe Garcia Heriz
Azaroaren 29an, 3 urte. Zorionak, maitia! Egun zoragarrixa pasatu deizula! Patxo potolo bat familia guztiaren partetik! Maite zaitugu!



OÑATI
Urdax Erostarbe Aramburu
Azaroaren 28an, 4 urte. Zorionak, maitia! Konturatu barik ze handi iñ zaren. Muxu erraldoi bat familia danaren, baina batez be, Ganixen partetik. Elkarrekin ospatuko dugu egun handi hau!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



ESKORITATZA
Dorleta Letona
Azaroaren 28an, 64 urte. Zorionak, neska. Ondo pasatu zure egunean eta patxo potolo bat guztion partetik.



OÑATI
Hodei Benito Alzelai
Azaroaren 27an, 9 urte. Zorionak, Hodei! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Asko maite zaitugu! Unax, aita, ama eta etxekoen partetik.



ARRASATE
Izar Lorenzo Martinez
Azaroaren 27an, 8 urte. Zorionak, Izar! Zortzi urte! Asko asko maite zaitugu! Ondo pasatu eguna!



ARRASATE
Malen Etxeberria Agirreurreta
Azaroaren 26an, 5 urte. Zorionak, Malen! Ondo-ondo ospatu zure eguna! Muxu pila bat, zure amamaren eta aitonaren partetik. Asko maite zaitugu!



OÑATI
Oiñan Odriozola Larrañaga
Azaroaren 26an, 2 urte. Zorionak, Oiñan! Patxo pila bat familia danaren partetik. Oso ondo pasatu zure egunian!



HERNANI
Danel Gallego Jodar
Azaroaren 24an, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat, aittaren eta amamaren partetik. Oso ondo pasatu eguna!



ELGETA
Inhar Zabala eta Xabier Zabala
Zorionak! Azaroaren 24an, etxeko mutil handixak 5 urte eta 29xan, aitatxok. Ondo-ondo pasatu etxeko danon partetik.



ARRASATE
Nora Axpe Pacios
Azaroaren 23an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Patxo potoloak etxekoen partetik!



ARRASATE
Irantzu Souto Lasa
Azaroaren 22an, 11 urte. Zorionak, sorgintxo! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu handi-handi bat etxeko guztion partetik!



BERGARA
Izar Akemi Etxeberria Ramirez
Azaroaren 21ean, 12 urte. Zorionak, Izar, zure 12. urtebetetzean, etxeko danon partetik. Maite zaitugu. Beti irrifartsu, baikor eta arduratsu. Segi horrela!



BERGARA
Julene Agirre Gonzalo
Azaroaren 20an, 7 urte. Zorionak, printzesa. Super ondo pasatu zure eguna. Patxo handi-handi bat Oierren, Asierren, Lierren eta Anerren partetik.



OÑATI
Nora San Miguel Billar
Azaroaren 18an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat danon partetik!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 26

OÑATI Ortu lorategiaren irekiera
Familiendako landatzea eta mural margotzea.
Ludotekan, 17:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikaleko banda gaztea eta gaita-jotzaileak
Santa Zezilia kalejirak egingo dituzte: 17:30ean, bandak; eta 19:00etan, gaita-jotzaileek.
Arrasaten.

OÑATI 'Hotel Marigold' filma
Pake Lekuren Kultura Astearen baitan.
Pake Lekun, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Gurasoen Alienazio Sindromerik ez dago: emakumeen eta haurren aurkako tortura instituzionala' hitzaldia
Iruñe Costumerok egingo du berba, gazteleraz, Eskoriatza Bizirik feminista taldeak gonbidatuta.
Kultura etxean, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Chhaupadi' ikus-entzunezkoa
Edurne Pasabanen lana. Sarrerak, hiru euro.
Arkupen, 18:30ean.

DEBAGOIENA Niko Etxart eta Hapa Hapa taldea
Soraluzeko Blues Hotsak jaialdiaren baitan.
Soraluzeko Herri Antzokian, 20:00etan.

ARRASATE Goikobalu Abesbatzaren emanaldia
Santa Zezilia kontzertua egingo dute.
San Frantzisko elizan, 20:00etan.

BERGARA Leire Etxezarreta eta Joseba Irazoki Eta Lagunak taldea
Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

OÑATI Organo kontzertua
Loreto F. Imazek eta Itziar Urbietaren Beobidek lau eskutara egingo dute kontzertua.
Parrokian, 20:00etan.

BERGARA Katarsia eta Nowsky taldeak
Deba Bailarako Kontseilu Sozialistaren eskutik.
Zubitxako eskolan, 22:00etan.

BERGARA Cristian eta Olatz bikotearen kontzertua
Debalde.
Txuringo tabernan, 22:00etan.

ZAPATUA 27

BERGARA 'MovemBer Gara' ekimena
10:00etan, San Martzialera igoera. Ostein, Surran, talde-argazkia dronearekin, bibote mozketak eta bazkaria.
Bergaran.

OÑATI 'Aulkiak' topaketa
Herrian dauden ehundik gora erakunderen, elkarteren edo kolektiboren elkarlanerako espazioa.
Eltzian, 10:00etan.

ARRASATE 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' antzezlan
Jean Giono idazle frantsesaren ipuin alegoriko batean oinarritutako lana, umeendako. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE 'Zentzumenekin jolasean' ekimena
Gaztetxoendako.
Erguingo gazte txokoa, 17:30ean.

ARAMAIO 'Leihoak' ikuskizuna
Paraiso Antzerki taldearen eskutik, 3 eta 5 urte arteko umeendako.
Kultura etxean, 18:00etan.

BERGARA Arragoa taldea
Debalde.
San Juan ermitan, 18:30ean.

BERGARA 'Kirol argazki lehiaketa' erakusketa
Bihar da bilduma ikusten azken eguna.
Aroztegin, 18:00etan.

ANTZUOLA 'Panpina' antzezlan
Erikak Olaizolak antzeztutako lana, Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira.
Torresoroan, 19:00etan.

BERGARA Lagrimas Y Rabia, Klineks, Holy Nuns eta Buterflai taldeak
Sarrerak, bost euro.
Kartzela zaharrean, 21:30ean.

DOMEKA 28

BERGARA Bergarako txistulari bandaren kalejira
Erdialdeko kaleetan.
Bergaran, 10:00etan.

OÑATI 'Altxorren bila' ibilbide irisgarrian
Familiendako jolasa. Aurrez eman behar da izena: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*.
Parquetxean, 11:00etan.

ARRASATE Jose Maria Arizmendiari alderatzen aldeko meza
Bere heriotzaren 45. urteurrena gogoan.
Parrokian, 12:00etan.

BERGARA Hidrogeno berdeari buruzko erakusketa
ZTB jardunaldien baitan, ikusgai dago otsailaren 15era arte. Oso didaktikoa da, erraz ulertzeko.
Laboratoriumen, 12:00etan.

OÑATI 'Lehoiak Oñatin' tailerra
Arrikutzen topatu zuten lehoiaren hezurduraren harira. Bi saio egongo dira: 12:00etan Arrikutzen, eta 16:30ean Turismo Bulegoan.
Oñatin.

BERGARA Bikote gazteentzako 43. dantza askatuko txapelketa
Musika eskolaren eskutik. Hamasei bikote lehiatuko dira, nor baino nor gehiago.
Seminarixoa, 12:00etan.

OÑATI Hegazkin taldea
Sintetizadoreak, gitarra elektrikoak eta ahotso erabiltzen dituzte Alayn Carazok eta losu Villanuevak. Sarrerak, bost euro; langabeek, hiru euro.
Gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Arrasate Musikaleko bandaren kontzertua
12:00etatik aurrera sarrerak banatuko dira elizaren sarreran.



GORAKADA

ARRASATE 'Zuhaitzak landatzen zituen gizona' antzezlan
Jean Giono idazle frantsesaren ipuin alegoriko batean oinarritutako lana, umeendako, Gorakada taldearen eskutik. Sandra Fernandez Agirre da protagonista nagusia. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

Agortzen direnean, ezingo da kontzertura sartu.
San Frantzisko elizan, 12:30ean.

ARRASATE Sukaldaritza 'random'-a
Gaztetxoendako.
Erguingo gazte txokoa, 18:00etan.

ARRASATE 'Shortbus' pelikula
Zinema-ziklo transmaribolloaren baitan.
Gaztetxean, 18:00etan.

ARAMAIO 'Kulunka' emanaldia
Haziaraba in the Mapping jaialdia. Lopez de Landacheren, Marcosen eta Uriarteren kontzertua, 1-4 urte arteko umeendako.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Adela eta Martirio, Bernarda Albaren etxean' antzezlan
Nerea Ariznabarreta eta Irene Hernando oholtzan. Sarrerak, lau euro.
Arkupen, 19:00etan.

OÑATI Musikegunak: Arah taldea
Ganbara musika eta dantza garaikidea bateratzen dituen ikuskizuna. Sarrerak, zortzi euro.
Santa Anan, 19:00etan.

DEBAGOIENA Koko-Jean & The Tonics taldea
Blues Hotsak jaialdiaren baitan.
Soraluzeko Herri Antzokian, 20:00etan.

ASTELEHENA 29

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Euskarari buruzko mahai-ingurua
Urko Aierbek, Ainhoa Pardinak eta Alex Arteagak egingo dute berba.
Artatse elkartearen, 18:30ean.

MARTITZENA 30

ARETXABALETA Gaztainak debalde, Aretxarteko dendetan
Zerbait erosiz edo kontsumituz.
Aretxabaletan, 09:00etan.

OÑATI Giza eskubideen gaineko hitzaldia
Cansu Bostanek egingo du berba, online. Aurrez eman behar da izena.
Online, 17:00etan.



ARITZ ORMAZABAL BARRIOS

OÑATI Hegazkin taldea
Sintetizadoreak, gitarra elektrikoak eta ahotsak erabiltzen dituzte Alayn Carazok eta losu Villanuevak. *Haize beltzak* diskoa aurkeztuko dute. Sarrerak, bost euro; langabeek, hiru. *Etzi, domeka, gaztelekuan, 12:00etan.*

ARRASATE 'Queercore' pelikula
Ez Donk Amaitu egitarauaren baitan.
Amaia antzokian, 19:30ean.

EGUAZTENA 1

BERGARA 'Por qué Elcano dio la vuelta al mundo' hitzaldia
David Zulaikak egingo du berba, gazteleraz.
Seminarixoan, 10:00etan.

ARAMAIO 'Jolas molas' ekimena
Euskarazko mahai jolasen maratokia, Gorbeialdeko Kuadrillaren eskutik, *Haurren aurrean helduok heldu* ekimenaren baitan.
Kultura etxean, 17:00etan.

ARRASATE Etxebizitza partekatuei buruzko hitzaldia
Cristina Cuesta psikologoak egingo du berba etxebizitza mota horiei buruz, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturaten, 17:30ean.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
Oxirondon, 18:00etan.

OÑATI 'Altsasu. Muntaia polizialek elkartasun uholdera' delako solasaldia
Adur Ramirez de Alda eta Jokin Unamuno auzipetuek parte hartuko dute. Gonbidapenak, Arranon.
Santa Anan, 18:30ean.

BERGARA 'El verdugo' pelikula
Zinekluba. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 2

BERGARA 'Origen' filma
Europara ihes egiteari uko egin zioten bi senegaldarren istorioa.
Irizar jauregian, 18:00etan.

ARRASATE 'Nik sinisten dizut' irakurraldi kolektiboa
Euskaraz eta gazteleraz.
Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Oki Moki taldea
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

EGUBAKOITZA 3

ESKORIATZA Gauargi taldea
Euskararen Egunaren harira, erromeria.
Fernando Eskoriatza plazan, 17:30ean.

ESKORIATZA Bost Axola taldea
Euskararen Egunaren harira. Sarrerak, bost euro.
Zaldibar antzokian, 19:00etan.

OÑATI 'Album' antzezlan
Formol Laborategiaren lana, Eburne Azkaratek zuzenduta. Intza Alkain eta Miren Ibarguren, oholtzan. Sarrerak, hamar euro.
Santa Anan, 22:30ean.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El buen patron
Egubakoitza eta astelehena: 19:30.
La familia Addams
Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

La cronica francesa
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Ron da error
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

La cronica francesa
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.
El lobo y el leon
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Maixabel
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 16:00.
D'Artagnan eta hiru mosketxakurrak
Zapatua: 16:00.

EIBAR

COLISEO

Ultima noche en el Soho
Zapatua eta domeka: 17:00.
Spencer
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
Eiffel
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.
ANTZOKIA
Ultima noche en el Soho
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GORBEIA

La patrulla canina
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.
Maixabel
Egubakoitzetik domekara: 16:45.
Astelehenetik eguenera: 17:20.
La familia Addams
Egubakoitza eta zapatua: 17:00.
Domeka: 12:00, 17:00.
Ron da error
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.
El ultimo duelo
Egubakoitza eta zapatua: 18:50, 21:45.
Domeka: 11:30, 18:50.
Astelehenetik eguenera: 19:35.
El lobo y el leon
Egubakoitza eta zapatua: 17:20.
Domeka: 12:00, 17:20.
Astelehenetik

eguenera: 17:30.
Eternals
Egubakoitza eta zapatua: 16:45, 22:05.
Domeka: 11:30, 16:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30.
Way down
Egubakoitza eta zapatua: 19:40.
Domeka: 12:00, 19:40.
Astelehenetik eguenera: 20:20.
Criatura oscura
Egubakoitza eta zapatua: 19:35, 21:40.
Domeka: 19:35.
Astelehenetik eguenera: 20:00.
Ultima noche en el Soho
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 20:40.
Astelehenetik eguenera: 20:00.
Año de sequia
Egubakoitza eta zapatua: 19:00, 21:30.
Domeka: 19:00.
Astelehenetik eguenera: 17:20.
Encanto
Egubakoitza eta

zapatua: 16:30, 17:30, 18:50, 20:00, 21:10, 22:15.
Domeka: 12:00, 16:30, 17:30, 18:50, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.
Bienvenidos a Racoon City
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 20:20, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:20.
Astelehenetik eguenera: 20:10.
La casa Gucci
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:10, 22:10.
Domeka: 11:30, 17:20, 19:10.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:30.
FLORIDA
La patrulla canina
Zapatua eta domeka: 12:00.
El buen patron
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:00.
Domekatik eguenera: 17:30.

Ron da error
Zapatua eta domeka: 12:00.
Way down
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 19:45.
Zapatua eta domeka: 12:00, 19:45
Pan de limon con semillas de amapola
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domeka, astelehena, eguaztena eta eguena: 17:30, 20:00.
Martitzena: 17:30.
Panteras
Zapatua eta domeka: 12:00.
Ultima noche en el Soho
Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:45, 22:00.
Domeka: 17:20.
Astelehenetik eguenera: 17:20, 19:45.
El lobo y el leon
Zapatua eta domeka: 11:30

KRITIKA

La crónica francesa ★★★★★
Zuz.: Wes Anderson. **Herr.:** AEB (2021). **Aktoreak:** Bill Murrayz. **Iraupena:** 108 minutu.

Kazetari mota berezia

ANTONIO ZABALA

Wes Andersonen filmak oso bereziak dira. Berehala igartzen dugu berak egindako lan baten aurrean gaudela. Estetikoki film izugarriak izaten dira. Dekoratuak, jantziak, musikak duen garrantzia zuzendariaren unibertsoan sartzeko, filmatzeko modua... Planoak oso zainduta daude. Irudien bertikaltasuna eta frontaltasuna aipagarria da. Koloretako eta zuri-beltzeko irudiekin jokatzen du. Marrazki bizidunen eta komikien izpiritua gertu dago. Eta aktoreen interpretazioek, seriotasun osoz eta ia keinurik egin gabe, Buster Keaton artista handia gogoratzen digute. Pertsonaia burugabeek eta istorioen ukitu inozente, apetatsu eta eroak Andersonen marka ezartzen dute.
La crónica francesa-n, Ameriketako Estatu Batuetatik



Frantziara joandako Arthur Howitzer Jr.-k aldizkari bat sortzen du. Oso aldizkari bitxia da, bai bere funtzionamenduarengatik, bai argitaratzen dituen erreportajeengatik. Andersonek aldizkariaren izaera eta hango kazetariak idatzitako hiru kronika irudikatzen ditu. Filmak

kazetariaren garrantzia aldarrikatzen du: munduan gertatzen direnak behar duten tonu literario eta artistikoarekin azaltzeko garrantzia. Filmak oso momentu onak ditu, beste batzuk ez hain onak. Irregularra da, baina oso koherentea, zuzendariaren aurreko lanekin alderatuta.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Valogreen

Orain hilabete, gutun bat irakurri nuen aldizkari honetan. Valogreen enpresak Bergaran jartzeko asmoa zuen birziklatze planta bati buruzkoa. Ordura arte ez nuen gauza handirik entzun, baina atentzioa eman zidan gutunean idazleak nola utzi nahi zuen garbi Bergarako Udalak inolako ardurarik ez zuela. Berehala pentsatu nuen: *Excusatio non petita, accusatio manifesta*.

Gaiaz gehiago jakin ahala, atera ditut nire ondorioak: EH Bilduk, inguruko eragileek alkateak hartutako erabakia ezkutatu nahirik, Jaurilaritzari botatzen dio Bergaran "errauskailu" deitzen diotena jartzeko errua.

Garbi hitz eginda, alkateak sinatzen du edozein enpresa herri batera etortzeko lehen baimena. Valogreenen kasuan ere hala izan da. Bergarako alkateak baimendu eta gero eskatzen zaio Jaurilaritzari ingurumen baldintzak betetzen dituen ala ez prozedura hastea, eta, beraz, sortu nahian dabilzan alarma sozialaren hasiera Udal Gobernuan bertan dago, alkatearen eskuetan. Eta, noski, izenak izen, Udal Gobernuak oso ondo zekien planta horrek paper fabrikek sortutako lohiak tratatzea zuela helburu.

Berriz ere EH Bildu hondakinen auzian jira-bueltaka.

GOIENA OKM GIDA

"Lanak eskaintzen didan askatasuna da onena"

MIKEL OTEIZA MULTIARREGLOS

Bere kontura lan eginda, antolatze duen askatasuna baloratzen du gehien Oteizak, nahiz eta aitortu duen askotan ez dela aitortzen lanaren atzetik dagoen esfortzua

Jone Olabarria ARRASATE

Haserre batetik abiatuta eta tabernako lanaz nekatuta erabaki zuen Mikel Oteizak Multiarreglos enpresa martxan jartzea Arrasaten, 2006an. Argi du ez dela etxe batera lan berbera egiteko bi aldiz joango: "Ondo egin nahi dut lana, inork ezer ez aurpegiatze-ko eta bitan lan bera egitera ez bueltatu behar izateko".

Multiarreglos izena du enpresak, baina zenbateraino zara multi?

Orokorrean, etxebizitzaren, lokalen eta negozioen mantentze-lanak; iturgintza, elektrizitatea... Ezberdintzen gaituena hori da: lau lan ezberdin egin arren, bakoitza bere arlokoa, pertsona bakarra bezala kobratzen dut, eta dena irteera bakarrean. Ez duzu lau lagunen atzetik ibili beharrik.

Inoiz egitea eskatu dizuten lanik arraroena?

Egia esanda, hamabost urtean behin bakarrik esan diot ezetz lan bat egiteari. Oso zaila zen, baliabide asko behar zituen eta, gainera, bezeroa ez zegoen prest balio zuena ordaintzeko. Orduan bakarrik esan diot ezetz lan bati.

Zergatik hautatu zenuen lan hau?
Urte askoan zehar egin dut lan tabernan, eta nekatuta nengoen.



Mikel Oteiza, lanerako erabiltzen duen ibilgailuarekin, San Andres auzoan. M.A.

"Ez zekiela ez aitortzeagatik..."

"Behin, emakume batek deitu zidan lan bat egiteko. Bere senarrari askotan esan ziola konpontzeko, eta ez zuela kasurik egiten. Konpontzen nenbilela, senarra iritsi zen etxera, eta emakumea larritu egin zen; uste zuen gizona haserretu egingo zela, ez ziola senarrari konpontzen laga. Emakumea gelatik irten zela aprobetxatuz, gizonak esan zidan: 'Eskerrak etorri zaren, ez nekien nondik hasi hau konpontzen, baina ez nion aitortu nahi!'. "

Ondo moldatzen nintzen halako lanekin, eta duela urte batzuk elektrizitate konpontze bat egin zidaten. Gehiegizkoa iruditzen zitzaidan kopuru bat kobratu nahi zidaten. Dezente haserretu, eta orduan erabaki nuen nire kontura hasteko garaia zela. Bidezko prezioa kobratuko nuela zin egin nion neure buruari. **Hogeita lau orduko zerbitzua eskaintzen duzu; ez al da nekagarria?** Egia esanda, gaueko lan gutxi egiten ditut, baina, askotan, jendeak ez du baloratzen zer eragiten duen zapatu bateko gaueko hamabietan joateak. Arazo bat dugunean, konpontzea nahi izaten dugu denok, gainerakoak askorik inporta gabe. **Zer da zure lanak duen onena?** Onena eskaintzen didan askatasuna da. Nire beharren arabera antolatzen dut lan jarduna, eta jai hartu nahi badut, jai hartzen dut.

Eta okerrenea?

Okerrenea bezero batzuen jarraia da: askok ez dute ulertzen lan baten atzean dagoen esfortzua. Edo lan bat egitera joan eta bezeroak etxean dirurik ez duela esatea; izan ere, gero, bere atzetik ibili beharra duzu, berriz bueltatu etxe berera kobratzera. Hala ere, normalean, bezero finak ditut, eta ezin naiz kexatu. **Arrasatearra zara; zein da zure lekuri kuttunena?** Bada, asko gustatzen zaidan plan bat da Udalara joan eta han bertan afaltzea; gero, herrira jaitsi eta tragotxo bat hartzea, trankil-trankil.


Goiena OKm
Gidaren
eskaintza
osoa



goiena
Okm
gida

BLACK FRIDAY
azken egunak

%20ko deskontua
betaurreko graduatuetan
+
2. betaurreko osoa
opari



Kontakizketa optikan konpainiaren etxeagatik.

Otalora Lizentziaduna, 18
943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16
943 76 15 75
BERGARA

www.multioplicas.com

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen